



ARGIA



ANGELA ARREGI



«KALERA LOTSA GABE
IRTETEA LORTU DUGU»

JASONE IRRAGORRI

«Oztopoak oztopo,
azkenean
autodeterminazio
eskubidea ere iritsiko
zaigu»

MAHAI- TRESNAGINTZA

Une larriak Gernikako
sektore
nagusienetako
izandakoan

JOAN PAULO II

«Promaren itzala eratu
zuen Aita Santua»


AIINGERU EPALTZA

«Lan ulerterrazagoak
egingo nituzke baina
hizkuntzak
menperatzen nau»

01598



TXURA BAINO GEHIAGO.



ANTZA
Maisuen Eskutik
soluzio grafikoak


- 6. Politika kronika. MIKEL JAUREGI.
- 8. Jasone Irrargarri: «Oztopoak oztopo, autodeterminazio eskubidea ere iritsiko zaigu azkenean». MIKEL JAUREGI.
- 12. Hungaria matxinatu zeneko berrogeigarren urteurrena. XABIER ARANBURU.
- 15. Zilarrezko tresnak ere herdoilak jotzen hasiak. XABIER ARANBURU.
- 18. Irakasgairik zailena. IDOIA TORREGARAI
- 20. Presoak ur-botilatan ekarri. ARANTXA ERASUN.
- 22. Zubieta Pilota Elkarte sortu berriak errebotea berpiztu nahi du. MARTIN AGIRRE.
- 24. Erromaren itzala eratu zuten Aita Santua. ANDER USABIAGA.
- 27. Angela Arregi: «Kalera lotsa gabe ateratzeko ausardia lortu dugu, jarrera desberdinak ditugu». MYRIAM GARTZIA.
- 32. Kultura kronika. MIKEL ELORZA.
- 35. Aingeru Epaltza: «Lan ulerterrazagoak egingo nituzke baina hizkuntzak menperatzen nau». XABIER CARRILLO.
- 38. Herriko musikoekin diskoa grabatuz ospatuko dituzte 25 urteak Baigorriko gaiteroek. PELLO ZUBIRIA.
- 40. Mikel Garikoitz: «Jendeak nahi duena konposatuko banu mertzenario nintzateke». MAITE ARTOLA.
- 42. «Euskal Artistak» liburuan oinarritutako erakusketa dago San Telmon azaroaren 17a arte. PATXI SARRIEGI.
- 45. Argitalpenak. JON ABRIL.
- 48. Irrati-Telebista. ARRITXU ZELAIA
- 52. Aukeran. GURUTZE IZAGIRRE.
- 48. Denborapasa.
- 58. Espainia indartzen 17 urtez. KARLOS RODRIGUEZ.




ANGELA ARREGI: 1997-98 denboraldirako moda eta aurreikuspenetan murgilduta dabil Bilboko denda eta tailerrean, Roma bere zakurrak batera eta bestera lagunduta. Madrilgo Cibeles utzi berria, bere estilismo eta Euskal Herriko moda diseinugintzaren inguruan aritu gara. Kalera lotsa gabe ateratzeko ausardia lortu ei dugu./27



POLITIKA: EArek ordezkarria da Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean. Eta ondorioz, batzorde horrek azken asteotan euskal presoek sakabanaketarekin amaitzeko hartutako erabakiak izan ditugu hizketagai. Lehenago edo beranduago, «gerturatzea gauzatuko» dela azpimarratu du Jasone Irrargarrik. /8



EUSKAL ARTISTAK: Izenburu hori darama, Donostiako San Telmon azaroaren 17a arte zabalik dagoen erakusketa. 30 eta 92 urte bitarteko 40 egileren lanak, arte figuratiboaren ordezkarri guztiak, ukitu oso ezberdinekin bada ere: espresionistak, inpresionistak, abstrakzioaren bidean... Euskal artearen arrastoa isladatzeko moduko erakusketa./42




Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Diputazioa
Kultura eta Euskera Departamendua


Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



BOST FILOSOFO HANDI

PLATON, DESCARTES, KANT, MARX,
WITTGENSTEIN



**JADANIK,
ZURE LIBURUDENDAN !!!**



GAIK ARGITALDARIA

OINARRIZKO LIBURUTEGIA

"**BOST FILOSOFO HANDI**" liburuskatzen Mendebaleko garaian garaiko filosoforik handienetarikoa diren Platon, Descartes, Kant, Marx eta Wittgenstein-en testuinguru historikoa, bakoitzaren pentsamendu filosofikoaren funtsa eta testu aukeratuak azaltzen dira, filosofia orokorrari sarrera erakargarri burutuz. (160 orri.)

PENTSAMENDU GARAIKIDEA

"**ERDI AROKO HISTORIARAKO BERROGEITA HAMAR HITZ NAGUSI**" liburuan, Erdi Aroko ekonomia, paisaiak, teknikak, erakundeak, pentsamoldeak, sineskerak... aztertzen dira, 50 hitz funtsezkoen bitartez eta Erdi Aroko Historia Irakasle ospetsua den Bonnassie-ren eskutik. (235 orri.)

ERDI AROKO HISTORIARAKO BERROGEITA HAMAR HITZ NAGUSI

Pierre Bonnassie



IRAKUR- LEAK MINTZO

Pako Aristiri puntualizazioak Jose de Artecheri buruzko bere artikulurengatik

ARGIA aldizkarian urriaren 6an agertutako «Jose de Arteche, traidor» izenburua zuen zure artikulua irakurri dut. Nire iritziz, aipatutako idatziak —bere izenburutik hasi eta azken esaldira— irain multzo bat osatzen du, Jose de Arteche azpeitiar idazle jaunaren oroimen eta lanaren aurkako irain multzoa, idazle izateaz preziatzen eta bere egiazko eginkizunetaz konziente den norbaiti, desegokiak direnak. Hau dena, kaleko panfleto txar bati dago-kion tonuan idatzia.

Egongo dira seguruenik, gora-behera batzuk direla eta, partikular edo instituzio mailan isiltasuna gordeko dutenak. Hor konpon, bakoitzari dagoz-kion ardurekin.

Nire aldetik, eta pertsonalki, zure artiku- lu horretan irainarentzat eta apo- logiarentzat erabiltzen duzula luma esango dizut. Larriki faltatu diozu be- giruneari, Jose de Arteche jaunaren oroimenari, bere lana osoari, senditar- tekoei, lagunei eta, bere heriotzaren 25. urteurrena zela eta, bere bizitzari bu- ruzko zenbait alderdietaz idatzi dugu- noi. Eta larriki faltatu diozu jaioterriko Udaletxeari ere.

Iraina bait da Artecheri buruz idaztea, bere luma gizarte bat kristau faltsu eta fatxen itzalpean mantendu nahi zute- nen zerbitzuan ipiniz, bere garaiko

errealitatea eta gizarte tentsioak faltsi- fikatu zituela esatean.

Iraina bait da Artecheri buruz idaztea, lekurik ez diogula egin behar, fatxa bat, euskaldun txar eta idazle kaskarra zela esatean.

Apologia bait da —txarra eta gainera oso larria— zure idatziaren amaiera al- dean, «eskerrak San Juan gauean Az- peitian dagoen Artecheren bustoa erre- kara bota zuten gazteei» adierazten duzunean.

Gizarte demokratiko orok sustatu beharreko printzipio zibiko eta hezga- rrien, eta horretarako familiek, ikaste- txEEK, udaletxeek, elizak eta abarrek komunikabideetan aurkitu beharreko babes iraunkor eta positiboen aurka doan apologia makur bat.

Pertsonen, instituzioen, elkarten eta abarren ekintzen aurkako desadosta- suna adieraztea ulertzen dut legezkoa dela, baina inoiz ez zuk erabili duzun tonu hutsegile eta suntsitzaile —nire iritziz— horretan.

Eta gutun hau bukatzeko, iradokizun moduan Pako, ikustatu ezazu «Canto a Joxe» liburuan (berrogeita hamar idaz- lek baino gehiagok, gainera gehienak oso euskaldunak) idatzi zutena. Segu- ruenik, liburu horren irakurketa lasaiak Artecheri ez zela izan serbilista bat, ezta fatxa bat ere, ezta kristau txar bat, ezta euskaldun txar bat, ezta idazle txar bat ere adieraziko dizu argi asko. Eta bere ahotsarekin edo bere lumarekin apo- logia egin zuenean, kultura, pakea eta batez ere, pertsona guztien duintasuna, salbuespenik egin gabe, sustatzeko izan zen.

JOSE IGNACIO ALBERDI EGAÑA
AZPEITIA (GIPUZKOA)

H I R U K O

T X I K I A N

Politiklan

Politika justizia soziala bermatzeko aktibitate- tzat genuenontzat, egungo alderdi politi- koen praxisak —oroko- rrean hartuta—, ogibidea beste nonbaiten daukagunak, ia lekurik gabe utzi gaitu, gu berarengandik alden du araziz.

Izan ere, nonbaiten eta ko- lektiboen interesen arteko oreka eta dialektika desagertu egin dira alderdien praktikatik, helburuetan hautesle merkatuan kuota handi- tzea baita garrantzitsuena, bakarra dela ez esatearren. Eta horretarako marketina da bidea. Marketin ho- tza. Hotzena. Alderdiak politikari profesionalez betetzen ari zaizkigu, egungo praktika mediatizatuak mi- litanteak baino teknikoak eskatzen baititu. Ia berdin dio eskuinekoa ala ezkerrekoa, merkatu legeek de- nak irentsi eta berdintzen baitituzte erdirantz erakarriz. Alderdia hel- buru bilakatu zaie. Eta alderdikide profesionalei, lanpostua. Beraz, politikagintza honetan gertatzen ari diren eskandaluak ikusita inork gutxi dimititu nahi izana normal- tzat jo beharko dugu, zeren hain errazki hainbeste hartu eta trukean hain gutxi eman beharra, ez da nonnahi aurkitzen.

JOXE MARI OSTOLAZA

ARGIA

JABEA: ZERUKO ARGIA, S.A.L.

LEHENDAKARIA: Joxe Mari Irazusta.

ZUZENDARIA: Pello Zubiria.

Kontseilu Editorialeko

Arduraduna: Baleren Bakaikoa.

Erredakzioa: Xabier Aranburu, Arantxa

Erasun, Mikel Jauregi, Juan Joxe

Petrikorena, Arritxu Zelaia.

Maketazioa: Berdaitz Goia.

Dokumentazioa: Ernesto Ibarluzea, Ainhoa Gerra.

Administrazioa: Jasone Larrarte.

Harpidetzak: Olatz Korta, Elena Guinea, Maider Amenabar.

Hedapena: Ixabel Bereziartua.

Publizitatea: Iñigo Txintxureta, Nekane Zubeldia, Itziar Diaz de Durana, Miren Larrarte.

HELBIDEAK

GIPUZKOA: Zirkuitu ibilbidea, 15.

pabiloia. 20160 Lasarte-Oria.

Tlf: 37 15 45. Faxa: 37 34 03/36 10 48.

BIZKAIA: Zabalburu 2, 1. ezkerre. 48003 Bilbo. Tlf: 410 34 34. Faxa: 410 37 15.

IPARRALDEA: Xalbardin baita. 64122

Urruña. Tlf: 59 47 60 00. Faxa: 59 47 60 01.

NAFARROA: Iratxe Monastegia 70, 3. ezkerre. 31011 Iruñea.

Tlf: 17 80 78. Faxa: 17 80 77.

LEGE GORDAILUA: NA 80-1963.

ISSN: 0213-909X.

BATZORDE PAREKIDEA: 72562 E.

INPRIMATEGIA: Antza, S.A.L.

INFORMATIKA: A.S.P., S.A.L.

Sozialisten txantxak

LISKARRA aurretik, liskarra ondotik. Ez da bakerik izan Kontzertu Ekonomikoaren garapenerako hitzarmena dela eta ez dela. Aurretik, EAJren eta PPren artekoa zen desadostasun eta haserre; ondotik, besteak beste, hainbat autonomia elkarteko agintariak agertu zaizkigu haserre akordioa gauzatu delako. «Haiek bai, ba guk ere bai» oihukatuz egin dute jauzi Rodriguez Ibarrek —lasai gizona, inork ez dizue Espainia kenduko-eta—, Pujolek, Ruiz Gallardonek eta abarrek. Guztien artean, PSOEko agintariak izan dira gehien 'eskandalizatu' direnak: Rodriguez Ibarra bera, Almunia, Chaves...

ZENBAIT sozialistaren ahotik akordioak kontsentsu konstituzionala hausten duela entzuteko tenorea izan dugu. Aznar, Ardanza eta Arzalluz —Atutxa bakarrik falta da A pokerra osatzeko— hirukotea, berriz, Kontzertu Ekonomikoa Espainiako ditzosozko Konstituzioan datorren eskubidea dela ihardeztiz. Jelkideek hainbestetan kritikatu-tako Konstituziora jo beharra ere...

Kontzertu Ekonomikoaren hitzarmenari buruz sekulakoak esan arren, euskal sozialistak izan dira EAEko Estatutuaren 17. urteurrena ospatu duten bakarrenetakoak. Akaso ez dute jakingo Kontzertu Ekonomikoa bera dela



Gernikako Estatutuaren ardatzetako bat. Bestela, ez da ulertzekoa. Gainera, hamalau urtez Espainiako Gobernuan egon ostean, Estatutua apenas garatu izana sozialisten 'lorpen' nagusienetako bat da. Txantxetarako gogoz dabil-tza, antza.

TXANTXETARAKO animoz ez dabil-tzanak, berriz, Herri Batasunakoak dira. Lehenik Iturgaitzen etxe-ataria izan zen; iragan asteburuan, aldiz, He-goaldeko lau hiriburu-tako alderdi

sozialistaren egoitzen aurrealdea. Oraingoan, autodeterminazio eskubidearen kontra azken asteotan burukide sozialistek egindako adierazpenak salatu asmoz. Konzentrazioak egiteaz gain, autodeterminazio eskubideaz eztabaidatzeko gonbitea egin dio HBk PSOeri. Eta hauek mintzatzeko prest daudela erantzun dute. Ez dadila izan txantxetan jarraitzeko asmoz.

MIKEL JAUREGI

HALAKO LOAPA USAIN BAT

IBARRETXEK Madrilén sinatu edo lortu duena oraindik ez dugu ikusi eta Espainia hankaz gora jarri zaigu. Atzo ilunabarra arte alderdia zorrotz kontrolatzen zuela zirudien Aznarri bere jendeak oldartu zaizkio. APko jatorria disimulatu eta UCDren etiketa bereganatu nahi izan duen Espainiako lehen ministro berriak Suarezen alderdiaren barne anarkia inportatu ote du zentrisimo etiketarekin batera? Azkenean, euskaldunok ez bezala dena negoziatzen ondo dakitela harrokeriaz aldarrikatu duten CiUkoak ere

lehertu egin dira. Orogen buru, ia espainol guztiek erabaki dute azken asteotan IUtik Ribo katalandar kritikoak eta Anguitak hasitako gurutzadan sartzea: EAEn Kontzertu ekonomikoa —ikusiko dugu Nafarroarena zaku berean sartzea komeni den, horiek ez dute eta espainoltasuna zalantzan ipini— salatzen dugu, pribilegio bat delako. Jazar gaitezen espainiarrok. Kafea denontzako. Edo denok kaferik gabe. Cassinellok zer dioen jakitea falta da: aurreko LOAPA ezartzeko militarren beharra izan zuten.

PELLO ZUBIRIA



ANTON SAENZ DE SANTA MARIAREN TARTEA

UA ETA EAJ-REN ARTEKO HITZARMENA GASTEIZEN

Arrazoiaren bidetik

HARRIDURAZ hartu du jende askok Jose Angel Cuerda alkateak Gasteizko Udal Gobernuko taldean parte hartzeko egin gonbitari UAK baiezkua eman izana. Itxuraz, harridura ondokoan oinarritzen da: ulergaitza egiten zaie batzuei UAK EAJrekin Udal Gobernuan lan egitea, kontuan hartuz UAren izaeraren ezaugarrietako bat politika nazionalistaren aurkako jarrerak mantentzea dela.

Harrituta dauden horiei erabaki hau ulertarazteko —normala izan beharko lukeen jokamolde politiko baten aurrean gauden arren, hau zenbaiti ulertaraztea agian ezinezkoa izango da, gure jarreraren eta adierazpen publikoen ezagutza-eza azaltzen duten baieztapen asko egiten baitira—, zenbait argibide ematea ezinbestekoa izango da.

Lehenik eta behin, UAK ez du politika nazionalisten aurkako jarrera hartzen nazionalistak direlako, politika nazionalista honek edo beste hark arabarren eskubideak zapaltzen dituen neurrian baizik. Nazionalistak ez diren politiken kontra ere jarrera bera hartu ohi du, baldin eta herritarren eskubideen aurkako politikak baldin badira.

Alderdiok printzipioen enfrontamendutik aldentu eta eremu komunak bilatzeko ahalgina egingo bagenu, gure ekinbideen sustengua beharko lukeen tolerantziaren praktikan aurrera egingo genuke. Tolerantzia ez da irizpidez aldatzea; tolerantzia da besteek ere iritzia emateko eskubidea dutela onartzea. Tolerantzia izateak ez du inor behartzen ukiezinezko bere printzipioak alboratzera. Arazoa da tolerantzian aurrera egiteko arrazionalitatea ezinbestekoa dela, triapak etxean utzi behar direla; finean, garuna erabili behar dela barrabilak erabili ordez.

Oso zaila da bi indar politiko ados jartzea printzipioen eremuan. Alderdi politikoei

ukiezinezko printzipioen eremuari buruz eztabaidatzen ari garela iruditzen zaigunear, enfrontamendu-jarrerak azaltzen dira. Ihes egin dezagun, bada, horretatik; egin diezaiogun ihes edozein akordio lortzeagatik arerioaren aurrean makurtu egin garela pentsatzeari. Onar dezagun guztia ukiezinezko eremua dela pentsatzea fundamentalismoa, integritasmoa dela.

Hausnarketa orokor horiei, honako hauek gehi diezaizkiegu: politikoki arrazoizkoa da botoen arabera Gasteizko bigarren indarra dena Udal Gobernuan egotea; heldua izan nahi duen alderdi batek gobernu-lanetan parte hartu behar du, eta biktimarena egiteari utzi; eta azkenik, akordio-proiektu honek jaso dituen kritika bakarrak fundamentalismotik eta inbidiatik sortutakoak izan dira. Inbidia kontu horretan PP kokatzen dut. Izan ere, bi urtetik gora baitzeramatzan Gasteizko alkateari -harremanak eskatuz-, eta honek UArekiko ezkontzako partaidetza erakutsiz erantzun baitio.


Santiago Cervera Nafarroako Gobernuko bozeramaileak adierazi duenez, *«ni, pertsonalki, Senideak-eko ordezkariekin bildu izan naiz Iruñeko-Udaletxean eta dezepzioa bartu izan dut. Beraiek ulertzen saiatzen zara eta abal den neurrian laguntzen. Baina azkenean, beraiek eskatzen dutena betetzen ez baduzu, erantzuna beti errespeturik gabekoa izan da»*.

EAEko Estatutuaren 17. urterenaren ospakizunetan, ondokoa esan du **Ramon Jauregik**: *«Euskal herritarrok zerbait ondo egin badugu 1979an Estatutua onartzean egin genuen, eta tamalgarrria da Euskadik oroimena galtzea, amnesia izatea eta, gainera, Estatutua baliogutzitzea. Tamalgarrria da Estatutuaren patriotismo handiagoa ez egotea, zeina euskal herritarren topagune bakarra den»*. Jauregiren hitz hauek gogor kritikatu ditu **Carlos Garaikoetxea** EAKo lehendakariak: *«EA ez dago prest autogobernua- ren irakaspenik jasotzeko»*. Oostera, **Jose Antonio Ardanza** EAEko lehendakariak Kontzertu Ekono-

mikoaren garapenerako akordioak eragindako liskarrari heldu dio: *«Batzuetan Konstituzioa euskal nazionalisten burua kolpatzeko erabili ohi da, baina batzuek abaztu egiten dute interesatzen ez zaienean»*.

Bestalde, **Floren Aoz** HBren Mahai Nazionalako bozeramailea kale-

istiluz mintzatu da: *«Kontu hau ez da aurretik lauzpabost pertsonak ez dakit non bilduta orain ondoko hau gertatuko da esanez osatutako plangintzaren ondorio. Gazterian barnerratutako fenomeno soziologikoa da, eta ez soilik sektore zehatz batzuetan barnerratutakoa»*.



Jasone Irarragorri, Eusko Alkartasunako legebiltzarkidea

«Oztopoak oztopo, autodeterminazio eskubidea ere iritsiko zaigu azkenean»

Lanbidez abokatua da 44 urteko bilbotar hau. Zortzi urtez Bilbon zinegotzi izan ostean, 1995ean legebiltzarkide hautatu zuten Bizkaiatik. Opera-zale amorratua, bizikletan ibiltzea oso atsegin du.



Bi asteren buruan, Gasteizko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean akordio garrantzitsuak lortu dira euskal presoan sakabanaketa-aren amaiera eskatzeko. Zer ekar dezake abalegin honek guztiak?

Legebiltzarraren aldetik, oso mugimendu garrantzitsua da. Batzuek eskuduntzarik ez izatea eta Barne Ministerioari dagokion gai batean eskuhartu izana aurpegiratu badiote ere, guztiz bestela

«Lehenago edo beranduago, presoan gerturatzea gauzatu egingo da». (Argazkia: Alberto Elosegil).

dela deritzot. Izan ere, Legebiltzarrak sentikorra izan behar du arazoekiko, eta presoena horietako bat da.

Zer espero dezakegun? Batetik, Legebiltzarrak, erakunde bezala, herri honetako arazoak konpontzeko balio duela erakustea. Bestetik, ondokoaz komentzitu nahi nuke Barne ministroa: bultzatzen ari garen plan-

gintza ez dela abstraktoan egindakoa, plangintza zehatza dela baizik. Eta hiru-garrenik, ekimen honekin bat egin ez duten indar politikoek azkenean bat egitea espero dut.

Gasteizko Legebiltzarraren erabakia errespetatu bai, baina azken hitza Madrilek duela esan du Jaime Mayor Orejak. Ho-

rrek zer pentsatua eman- go dizue, ezta?

Jendeak dituen arazoei irtenbideak emanez egin behar da politika, eta ez soilik eskuduntzei begira. Herritarren % 73k arazo honi irtenbidea eman behar zaiola, presoak gerturatu egin behar direla eta horrek herri honen baketze eta normalizazioan lagunduko lukeela

pentsatzea, ez da errespeta-
tzekoa soilik; kontuan hartu
beharrekoa da. Eta Barne
Ministerioaren erabakiak
bat etorri behar du euskal
herritar gehienek pentsa-
tzen dutenarekin.

**Baina Madrildik eginda-
ko adierazpen horiek ez
al dute agerian utzi Gas-
teizko Legebiltzarraren
abalmen eza?**

Kontua da Espetxe Erakun-
deen eskuduntza Madrilen
esku dagoela. Hain zuzen,
Legebiltzarraren hurrengo
plenoan transferentzia hori
bizkortzeko eskatuko dugu.
Eskuduntzen ildotik, Barne
Ministerioak arrazoi du. Bai-
na gai honek ez du soilik ira-
kurketa legalista behar; poli-
tikoa ere behar du. Eta poli-
tikoki, eskuduntzaren gaian
soilik oinarritzea ez da onar-
garria. Irakurketa politikoa
egingo balu, gehiago hartu-
ko luke kontuan indar politiko-
en, sindikatuen, erakun-
de bakezaleen eta abarren
aldarrikapen hau.

**Presoen gaiarekiko ja-
rrera-aldaketa nabarme-
nak antzeman daitezke
orain urtebetetik bona.
Nola interpretatzen ditu-
zu aldaketa hauek?**

Ez aurrera eta ez atzerako
egoera honetatik atera nahi
du herriak. Horretarako, be-
harrezkoa da politikan alda-
keta ematea. Boterean dau-
denek egiten ez dutenez, gi-
zarteak hori eskatzeari ekin
dio, presioa eginez. Zentzu
horretan, gauza bat oso argi
daukat: presoen gaiaren
prozesu honetan parte har-
tzen ari diren agente sozial
horiek guztiak aldaraziko

**«Presoen gaiaren prozesuan parte
hartzten ari diren agente sozialek aldatuko
dituzte boterean daudenen jarrerak»**



**«Galindorekin hartutako neurria beste batzuekin hartuz gero,
jende askori ez litzaioke gustatuko».** (Arg.: Alberto Elozegi).

dituzte boterean daudenen
jarrerak.

Sakabanaketa defendi-
tzen dutenek ohartu behar
dute sakabanaketak porrot
egin duela, ez baitu hasieran
jarritako helburua bete. Ho-
rretaz ez ohartzea hutsegite
handia litzateke. Euren ja-
rrera Espetxe Lege Oroko-
rrak esaten duenaren kon-
trakoa da. Euren burua de-
mokratikotzat dutenen al-
derdiek ezin dute defenditu
legezkoa ez den jarrera.

**Presoak Euskal Herrira
gerturatzeko unea gertu
ikusten al duzu?**

Lehenago edo beranduago,
gerturatzeko gauza egingo
da. Lehenik eta behin, legez-
koa delako. Eta legezkoa de-
na bete egin behar da, bai
gustukoa denean eta baita
atsegin ez denean ere. Baina
legezkoa izateaz gain, atzera
-bueltarik ez duten gaietako
bat da hau. Populazioaren
% 73k zerbait eskatzen due-
nean, modu batera edo bes-
tera, zerbait hori iritsiko
egingo da. Eta zenbat eta le-
henago iritsi, arazo asko sai-
hestu ahalko ditugu.

**Zu zeren aldekoa zara:
gerturatzearena ala Eus-
kal Herriratzearena?**

Zein da eskubide horren
muina? Batetik, presoen eta
senitartekoen arteko harre-
mana erraztea. Zentzu ho-
rretan, preso dagoenaren-

HAMARREKOA

JONE GOIRIZELAIA

«Emakume nahikoa gogorra
iruditzen zait»

SABIN INTXAURRAGA

«Ondo sustraitutako
konbizio eta irizpideak
dituen gizona»

ROSA DIEZ

«Emakume bizkorra da eta
uneotan dagoen tokia
irabazten jakin izan du»

JOSE A. RUBALKABA

«Araudiari lotutako gizona»

LEOPOLDO BARREDA

«Gizon adeitsu eta
gizabidetsua»

KARMELO LANDA

«Dogmatikoegia iruditzen
zait»

RODOLFO ARES

«Enfrentamendua baino
kontsentsua gehiago bilatzen
duen pertsona»

CARLOS GARAIKOETXEA

«Euskal politikagintzan
ezinbesteko erreferentzia»

KATY GUTIERREZ

«Feminista bat politikaren
munduan»

JUAN MARI ATUTXA

«Kargurik zailenetakoaren
jabe den pertsona»



«Kontzertu Ekonomikoaren akordioan trukean zerbait eman ote den jakiteke dugu oraindik». (Argazkia: Alberto Elozegi).

tzat gain, sakabanaketa sendiarentzako ere zigorra da. Bigarrenik, bere sorterritik zenbat eta gertuago egon, presoak beti aukera gehiago izango du bere ingurunetik ez urruntzeko. Hori bada helburua, berdin-berdin lor daiteke 100 kilometrora egonik edo 150era egonda. Gainera, ezin dugu ahaztu une hauetan Euskal Herriko lau kartzelak ez daudela euskal preso guztiak jasotzeko moduan.

Hainbat politikarik adierazi duen bezala, presoena gaia konpontzea bagegintzan aurrerapausoa ematea izango litzatekeela uste al duzu?

Oso posible da. Batetik, sufrimendu asko saihestuko litzatekeelako. Eta jendeak sufritzeari uzten dion une

beretik, egoera normalizatzen hasiko da. Gainera, sufrimenduzko eta ez-legezko egoera horretan oinarrituz jarrera jakin batzuk hartzen dituztenek, arazo hori desagertzen denean, ez dute oinarri hori izango.

Aspaldion, adierazpen askotxo ari gara entzuten elkarrizketaz eta negoziatioaz. Zer behar da mahaian eseri eta bizketan basteko?

Zorionez, batzuk aspaldidanik defenditzen ari garen elkarrizketaren tesia gailentzen ari da. Uneotan, inork ez du zalantzan jartzen in-

darkeriaren arazoaren irtenbidea elkarrizketaren bidetik etorriko dela. Zer behar den horretarako? Bi aldeen borondatea.

Elkarrizketari ekin abal izateko, zer eskatzen diozu ETari?

Gauza bat baino ez: benetan bakea lortu nahi izatea eta sufritzen ari garen honekin amaitu nahi izatea.

Espainiako Gobernuari?

Tolerantzia eta ulerkerria izan dadila, eta uler dezala euskal herritarrek garelako arazo honekin gehien sufritzen ari garenak. Eta batik bat, ondoko hau ulertzea nahi

nuke: arazo honek, irtenbide polizialaz gain, irtenbide politikoa ere baduela.

Eta alderdi politikoei?

Utz ditzatela interes partidistak alde batera, gauza askotan amore eman beharko baitute. Protagonismorik nahi ez izatea eskatuko nieke, eta garrantzitsuena bakea lortzea dela ohartzea eta ez garaipena.

PPk, EAJren laguntzarekin, aurrekontuak atera ditu aurrera, Kontzertu Ekonomikoaren eta Kupoaren gaian akordioa lortu dute... Nola ikusten du EAK EAJren eta PPren arteko barremana?

Jada ohiturik gaude EAJk politika egiteko duen merkataritza-moduarekin. Erabiltzen duen hizkuntza bikoitza ohikoa bilakatu da,

«Inork ez du zalantzan jartzen indarkeriaren arazoaren irtenbidea elkarrizketaren bidetik etorriko dela»

« Protagonis-
morik nahi ez
izatea eskatuko
nieke alderdiei, eta
garrantzitsuena
bakea lortzea dela
ohartzea eta ez
garaipena»

eta inolako lotsarik gabe jo-
katzen du modu horretan.
Aurrekontuetarako akor-
dioa aurrekontuak onartu
beharreko egunaren bezpe-
ran lortu izanak akordioa
bera desitxuratu egiten du,
boto batzuen truke egin bai-
ta. Printzipioekin ez da ho-
rrenbeste komertziatu be-
har. Izan ere, Kontzertu Eko-
nomikoa eskubide bat da, ez
Espainiako Gobernuaren
kontzesio bat.

**EAJk, bederen, bere hel-
burua lortu du...**

Kontzertuaren akordioan
trukean zerbait eman ote
den jakiteke dugu oraindik.
Baina truke-txanponik egon
den ala ez jakiteko itxaron
egin beharko dugu, horrela-
koak beti agertzen baitira az-
kenean. EAJk ordaindu eta
kobratzeko politika jorra-
tzen duenez, seguruenik
izango da zerbait.

Dena den, ekintzak ikusi
arte ez zaizkit zalantza guz-
tiak desagertuko. Hitzarekin
soilik ez naiz fio. PPK sei hi-
labetetan eman duen alda-
keta nolako izan den azter-
tuta, ikusi egin behar Madri-
lek hitza betetzen duen.

**Azken aste hauetan auto-
determinazio eskubide-
aren kontrako adierazpen
gogorak entzuteko mo-
dua izan dugu. Erantzun-
ik ba al duzu kritika bo-
rientzat?**

Kritika horiek beldurraren
ondorio dira. Autodetermi-

T A N T O A

Lehenengo lerroan


BERE lanbidean zein politikan,
protagonismorik bilatu gabe,
aurrealdean egoten jakin duen
emakumea da Jasone.

Bilboko Bidebarrieta kalean
jaiotakoa, Jasone Irrargarri Vi-
guera nazionalismoari imo lo-
tutako sendi batekoa da. Aber-
tzaletasun konbikzio hauen
ondorioz, Bilboko lehen ikas-
tola ekarri zuen taldeko kide
izan zen. Gerora, Deustuko
Unibertsitatean zuzenbide
ikasketak hasi zituen, 1975ean
lizentziatuz. Bere lanbidean,
lehen urratsak abokatu-lagun-
tzaile bezala eman zituen zen-
bait abokatu-bulegotan, ez-
kontza eta familia-zuzenbidean
espezializatutako abokatu-lan-
gela propioa zabaldu zuen arte.

1987. urtera arte ez zuen poli-
tikagintzan jarduteko erabakia
hartu. Bere zezen-zalatasuna-
rekin —bere aitona, Pedro Vi-
guera, Bilboko Club Cocheri-
toko aurreneko lehendakaria
izan zen— loturik, urte horretan

«zezenak barreratik ikusten» ez
jarraitzea erabaki zuen, eta poli-
tikaren zezen-plazara egin
zuen jauzi Bilboko EAko zine-
gotzi bezala. Udaleko lanak,
Emakumearen Batzordeko or-
dezkarri lehenik eta bere taldea-
ren bozeramaile gero, eta bere
esperientzia juridikoak Jaso-
neren ospea landu zuten. Hala,
EAko zuzendaritzaren kon-
fiantza jaso zuen eta 95ean bere
lan politikoaren eszenatokia
aldatu zen: Bilbotik Gasteizera.

Fobiak, gaizki ulertutako
aurkakotasunak eta lehiak oso
ohikoak diren politikaren ar-
loan, ez da sarri topatzen Ja-
sonek bezainbeste konfiantza
ematen duen pertsonarik. Be-
rarekin lan egin dutenen ahotik
oso zaila da Jasoneri buruzko
kezurik entzutea. Bere irizpi-
dea gailentzen saiatu beha-
rrean, iritzi oro entzuteko ahal-
mena baitu. Hitz egiterakoan
edota bere keinuetan azaltzen
duen lasaitasunak entzuten ari



**Jaime Pinedo Goiria
Kazetaria**

dena liluratu egiten du. Lasai-
tasun hori du ezaugarri nagus-
ietakoa. Baina ez du erabiltzen
arma politiko edota moztorro
modura. Jasonek ez baitaki mo-
zorrotzen. Jasonek mitin bat
ematen duenean, plenoren ba-
tean parte hartzen duenean
edota oholta gainean dagoe-
nean, Jasone da: bere ideiekiko
konprometitua, konfiantza
eman dioenari konfiantza es-
kaintzen saiatzen dena. Horre-
tarako utzi zion «zezenak barre-
ratik ikusteari» eta lehenengo
lerroan egotea onartu.

nazio eskubidearen alde-
koak garenok eskubide hori
daukagula onartzea nahi du-
gu, herri ororen eskubidea
baita. Eta gainera, gaur ber-
tan diogu herri honen bo-
rondatea onartu egingo du-
gula. Eskubide hori bagenu
eta euskal herritarrek ez du-
tela autodeterminatu nahi
esango balute, erabakia
errespetatu egingo genuke.
Aldiz, eskubide horren eza-
gutza ukatzen ari zaizkigu-
nak zerbaiten beldur izango
dira, edo bestela erabateko
konbikzio demokratikorik
ez daukate.

Dena den, autodetermi-
nazio eskubidearena atze-
ra-bueltarik ez duen gaia da.
Oinarritzko eskubidea den
aldetik, ez daukat zalantza-
rik: oztopoak oztopo, azke-

nean autodeterminazio es-
kubidea ere iritsiko zaigu.

**GAL auziak pil-pilean ja-
rraitzen du, eta auzian
nabastutakoak gero eta
gebiago dira. Auzia era-
bat argitzerik izango de-
la uste al duzu?**

Gauzak nahasten ari dira:
Estatuaren segurtasuna de-
fenditzen ari direla diote,
baina Estatuaren segurtasuna
soilik ari dira defenditzen.
Bide zaila izango da, baina kon-
fiantza dut bi gauzatan: ba-
tetik, justizian, eta bestetik,
herriaren eskaeran. Herriak
ezin du orrialdea pasatzen
utzi lehenik orrialdea iraku-
rri gabe.

**PSOEn eta PPren arte-
ko akordiorik badagoela
uste al duzu gai bonetan?**

Hala dirudi. Harrigarria da
oso PPK hauteskundearen au-
rretik zioenaren eta orain
esaten duenaren artean zer
nolako aldea dagoen ikus-
tea. Estatuaren agiri, doku-
mentu eta sekretuak eskura
izan dituen ikusi ahal
izan duena izugarria izan
arren, PPren eginbeharra da
horren guztiaren berri epai-
leei ematea.

**Zer adierazten dizu GAL
auzian nabasturik ager-
tu diren gebienak kalean
egoteak?**

Guztientzat ez dagoela au-
kera-berdintasunik. Galin-
dorekin hartutako neurria
beste batzuekin hartuz gero,
jende askori ez litzaioke
gustatuko.

MIKEL JAUREGI

1956ko urriaren amaieran hasi zen errebolta; azaroaren 11 rako itzalia zuten sobietarrek

Hungaria matxinatu zeneko berrogeigarren urteurrena

S talinen heriotzaren ondorengo giroan piztu zen 1956ko Hungariako matxinada, armada sobietarrak tankez eta odolez menperatu zuena; oraintsu dira 40 urte.



Soldadu sobietar baten lintxamendua Hungariako hiriburuan, 1956ko urriko erreboltan.

xekoslovaakia inbaditu aurretik ere izan zen matxinadarik Sobiet Batasuna zeneraren menpeko herrialdeetan. Berlinen 1953an milaka langile aritu ziren tankeei aurre egiten; Polonian sarritan izan zen mugimendurik; bortitzena eta odoltsuena, alabaina, Hungariakoa izan zen, 1956koa. Oraintxe dira 40 urte, azaroaren 4an, Sobiet Batasuneko mila tanke Budapestean sartu zirela.

Zeruan, gerra hegazkinak. Armada Gorriak berehala menperatu zituen hiriburu-ko ingurune estrategiko guztiak. Irrati emisora nagusienak, urria ezkerotik Batzorde Iraultzaileen esku zegoenak, azken mezua zabaldu zien Mendebaldeko

agintariei: *«Ez zaigu denbora luzerik geratzen. Badakizue zer ari den gertatzen hemen. Lagundu, lagundu, lagundu!»*.

Jozsef Mindszenty kardinalak, matxinatuek kartzelatik askatu berria zutenak, EEBBetako enbaxadan gor-

de zuen bere burua. Tanke sobietarrei aurre egitea ezinezkoa zela ikusirik, milaka lagunek deserirako bidea hartu zuten, Austriako mugarantz. Ehun mila hungariar inguruk aldegin zuten 1956ko udazken hartan. Imre Nagy presidentea

Hungariako gertakariak aztertzeko Sobiet Batasuneko Alderdi Komunistaren XX. Biltzarra aipatu behar derrigor

errenditu egin zen, eta handik puska batera jakin zen sobietarrek afusilatu egin zutela. Pal Maletar, Hungariako armadako jenerala eta stalinista sutsua izana sobietarrek negoziatzera abiatu zen inbasioaren bezperan, Tokokoleko base militarera. Ez zen sekula itzuli. Handik lau urtera jakin zen afusilatu egin zutela.

Maletar jenerala heroi handitzat gogoratzen dute egun hungariarrek. Karreko militarra izaki, aginduak betetzeko hezia, bere herriaren aurka tiro ez egitea erabaki zuen. Matxinatuak Kiljan koarteleko ateak botatzear zebiltzanean, ibilgailu blindatu batean heldu zen bertara Maletar. Hungariako bandera eskuetan zuela oihukatu zuen: «Zuek ez baduzue tiro egiten, guk ere ez dugu egingo».

XX. Kongresuaren oihartzunak

HUNGARIAKO gertakarien nondik norakoa aztertzeko Sobiet Batasuneko Alderdi Komunistaren XX. Biltzarra aipatu behar derrigor. Nikita Khrustxevrek gogor salatu zituen kongresu hartan (1956an) Stalinen sarraskiak. Hiru urte lehenago hildako diktadorearen garaiak betirako joanak zirela zirudien. Aire eta aro berriak zetozen, sozialismoa eta demokrazia elkarrekin uztartzeko garaiak. Moskuren menpeko hainbat naziok hala uste izan zuen behintzat. Hungariak, adibidez. Urriaren 24an, 1956ean beti ere, 100.000 lagun bildu zi-

ren Budapesteko Bem plaza, independentzia eta askatasunaren aldeko poemak entzuteko. Bero zegoen giroa. Stalinen estatua lurre-ratu eta hautsi egin zuten manifestalariek.

Imre Nagy, apirilean bere kargutik kendu zuten presidentea berriro bere kargura itzuli zen. Matxinatuek zentsura kentzea, askatasun demokratikoak, preso politikoak askatzea, hauteskundeak, tropa sobietarrek aldegitzea... eskatzen zuten. Ikasle talde batek irrati emisorra bat okupatu nahi izan zuen mezu hori zabaltzeko. Tiro egin zien polizia. Erno Gerok, Hungariako Alderdi Komunistako buruak mehatxu gogorrak egin zizkien matxinatuei urriaren 24an. Eta benetakoa matxinada orduantxe hasi zela esan liteke. Soldadu gehienek bat egin zuten errebeldeekin eta armak banatu zituzten: fusilak, ametrailadorak, baita tankeak ere.

Soldadu sobietarrek gatazka gogorrak izan ziren Budapestean. Batzorde Iraultzaileen kontrolpean zeuden lantegi, eskola eta komunikabide gehienak. Ospitaletan, 15.000 zauritu. Alderdi Komunistaren egoitzak, sutan. Erno Gerok, kargua utzi aurretik, berehalako eskuhartzea eskatu zion armada sobietarrari. Hamar egunen buruan hantxe ziren tankeak, eta azaroaren 11rako itzalia eta menperatua zuten Hungariako matxinada.

XABIER ARANBURU


MUNDUA EZ DA BIRIBILA

Iruzur usaina Nikaragutatik

GALTZEN duenak «iruzurra» aipatzen duenean, bere porrota zuritzeko asmoz dabilela esan ohi da. Hala ere, ez da beti horrela izaten. Mexikon, esate baterako, PRIk beti egin du iruzurra, urte luzez eta batera disimulurik gabe. Nikaraguan egin berri diren hauteskundeetan, berriz, iruzurraren itzala edo, bederen, irregulartasun ugari izan dela ezin ukatu. Telefonoz kontatu dizkirate lagunek Nikaragua bertatik hainbat adibide: Botoak Jasotzeko Elkargoaren presidentea poliziak atxilotu zuen bost hautestontzi etxera eraman zituelako, Matagalpan; hiri berean, Aliantza Liberaleko militante bat atxilotu zuten sandinisten aldeko 3.000 boto ezkutatzegatik. Ortegak salatu duenez, 60.000 boto lapurtu dizkiote bere alderdiari, FSLNri.

OBANDO kardenalak eta Chamorro presidenteak. neutralitate eta etika orori muzin eginez Ortegaren aurka hitz egin zuten hauteskunde egunean. Ziurrenik, ontzat emango da azkenean Alemanen garaipena eta FSLNk ere onartu egingo ditu emaitzak, baina hauteskundeotan gertatutakoa ez dute ahanztiko. Dudarik ez, egoera guztiz polarizatuaren isla izan baitira emaitzak. Eskuineko indar guztiek bazterrera utzi dituzte euren arteko diferentziak eta Arnoldo Alemanen alde jo dute. Ezkerrekoak, berriz, sandinismoaren inguruan bildu dira, ezin larriagoa baita Nikaraguako egoera: langabezia tasa % 60koa da. Ofiziala.

INOIZ baino moderatuagoa izan da kanpaina honetan sandinisten diskurtsoa, agintea berreskuratzearen beharrak aginduta. Sandinistek garbiri esan dute: «Indar barremanak kontuan izanik, egungo belburua ez da iraultza bultzatzea, herriak jasaten duen egoerari larriari aurre egitea baizik». Ez dute agintea eskuratu, eta hori nolabaiteko porrota izan da. Baina ez da emaitza makala izan. Mobilizazio gaitasun handia, sustrai sendoak herrian erakutsi ditu FSLNk. Eta botoen % 40 lortzea ez da auntzaren gauerdiko eztula. Horrez gain, departamendu eta udal askotako burutza eskuratu dute sandinistek, eta Asanblea nazionaleko 90 diputatuetatik 40.



JOXE IRIARTE 'BIKILA'
ZUTIKeko kidea

Bertsozale Elkartea

Bertsoaren Sua Bizitzeko



JEAN HARITSCHELHAR

Miresten dut bertsolaria, asetzen dizkit gogo-bihotzak




KIKE AMONARRIZ

Umorea eta hitza, bertsoaren giltza



JOSEBA TAPIA

Bertsoak gustatzen zaizkit, bertsolariak ere bai, beraz, doble gozatzen dut!



PELLO ZABALA

Girorik onena, bertsolariena



FELIX IÑURRATEGI

Gailurrerako bidea irekitzen ari gara



KAXIANO IBARGUREN

Bertsozale itsua naiz



JULIAN RETEGI

Irabazteko, jokatu gurekin



MARI AINES GOROSTIAGA

Berriketa eta musikazale naizelako naiz bertsozale

Bertsozale Elkarteko bazkide izatea da gailurra

Oiartzunen bertso festa

Azaroak 2 larunbata

Eguerdiaren plazan
BERTSOAK AZOKAN

Arratsaldeko 5etan Madalensoron
HAURRENTZAKO BERTSOLANDIA
bertsolariak eta pailazoak

Gaueko 10:30etan, Madalensoron
BERTSO SAIO ERRALDOIA


Antzolatzaileak: Bertsozale Elkartea - Oiartzungo Udala

Euskal

Herriko

Bertsozale

Elkartea



Zilarrezko tresnak ere herdoilak jotzen hasiak

Otordu berezietan edo jatetxe garestietan jartzen dizkiguten koilara, sardexka edo laban distiratsu horiek Gernikan eginak izatea ez harritu, hortxe baitaude alor honetako enpresa gehienak, Hegoalde eta Espainiakoak bederen, momenturik hoberenean ez badabiltza ere.



1987tik 1992ra bitartean irabazi handiak izan zituzten mahai-tresnagintzako enpresek, bankuen eskaintzei esker.

GERNIKA dugu Hegoaldeko mahai-tresnagintzaren hiri-burua, aspaldi honetan larri badabil ere sardexka-koilara-laban lantegien sektorea. Cubiertos Dalia, Plata Menneses, La Cruz de Malta... izen ezagunak guztiak inoiz mahaia apaintzekotan ibili


den edonorentzat. Izen komertzial hauen guztien azpian Gernikako enpresak dabiltzanik, ordea, ez da horren ezaguna. Eta hortxe eginak dira ospakizun na-

gusietan mahairatu ohi ditugun altzairu fin edo zilarrezko koilara eta gainerakoak. Baina zilarraren azpian krisiaren herdoila nabaritzen da aspaldi honetan.

Espainiako produkzioaren hiru laurden ekoizten da Foruen herrian eta ehundaka lagunek dihardute mahai-tresnak egiten. Jypsak (Joyeria y Plateria), La Cruz de Maltak eta Idurgok 445 langile enplegatzen dituzte, baina behera egingo du kopuruak ondorengo hilabeteotan, berregituraketa eta aurrejubilazioak medio. Eta lehendik ere arras gutxitua da alor honetako langilegoa, 80eko hamarkadako krisiaren eraginez batik bat. Ordu ezkerotik hiru lanpostutik bi desagertu dira Gernika aldeko mahai-tresnagintzan.

Zilarrezko aroa, bankuei esker

HANDIENAK, Jypsak, 850 langile zituen 1981ean; egun, 195. La Cruz de Maltak 285 zituen sasoi berean; 160 gaur egun. Idurgok, azkenik, 195 lagun enplegatzen zituen 80ko hamarkadaren hasieran; egun, 90. Krisialdi larri haren ondoren izan zuen sektoreak berpizkundetik, bankari esker gehien bat. Bost urtez, 1987tik 1992ra, etengabeko eskaria izan zuten Gernikako mahai-tresneria lantegiek.



Gaur egun produktu merkea besterik ez dela saltzen diote sektore honetako enpresariak.

Banku eta aurrezki kutxa gehienek modu onean eskaintzen zizkieten beren bezeroei kalitate handiko tresneriak, zilarrezkoak sarritan, halako diru kopurua gordailu gisara uztearen truke. Garai onak haiek, La Cruz de Maltarentzat batez ere: 17.000 milioi pezetako fakturazioa izan zuen enpresa honek 1992an. Urtebete beranduago kiebra eskaria egin zuen epaitegian.

Bankaren 'pagotxa'ri etekin bikainak atera zizkion Jypsak ere. Azken krisialdiaren zamak gaintzea lortu zuen enpresa honek, instalakuntzak berritzea eta 'lan soberakinak' lizentzia-zea. 1989a ezkerotik ordaintak eguneratuak ditu Jypsak eta pilotutako zorra ordaintzen ari da. Aurten 1.800 milioi pezeta fakuraztea espero du eta diru sarrreraren seirena, 300 milioi, esportazioen bidez lortzea. Estatu Batuetako enpresa batekin harremanetan dabil

Jypsa eta datorren urte hasierarako aurreikusia du hango merkatuan ere sartzea bere produktuak.

1917an sortutako enpresa

JOYERIA y Plateria SA da Gernikako zaharrena bere alorrean. Datorren urtean 80 urte beteko dira martxan jarri zutela. Unzeta-Barrenetxea sendiak izan du urte luzez bere kontrolpean enpresako administrazio kontseilua. «Euskal Herriko Industria Zentrua»-ren artxi-boetan ageri denez, Rufino Unzeta-Barrenetxea zen kontseiluko presidentea 1979an; presidenteordea, Jaime Unzeta-Barrenetxea. Beste Unzetatar bat, Augusto Guillermo, industrian ezezik politikagintzan ere na-

barmendu zen. Jypsako administrazio kontseiluko kide izateaz gain Astra, Unceta y Cia arma lantegiaren jabea ere bazen. Frankista porrokatua, Gernikako alkate izana, Bizkaiko Diputazioko Presidentea segidan, 'herriko seme kuttun' izendatu zuen Franco diktadorea. ETA erakundeak tiroz hil zuen 1977ko urrian.

Idurgo enpresa, berriz, sozietate anonimo laboral bihurtzeko prozesuan dabil. Orain dituen 90 langileetatik 60 besterik ez lirakeke arituko aurrerantzean, adituen ikerlanen arabera. Iazko azaroan egin zuen kiebra aldarrikapena Idurgok eta 1.100 milioi pezetako zorra aitortu. Zordun nagusienak Gizarte Segurantzza, Soldaten Garantiarako Fondoa eta

1980ko hamarkadako krisiaren eraginez hiru lanpostutik bi desagertu dira Gernika aldeko mahai-tresnagintzan

Bizkaiko Foru Hazienda ditu. Kexu dira Idurgoko arduradunak kontsumo joera berriak direla eta. Produktu merkeak saltzen omen dira gehienbat, eta zail omen da oso inportatzaileekin lehia-zea. Ez dela jada saltzen hamabi laguntzako mahai-tresna sortarik diote Idurgokoek, eta etorkizuna ez omen batere distiratsua.

Laban, goilara eta sardexkagintzan diharduen Gernika aldeko hirugarren lantegia ere, La Cruz de Malta, ez dabil bere unerik gozotanean. Enpresaren jabea (Sarricolea sendia) eta langileak ados jarri ziren uda partean enpresa atzerriko multinazional bati saltzeko. Centenary International Corporation (CIC) da eroslea, Edward Gottesman EEBBarraren kontrolpekoa. Bizikletak eta luxuzko baxerak banatzen ditu CICEk eta kalitatezko mahai-tresneria alorrean ere aritu nahi du aurrerantzean.

Akordeoi operazioa

PROIEKTUAK aurrera egingo balu, hau da, CICEk La Cruz de Malta erosiko balu, 100 milioi pezeta ordainduko luke multinazionalak akzioen truke. Horren segidan akordeoi deritzaien operazioa burutuko luke: kapitala zerora gutxitu eta ondoren 400 milioi pezetako gehikuntza egin. Bai langileek bai zordunek gerrikoa gogotik estutu beharko lukete, dio enpresak. Eta ados dira operazioarekin La Cruz de Maltan ordezkaritza duten hiru sindikatuetatik bi. Produktibitatea % 20 hazi, soldatak % 5 gutxitu eta 58 urtetik gorako langileak jubilatatu —42 lanpostu desagertaraziz—, horiek dira

Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak sektore osoaren berregituraketa bateratua bultzatu nahi du

berregituraketaren alderdi nagusienak langileei dago-kienez.

Zordunek, berriz, itxaron egin beharko dute eta, seguruenera, tokatzen zaiena baino gutxiago jaso. Zor handiak metatu ditu La Cruz de Maltak, 4.300 milioi pezetakoak, eta zain dira BBV, Promasa, Bizkaiko Foru Hazienda eta beste zenbait erakunde diru horiek noiz berreskuratuko. Nolanahi dela ere, bizkor ibili beharko dute La Cruz...ekoek aurrera edo atzera egiteko. Azaroaren 30ean bilduko da zordunen batzordea eta ordurako erabakia beharko du enpresak zer egin.

Erradiografia honek Gernikako mahai-tresnagintzaren osasun makalá erakusten du. Orain hamabost urte 1.300dik gora ziren sektore honetako langileak; egun, 400 pasatsu. Hiru enpresetatik bi berregituraketa sakonak egin beharrean dira bizirik iraungo badute. Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailak, bien bitartean, sektore osoaren berregituraketa bultzatu nahi luke. Bakarka ezingo dutela aurrera egin Jypsa, Idurgo eta La Cruz de Maltak uste dute Industriako arduradunek, elkarren indarrak batuz ekin beharko diotela etorkizunari. Baina orain arteko ahaleginak alferrikakoak izan dira.

Elkarrekin aritu nahi ez

BIDERAGARRITASUN plan bakar batean bildu nahi lituzke Jaurlaritzak hiru lan-tegiak. Zorrak, bezeroak,

produktuak, merkatuak... alderdi guztiak modu bate-ratuan aztertzeko modua egin. Plan horrek are gehi-go murriztuko luke langile kopurua: 250 bat besterik ez lirakeke izango, guztira, Industria Sailaren egitasmoak aurrera egingo balu. Hortik aurrera lantegietako instalakuntzen egokitzea litzate-ke eginkizun nagusia, baina horrek ez omen luke diru gehiegirik jango. Baldintza hau betetzekotan beti ere: denok ala inor ez, bide-ragarritasun plan bakarra denontzat, ala Jaurlaritzaren laguntzarik ez da izango.

Baina ez zaie nabari indar-rak batzeko intentziorik hi-ru enpresaotako buruei. Bi-deragarritasun prozesua bultzatzeko moduan den bakarrak, Jypsak, ez du adi-tu ere egin nahi horrelako-rik. Zorretan itota dabilzan bi enpresarekin uztartzea ez zaio oso bideragarria irudi-tzen Joyeria y Plateria SARI. Eta zeozer egin lezakeen erakundea Industria Saila omen da. Ez arre eta ez so, beraz. Elkarrengandik hur-bil baina elkarri bizkarra emanaz, horrelaxe dabilza Gernikako mahai-tresnagi-leak. Mahai negoziatzailea osatzeko ahaleginik ere ez dute egin, oraingo. Eta ez dirudi egiteko asmorik da-rabiltenik. Elkarrekin lehia bizian dihardute, bezeroak nork bereganatuko. Eta bankuek zilarrezko mahai-tresneria ugari eta prezio onean eskaintzen zuteneko garaiak joanak dira.

XABIER ARANBURU

DIRUAREN HOTSA

ABLE: hondamendiaren dekalogoia

E**TT'AK** edo Aldi Baterako Laneko Enpresak arautu zituen legeak bi urte bete dituenean, hauxe da gure epaia: langileontzako kaltegarriak izateaz gain, legedia bera ez dute betetzen. Are kaltegarri-riagoak dira, beraz. Hona hemen baieztapen honen arrazoipide batzuk:

—1.a) ABLE edo ETTen bidez hartutako langileek lan gehiago egiten dute normalean, baldintza okerragoetan (soldata, lanorduak, ziurtasuna, hezkuntza...) eta gutxiago irabaziz.

—2.a) Langilea bakarrik dago, lan egiten duen enpresako hitzarmena ez baitaia aplikatzen eta eskubideak ukatu egiten dizkiote. Ahoa ireki ahala, langile horri ez diote berriro dituko. *Feudalismo postmoder-noa*, dio zenbaitek.

—3.a) Langilegoa sakaba-natu egiten da enpresetan. ABLEetakoak kontratu tinkoa dutenentzat koltxoia dira; gauzak okertuz gero, kalera joango diren lehenbizikoak.

LAUGARRENA: Datu basean sartzeko langabetuei dirua kobratzen dien ABLErik ere bada; *«lan bilaketa eragin-korragea egiteko»* omen.

—5.a) Enpresa askotan, jendea bota ondoren, langile berberak hartu izan dituzte ABLEen bidez, baldintza okerragoetan, ABLEen konbenioa, ez enpresarena, aplikatuz.


—6.a) Langileen arteko erakuntzaren eta sindikatuen jardueraren aurkako eraso garbia da.

—7.a) Euren kontrakoa dioten arren, ABLEek ez dute en-plegurik sortzen, dagoen enplegua prekarizatu baizik.

ZORTZIGARRENA: Enpresa batek ABLEen bidez kontratutako langileen kopurua ez du mugatzen legeak.

—9.a) Espainiako Herri Defendatzaileak ABLEen aurkako errekurtsoa aurkeztu zuen Epaitegi Konstituzionalean, soldaten diskriminazioagatik. Ez zuen aurrera egin.

—10.a) ABLE batzuk Espainia eta Europa mailan jarduteak, eta sindikatu estatalistek horiekin lan hitzarmen lotsagarria sinatu izanak sindikatu abertzaleen jarduera oztopatzen du. Zer egin hau guztia ikusita? Hasteko, legediaren aurkako portaerak salatu. Bigarrenik, Euskal herrian sinatzen diren lan hitzarmenetan ahalik eta gehien mugatu enpresa horien erabilera. bestetik, arazoa gizarteratu, ABLEen erasoak jendaur-rean salatu. Eta, azkenik, indarrak batu, hori baita langile mugimenduaren historian ondorio nagusia: langileon indarra ekintza kolektiboan dago.



XABI ANZA

ELAko Gazteen Arduradun Konfederala

laz unibertsitatean 2.000 ikasletik gora geratu ziren beren ikasketak euskaraz egin ezinik

IRAKASGAI ZAIENA

Unibertsitateko euskararen egoera normalizatu gabe dago oraindik. Euskal adarraren garapen falta eta euskalduntzeko plangintza eza oraino nagusi dira gure goi ikastetxeetan.

EKBk egin duen azterketaren ondorioz, unibertsitatean euskararen egoera kezagarria dela ondorioztatu dezakegu. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez du onartu euskalduntzeko plangintzarik, ezta estatu-tuetan euskararen alde egindako proposamenik ere. Iaz, 850 ikasle ikasketak euskaraz egin ezinik geratu ziren. Langile euskaldun gutxi dago eta barne txostenetako euskara urria eta eskasa da.

EHUk euskaldunen hizkuntza eskubideak onartzen ditu, baina indarrean izan den plangintzan, euskaraz-



Euskarak oztopo asko aurkitzen ditu unibertsitatean. (Argazkia:Alberto Eloseg)

ko eredia oso murriztua egon da eredu batzuetan eta besteetan sinbolikoa izan da. Orain onartu nahi den plangintzan, hautazko eta derrigorrezko ikasgaien arteko sailkapena egin nahi da, azken hauen euskal-

duntze orokorraren jaitziera ekar dezaketelearik (titulazio batzuetan behintzat). Iaz 1.300 ikasle euskaraz ikasi ezinik geratu ziren. Aurten go datuei dagokienez, Araban 2.806 unibertsitari berrietatik 1.000 inguruk gu-

txienez ikasgai bat euskaraz hautatu dute eta 200k dena euskaraz. Bizkaian 13.657 ikasleetatik 5.600 ikasgai bat gutxienez eta 2.185k dena. Gipuzkoan, 6.798tik 2.719k ikasgai bat gutxienez eta 1.400k guztia.

Eremu pribatuan, Nafarroako Unibertsitatean hezkuntza plan berria martxan jarri da. Aukera libreko irakasgai batzuk euskaraz aukeratu daitezke eta ondorioz

EHU, NUP, NU eta Deustuko euskara taldeak, EIHIE eta Ikasle Abertzaleak elkarlanean hasi dira euskararen alde

euskararen erabilpena hedatu egin da zertxobait. Euskal Ikasketen diplomatura bada, nahiz eta ez diren ofizialak. Hala ere, oraindik ezin dira goi mailako ikasketak euskaraz egin.


Deustuko unibertsitatean bi eta hirugarren mailara arte zenbait ikasketa euskaraz egin daitezke, baina gai-nontzekoan ezer gutxi eskaintzen dio unibertsitateak ikasle euskaldunari. 15.203 ikasle daude matrikulatuak Bilboko kanpusean, eta horietatik 2.581k euskaraz ikasiko lukete. Donostian, 2.003tatik 923k ikasiko lukete euskaraz.

Iparraldean egoera kax-karra du euskarak. Ez dago unibertsitate euskaldunik (Pau-koaren adar bat da) eta beraz, ezinezkoa da goi ikasketak euskaraz burutzea Baionako unibertsitatean ez bada. Eskaintza berriez, oso mugatua da (Euskal DEUG-a, zuzenbidea eta zientzia ekonomikoak).

Elkarlanean

EKBk «Eman euskarari berea» kanpainia unibertsitate-eremura eraman du. Eredu honetan euskara eta bereuskaldunentze prozesuaren egoera larriaren kontzientzia zabaldu eta salatu nahi da. EKBrekin batera, EHU, NUP, NU eta Deustuko Unibertsitateko euskara taldeak, IEHIE, eta IA murgildu dira kanpainian. Iako Igor Arroyok esan digunez, «kanpainak euskararen inguruan gauden taldeak esnatu eta bildu gaitu. Kanpaina hau lehen pauso bezala ongi dago, baina eztabaida prozesu eta helburu konkretuak ere zebaztu behar direla uste dugu».

IDOIA TORREGARAI



IÑAKI ARREGI

UEMArako EKBko teknikaria

Euskararen berreskurapenean Udal euskaldunak duten funtzioa handia da. Kontuan izanda Udal txiki hauek jasaten duten ekonomi eta bizi-iraupeneko

krisia, zer neurri hartu behar dira Udal hauek bizirik mantendu eta euskararen berreskurapenean faktore garrantzitsua izaten jarraitzeko?

BEGONA BILBAO

Bermeoko Udaleko euskara teknikaria

Administrazioak eta erakunde publikoek zerikusi handia daukate euskararen arazo honetan. Ez da nahiko noizean behin halako plangintza bat ateratzea, eta gainera baldintzatua. Neurriak hartzerakoan behin betikoak izan behar dute eta lehenbailehen betetzekoak, epe luzera barik. Badirudi azken boladan zerbait mugitzen ari dela, baina urteak alferrik galtzen ez ditugu utzi behar. Argi eduki behar dugu erakundeak direla euskararen presentzia handiagotzen joateko exenplua eman behar dutenak, eta bereziki, udalak direla lanik garrantzitsuena egin dezaketena. Baina nola?

Gaur egun, badaukagu aukera bat horretarako, UEMAn sartzea. Hor parte hartzeko arrazoiak, aurrean esandakoari loturik doaz, hots, erakunde honetan dauden udalek asmo berberak izango dituztela. Beraz, helburu aman-

komunak badauzkate, zergaitik ez batu? Elkarlanean aritzen bagara, gauzak errazagoak gertatuko zaizkigu eta oztopoak hobeto gaindituko ditugu. UEMAK hizkuntza eskubi-deak eta euskararen erabilera bermatzeko zerbitsuak eskeintzen ditu. Bestalde, erakundeekiko harremanetan gerta daitezkeen anekdotak eta esperientziak ikasgai izan daitezke geroko jarrerak finkatzeko. Arazoa guztiona da baina Administrazioak bere eskuan du UEMAK eman ezin duena, beraz, udalek, zera eskatu behar dute: laguntza ekonomikoa, laguntza juridikoa eta garapena lortzeko oztopoak kentzen joatea.



U R R E A



● Gasteizko Geu Elkartea kirol arloan ere sartu zen duela hilabete batzuk eta ondorioz, «Euskarri» kirol elkarteak sortu da. Era honetan, kirolean ere euskaraz bizitzeko aukera izango dute gazteak.

G O R O T Z A




● Kontzertuak eskaintzen dituzten Donostiako taberneak «Gabon Donostian» agenda argitaratu dute. Agenda guztia gazteleraz agertzen da, esaldi bat ezik. Eta berau gaziki idatzia dago.

Zubieta Pilota Elkartea sortu berriak errebotea berpiztu nahi du

ERAGIN GOGOR PEDALEI 'ERREBOTEAREN ALDE'

Errebotea eta pilota-joko zaharrak berpiztu asmoz, Zubietako talde batek hasitako ahaleginak laburbiltzen ditu izenburuak. Datorren astebururako Usurbilen prestatu duten festa dela medio, ezagutzera eman nahi dute hau guztia.

EZ dira, ordea, gaurko kontuak. Mende honen hasieran, Jose Artola donostiar pilotari eta olerkilariak ondo baino hobeto islatu zuen pilota modernoaren garapena malenkoniak botatako bertsootan: «Pilotariak lengo oiturak ez zaizkizutela utzi/ errebotean berri-berriro obe



Billabonan eta Zubietan jokutzen da soilik errebotean Hegoaldean. (Arg.: Ekaitz).

zendukete asi/ zela gaude-nak ditzagun lengo usuarioak ikusi/ eta gazteak aurrerako ere ditzaten ondo ikasi».

Galzorian, zaharkituta; ez dago zalantzarik aspaldidantik modalitate hauek gain-behera egin dutela. Eta Ipar

Euskal Herrian kasik folklorearen atal bezala kontserbatzen diren bitartean, Hegoaldean ere errebotea-

PILOTA MODALITATE ZAHARRAK

JOKU MOTA	KOMUNIKAZIOA	EZAUGARRIAK NAGUSIAK
BOTE - LUZEA	ZUZENA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gaur egun galdutzat eman daiteke ✓ Modalitate zaharrena, eta ondorengo oinarria ✓ Pilota-soro deituriko belardietan jokatzen zen ✓ Talde bakoitzeko gutxienez 4 jokalar eta gehienez 7 aritzen ziren ✓ Esku hutsez eta pilota arin eta biziekin
LAXOA	ZUZENA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gaur egun Baztan Errekan jokatzen da ✓ Talde bakoitzean 4 jokalarik esku hartzen dutelarik ✓ Larruzko Guante luze bi eta motz bi erabiltzen ditu talde bakoitzak ✓ 9 jokotara izan ohi dira partiduak 15,30,40 eta JOKUA
ERREBOTEA	ZUZENA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gaur egun Hegoaldean Zubieta eta Billabonan jokatzen da eta Iparraldean oso zabaldua dago. ✓ Talde bakoitzean 5 pilotarik jokatzen dute ✓ Hauetatik hiruk xistera txiki bat erabiltzen dute eta beste biak Guante motza ✓ Sakea eskuz egiten da eta guante motza duen batek egin ohi du ✓ Partiduak 13 jokotara jokatzen dira
PASAKA	ZUZENA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gaur egun bakarrik Iparraldean jokatzen da ✓ Trinketeetan jokatzen da ✓ Trinketearen erdian sare bat jartzen da ✓ Talde bakoitzean bi pilotarik parte hartzen dute ✓ Guante motzak eta pilota handi eta gozo bat erabiltzen da
JOKO-GARBIA	ZEHARKAKOA	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Gaur egun Hegoalde eta Iparraldean jokatzen da ✓ Errebotean jokatzen diren xisterak erabiltzen dira ✓ Plaza librean eta ohizko frontoian joki daiteke ✓ Talde bakoitzak bi pilotari jartzen ditu frontoian eta hiru plaza librean

ren egoera larriak kirol honen planteamenduak hantzek gora jartzeko premia eragin du.

Gaur egun, Billabonan eta Zubietan jokatu ohi da errebotearen modalitate hau, eta nekez aurkituko dugu gazte-jendearen artean modalitate honen ezaugarrien ezagutza zehatza daukanik.

Pilotari buruz idatzitako zenbait liburutara joz, garai bateko errebotearen presentzia nagusiaz ohartuko gara segituan. Esate baterako, herriko plaza gehientsuenak errebotearen jarduteko esparrua errespetatuz eraikitzen ziren. Eta oraindik, kirol honen arrastoen peskisan joan eta zenbait herriko plazara bertaratu gero, mende honen hasieran kirol honek izan zuen garrantzia antzeman daiteke nabarmen. Areso, Igantzi, Donibane, Oiartzun... zerrenda luze baten adibide bakan batzuk besterik ez dira: Esaterako, ba al zenezkiten orain ez dela urte asko Donostiak hiru errebotepilaza zituela?

Zubieta Pilota Elkarte

GAZTEENGAN dago etorkizuna. Hala dio esamoldeak. Horregatik, sortu berria den Zubieta Pilota Elkartearen sortzaileak jada lanean ari dira Zubieta inguruko bialarako ikastoletan, eskolatik kanpoko orduetan gazteen modalitate hauek landu eta ezagutzera emateko.

Elkarte berriko kideek, ordea, jakin badakite pausoz pauso egin beharreko

lana dela eskuartean duten hau: «*Ur tantak oliotan bezalako zabalkundea eman beharko diegu erreboteari eta gainontzeko modalitatei. Egun Billabonan eta Zubietan bertan dagoen kirol hauekiko joera aprobe txatuz, inguruko herrietara hedatzen hasi nahi genuke, baina inolako presarik gabe.*»

Euskal kulturaren zati bat izateaz gain, gazteen heziketarako tresna baliagarria izan daitekeela irizten diote: «*Ezer baino lehen gazte txoek, edozein kiroletara espezializatu gabe, abalik eta kirol gehien menderatzea osasungarria da oso. Bes-*

talde, modalitate hauek, alegia boteluzeak, laxoak errebotear edo pasakak, ezaugarri berezi bezain mesedegarria dute: zuzenekoak direla. Horrela, jokoa ari direla esparruaren garrantziaz ohartzen dira eta euren eremua defenditzen ikasten dute. Nolanahi ere, erramintaz erabiltzen diren joko hauek xarma berezia eragiten du umearengan. Izan ere, erraminta baten jabe izateak, berorren erabilpenaz jabetzeak eta pilotari eman diezaiokeen zartako eta abiadurak harrituta uzten baitu.»

Pilota Joko Zaharren Eguna

ELKARTE berri honen aurkezpen gisara, festa erraldoia antolatu dute: hogeitalau orduz, errebotearen aitzakitan, pilotazaleen bilgu-

ne bilakatu nahi du Usurbilgo herriak.

Heldu den ostiralean bertan (azaroak 1) bertso jaialdia eta dultzemeneoko doinuetan (Trabuko) baretuko dira gorputzen egonezinak goizalderarte.

Biharamona huts tarterik gabeko festa eguna izango da, goizean goiz hasita, pilota festa: Zubieta pilota elkarte berriaren aurkezpena, arraunlarien arteko desafioa bizikletan eta beste hainbat festa giroko ekitaldi. Triki ta ke, pilotaren alde lan egin nahi duen Zubieta elkarte honi zorte on eta Usurbilen elkar ikusiko dugulakoan ostiralarte.

Laxoa hartu eta joko-garbian bote luzeko bizitza izan dezala, motz jota erreboteraino.

MARTIN AGIRRE


«**Ur tantak oliotan bezalako hedapena eman behar diegu erreboteari**»
ZUBIETA PILOTA ELKARTEA

Komunikabideetako langileek osatu zuten Artzain Oneko gose grebaren 45. txanda

PRESOAK UR-BOTILEKIN EKARRI

Txanda aldaketaren urduritasuna gorputzean, lehen ur-botila estreinatu dute Artzain Oneko gose greban sartu diren komunikabide-etako langileek. Presoak euskal herriratzeko ekimenaren itsasorako ur gehiago, indar gehiago.

IGANDE goizean lasai jaiki gara gose grebalariak. Hirugarren ur-botilari hasiera eman diot goiko mezaren doinuak esnatu gaituenean. Atzoko ekitaldia egunkarrietan begiratu (bederatzietan ekartzen dizkigute) eta ura gosaldutugu. Jende asko joan da gaur mezara Artzain Onean eta komunikabideetako langileok, mezaren amaieran enkartelada eginenez, 45. txandaren berri eman diegu eliztiarrei. «Gose



Egunero enkarteladak egin dituzte urriaren 19tik 26rako txanda egin dute gose grebalariak. (A.: A. Elosgi).

greban nago euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko txartelak lepotik, eguerdian eta arratsaldean egingo ditugu egunero agerraldiak. Eguzkiak lagundu digu ura besterik hartzen ez duen

gorputza berotzen. Bisitek ere bai. Eta gaueko bilerak frogatu digu hauek ez direla oporrak: astean egin beharreko lana batzordetan banatu eta bihartik hasita lana soberan dugu.



Zazpigarren ur-botila jada astelehena hasteko. Prentsan Ramon komikulariak sakabanaketaren inguruan egindako komiki batek ospindu digu ura: trufa euskal presoak euskal herriratzeko ekimenari. Baina goizean Donostiako presoan amek ekarritako irribarreok aldartea aldarazi digute. Bilerak egiteko gelak, bitartean, hedabide bateko erredakzioaren antza gero eta gehiago du: bi telefono mugikor eta bertakoa jo eta jo, faxa martxan biharko prentsaurrekorako deia eginez, eta gu gora eta behera (eskaileak kanpora ateratzeko, komunera joateko...). Postariak burofax bat eta eskutitzak ekarri ditu. Indar gehiago. Arratsaldeko lore gorriak ere bai. Gorputzek ez dute oraindik, fisikoki, ezer nabari. Goserik ez oraindik; batzuek izan dituzte, hala ere, buruko min eta zorabio batzuk. Eta dutxa bilakatu da, otordurik ezean, eguneko unerik bereizgarriena. Ura beroa baita, behintzat.



Astearrean jaiki eta hamargarren botila hasi. Oskar

etorri da, sendagilea, eta tentsioa hartu digu, ondo gaude guztiak. Barrezka pisuaz galdetu digunean. Auskalo! Hiru pisuak gaizki dabilta, botikara joan beharko dugu. Bitartean, Mariano Ferrer, Teresa Toda, Xabier Euzkitze, Luzien Etchezaharreta eta Martxelo Otamendi garaiz etorri dira, prentsaurrekoa prestatzeko. Mikrofonoak ez datoz eta urduri gabilta... eta ez dira etorri. Mikrofonorik gabeko prentsaurrekoa Artzain Onaren aurrean, auto-soinua lagun. 660 komunikabideetako langile baino gehiagok bat egin dute euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko ekimenarekin. Eta hedabide asko etorri dira prentsaurrekorra, ia hogei. Oso pozik geunden emaitzarekin. Hau amaituta, telebista ikustera zuzenean: ETBk eman du albistea, baita Tele5 kateak ere... Brindisa egin dugu ospatzeko, PVCko botilek soinurik egiten ez badute ere. Hutsuneak ere faltan sumatu ditugu: TVE eta Antena3. Eta eguerdi ostean, irriak entzutera. Arratsalde guztia, berriz, berrikeretan pasa zaigu: bisitak etengabe.

Amaiera polita izan du egunak: Pariseko Txalaparta irriaren bitartez bertan diren euskal presoek besarkada bat emanez iritsi zaigu gauerdia.




Hamairugarren ur-botilaz irakurri ditugu asteazkeneko egunkariak. Oihartzuna izan du atzoko prentsaurrekoak eta irribarreak eta iruzkinak nahastu dira neke aurpegiekin. Gustu bitxiak dituzte, gainera, batzuek: Inakik paseotan etengabe aldegiten du Artzain Onaren alboetan dauden gozotegietako erakuslehiotara, Martinek txiste gastronomikoak kontatzen ditu, gero eta gehiago hitz egiten dugu janariak.

«Forrest Gump» ikusi dugu gaur bideoan, egunero bezala Candidok bi filme ekarri baitizkigu. Baina berehala joan zaigu eguna gaur ere: bihar Leioan egingo den hitzaldirako deialdiak faxez bidaltzen, komunikabideetako langileen agiriaren inguruan telefonoz elkarrizketak eginez eta, eskerrak, bisitan datozen lagunekin berbatan.



Bileretarako gelan gose grebalariek preso guztientzat postalak idatzi eta irakurri egiten dute. (Arg.: Alberto Elozegi).



Asteartean prentsaurrekoan komunikabideetako langileek sinatutako agiria aurkeztu zuten. (Arg.: Alberto Elozegi).



Hamazazpigarren botilarekin hasi den eguna kolorez jantzi zaigu goizetik. Goizean goiz Herri Irratian zuzeneko elkarrizketa egin ondoren, bisitak lorez lagunduta etorri dira. Eta sendagileak datorren astean jateari dagokionez hartu behar ditugun neurriez aritu zaigunez, begietan distira piztu zaigu: gustura aritzen gara jateaz hitz eginez. Eta larunbateko salda irudikatzen dugu. Baina, batez ere, presoek gose greba dugu gogoan. Gaur sartu dira 21 gehiago eta gure greba txikiak izango da beraienaren ondoan. Ezin dute larunbateko saldarekin amets egin; ezin kanpoko lagunekin berriketa egin egunero; ezin komunikabideei deia egin beren oihua agertzeko (eta hauetako askok ez dute beren kabuz espetxera jotzen informazio bila).

Euskal Herriko komunikabideetako ordezkariak Leioan presoek egoera mintzatzeko dira gu enkartelatuta gauden bitartean; honek «erreflexiorako balioko ote du?», horixe gure kezka.



Konturatu gabe bukaera egunaren bezperan gaude, hogeita batgarren botilaren laguntzaz hasitakoa (batzuek urari jada nazka diote). Biharko txandaaldaketarako ekitaldiko azken xehetasunak prestatzen lana badugu, baina indarra eman digu arratsaldeko enkarteladak: euskal presoek senideen enkartelada gurearen aurretik igaro da eta Xalbadorrek gure partez emandako loreek malko bat baino gehiago eragin dituzte. Esker oneko malkoak.



Hogeita bost urbotila jada eta ekitaldirako entseguak eraman du eguna. Ahulezia arindu eta guzti egin zaigu (batzuek masailariaren laguntzaz). Kriselua emango diegu osasungintzako langileei, 46. txandari, baina garbi izanda aste honetan hedabideetako mintzagai izanda ere, ez gara «munduaren zilborra, protagonistak presoak direlako eta gure borroka haieren isla besterik ez».

ARANTXA ERASUN

Urriaren 16an Karol Wojtyla Aita Santu izendatu zutela 18 urte bete ziren

ERROMAREN ITZALA ERATU ZUEN AITA SANTUA

X X. mendeko agintari dugu Juan Pablo II.a. Marketingaren erabiltzaile trebea, badaki biltzen duen jendetzari nola hitz egin eta tinko eusten dio aginteari; Aita Santu kargua hartu zuenetik 18 urte igaro dira eta balantzerako garaia da.



Wojtyla, Paul Marcinkus Vatikanoko finantza eskandaluetan nahasturik agertu den kardinalarekin.

JUAN PABLO II.aren agintaldi luzeak hautsak harrotu ditu Elizaren barruan. Hainbat kristau talde, apaiz eta teologoren ustez, 18 urte hauetan atzeraka egin du Elizak; Aita Santuak ortodoxiari eutsi dio eta joera kontserbadorearekin bat ez datozen taldeak baztertu ditu. Beste

batzuren esanetan, berriz, Karol Wojtylarekin indartu egin da katolizismoa.

Elizaren sektore ezkeriarak izan dira Aita Santua-

rekiko kritikoen azaldu direnak. Herria 2000 Elizako kide den Jose Manuel Balenziaga «Balentxi» teologoaren iritziz, «Vatikanoko II. Kon-

tzilioak haize freskoa ekarri zuen Elizara: laikoekin barremanak estutzeko beharra zegoela onartu, eta barneko antolakuntza de-

Sistema berri baten agintari

KAROL Wojtyła Aita Santu aukeratu izana ez da isolatuturik aztertu behar den gertaera; neokontserbadorismoarekin lotu behar da Juan Pablo II.aren agintaldia.

Jakue Paskual soziologoaren iritziz, «Vatikanoak azken 18 urte hauetan izan duen jarduna kapitalismoaren berregituratzearen testuinguruan ulertu behar dugu; Juan Pablo II.a Reagan, Thatcher, Orden Berria eta Hirugarren Iraultza Industrialarekin batera etorri da. Aita Santuak eragin handia du gizartean, baina bere eragina kontserbadorismo berriaren erasoaren barne aztertu behar dugu».

Sistema berri honetan Elizari moral publikoa indartzea eta pribatua izkutatzea egokitu zaio: «Moral publikoa itxura gordetzea besterik ez da, oso puritana. Moral pribatuari dagokionez, norberak nahi duena egin dezake, bere abalmenen arabera; hori bai, etxe barruan eta inork jakin gabe», dio Jakuek.


Euskal Herri mailan, Juan Pablo II.aren agintaldiak, neokontserbadorismoak, lotura zuzena du Bakearen Aldeko Koordinakundea bezalako taldeen sorrerarekin, Jakuearen esanetan: «Talde hauek -euren kideek jakin gabe askotan- agintearen aparatuak indartu dituzte,

ezkerraren edukiak eta moduak hartuz (bakearen ideia, jendearen mobilizazioa,...); horixe da eskuin berriaren jokaera».

Aita Santuak hainbat gizarre gaiez azaldu dituen jarrerak zeresan ugari eman dute. Homosexualitate da gai horietako bat. Lander Etxeberria EHGAM Euskal Herriko Gay Askapenerako Mugimenduko kideak dioenez, «urte hauetan Elizak atzera egin du sexualitate kontutan; homosexualen kasuan, baztertzea elizaren eremutik gizarte zibilera eramaten ahalegindu da».

Gay taldeek az-

ken urteotan nabarmendu dutenez, Elizaren sektore kontserbadoreenak indartsu diren lekuetan ugariagoak izaten dira homosexualen aurkako erasoak. «Esate baterako, Nafarroan -Opus Deik indar handia du bertan-eraso gehiago egiten dira», azaldu du Etxeberriak, «bala ere, eta Elizak bere botereari eutsi arren, gizartea gero eta laikoagoa da».



mokratikogoa izan zedin apostu ausarta egin zen. Gizartearekiko jarrera irekiagoa izateko ahalegin bonen ondoren, Juan Pablo II.aren jarduna atzerapauso handia izan da».

Jakina da Elizak diru arazo ugari izan duela azken bi hamarkadetan. Balentxiren ustez, arazo hauek izan dira Vatikanoak eskuin aldera hartu duen joeraren iturburu: «Karol Wojtylak izugarritzko diru zulo batekin ekin zion aitasantutzari; zulo hori estaltzeko paktu bat egin zuen Ronald Reagan Estatu Batuetako presidentearekin, bere jokaera kontserbadoreago bihurtzearen truke. Opus Deik ere lagundu egin du arazo hori konpontzen, eta bere eragina zabaldu du».

Juan Pablo II.aren agintaldiak mundu osoan izan

du islada. Euskal Herriko Elizari dagokionez, bi puntu nabarmendu ditu Jose Manuel Balenziagak: «Alde batetik, gotzain kontserbadoreak izendatu dituzte (Sebastian Iruñean, Blazquez Bilbon, ...) eta, bestetik, frankismoaren azken urteetan euskal Elizaren batasuna lortzeko egin genuen proiektua erabat baztertu da».

Isildutako hitza

JOSE MARIA Lorenzo Espinosa Deustuko Unibertsitatean irakasle den historialariak ere kritika zorrotzak egin dizkio Eliza ofizialari, batez ere, Fernando Garcia

de Cortazarrekin batera idatzi zuen «Tiararen izurrak» liburuan. Berarekin hitz egiten saiatu gara, baina uko egin dio adierazpenik egiteari: «Liburu hori zela eta, Unibertsitateak kontuak eskatu zizkidan; ez dut adierazpenik egin nahi, baina berretsi egiten dut ban idatzitakoa».

Liburu horretan Lorenzo Espinosa eta García de Cortazarrek Vatikanoak Juan Pablo II.arekin erakutsi duen autoritarismoa eta Eliza osoa Erromatik kontrolatzeko egin duen saioa sa-

latzen dituzte; eta honen harira, Hans Küng teologoaren hitz hauek azpimarratzen dituzte: «Ekialdean egin diren erreformen ondoren, Vatikanoa Europako estatu totalitario bakarra bihurtzen ari da».

Sektore guztiak gertutik jarraitzeko nahiaren adierazgarri jesuiten kasua da. Aita Santuak ez zituen begi onez ikusten jesuitek, kontzilioaren ondoren, hartutako jarrera liberalak. «Tiararen izurrak» liburua dioenez, Juan Pablo II.ak Konpainiako jenerala hautatze-

«Wojtylak Reaganekin Vatikanoko diruzuloa estaltzeko paktua egin zuen»
JOSE MANUEL BALENZIAGA «BALENTXI»

ko prozesuan esku hartu zuen bere ideietatik hurbilago zegoen Piet Hans Kolvenbah holandarra aukera zezaten. Karol Wojtylaren hautagaiak egin zuen aurrera.

Erromako Kuria zaharra

AUTORITARISMOA gora eta behera, Aita Santuak Vatikanoren erabakietan duen pisua ez dago oso argi. Pello Zabala Arantzazuko frantziskotarraren ustez, «*Aita Santuak ez du bainbesteko eragina; Erromako Kuriak eta han dauden talde eta batzordeak erabaki ugari hartzen dute, eta hauek dira berrikuntzak ezartzeko oztopo nagusia*».

Pello Zabalak ez du uste Karol Wojtyla bereziki kontserbadorea denik. Berak dioenez, Aita Santu izendatu zutenean arnas berria eraman zuen Elizara, Italiatik kanpora zetorrelako eta hasieran astindu ederra eman zuelako: «*Vatikanoko II. Kontzilioaren ondoren, Pablu VI.ak aurrerapauso handiak eman zituen; Juan Pablu II.a ere bide beretik hasi zen, baina gero, Elizaren muturretatik (Hego Amerikatik, Ekialdetik, ...) egindako zenbait gehiegikeri zuzentzea egokitu zitzaion*».

Pello Zabalaren esanetan, Eliza intxaurrondoa bezalako da: enborra Vatikanoa da, eta adarretan apaizak, fraileak, gotzainak eta abar daude; «*intxaurra eskuratu nahi izanez gero, enborraren ordeaz, adarrak astindu*

«**Aita Santuak inork baino hobeto ezagutzen du Vatikanoko II. Kontzilioa**»
JOAQUIN ROTETA

Komunismoaren aurkako borroka

EKIALDEKO estatuen sistemaren gainbehera Juan Pablu II.ari leporatzea gehiegitxo izan arren, Vatikanoko 18 urte hauetan komunismoaren eta orokorrean ezkerrean aurka izandako jarrerak bere fruituak eman ditu. Erroma 60. hamarkadan hasi zen Ekialdeko herrietan bere eragina zabaltzen (bidaiak, gotzainak izendatzeko agintari komunistekin lortutako akordioak...) eta Juan Pablu II.a eragin honetaz baliatu da komunismoaren kontrako borrokan.

Juanjo San Miguel Euskadi Irratian nazioarteko gaiak jorratzen dituen kazetariaren iritziz, «*Vatikanoko lau bide erabili ditu borroka hori aurrera eramateko: ideologia kontseradorea zabaldu, jendeari bainbat zerbitzu eta laguntza es-*



Juanjo San Miguel

Euskadi Irratiko kazetaria Nazioarteko gaeitan aditua

kaini herritarrak heuren ideietara bil zitezten, eskuin aldeko gotzainak izendatu, eta, noski, bide diplomatikoa.

Aita Santuak Berlingo harresiaren erori ondoren, Txekoslovakiara egindako bidaiari (1990.eko apirilean) argiro hitz egin zuen: «*Urte luzez ezinezkoa zirudiena egia bihurtu da; Varsovia, Mosku, Buda-*

pest, Berlin, Praga, Sofia, Bukarest, hiriburu batzuk aipatzearen, askatasunerako bidearen urratsak bilakatu dira».

Baina, Juan Pablu II.aren agintaldiak nazioartean izan duen eragina aztertzeko Amerika eta Afrikara ere jo behar dugu. Amerikan Askapenerako Teologiaren aurka egin du Vatikanoko. «*V. mendeurrena zela eta, Aita Santua Askapenerako Teologia eta Amerikan dauden beste erlijioen kontra gogor mintzatu zen*», dio Juanjo San Miguelek.

Afrikari dagokionez, Elizak oso politika kaltegarria egin duela uste du Juanjo San Miguelek: «*Afrikar demografiaren arazoa oso larria da eta Aita Santuak antisorgailuen kontra duen jarrerak kalte besterik ez du egin ban*».

behar dira. Beraz, Elizan berrikuntzarik nahi badugu adarretatik hasi behar dugu.

Juan Pablu II.aren aitasantutzan indarra hartu duten taldeetako bat Opus Dei da. Elizako sektore askok Aita Santuaren eskua ikusi dute Opus Deiren zabalte honen atzean. 1982. urtean, eta Juan XXIII.ak eta Pablu VI.ak Opus Deiri prelatutza pertsonala ukatu ondoren, Juan Pablu II.ak talde honen eskaera onartu zuen.

Prelatutza honi esker, Opus Deik apaizak izendatzeko ahalmena du. 1992an Aita Santuak Jose Maria Escriva de Balaguer Opus Deiren sortzailea beatifikatu zuen, Santuen Kongregazioko kide askok beatifikazio hori azkarregi erabaki zela iritzi arren.

Joaquin Roteta, Donostiako Ingenieritza Eskolako kapelau eta Opus Deiko apaizak ez daki bere taldeak Elizaren barruan duen eragina Juan Pablu II.arekin zabaldu den ala ez, «*dena dela*» —dio Rotetak— «*eragin hau beti da gutxi lan egiteko orduan*». Opus Deik Vatikanoren diru kontuak garbitzen lagundu zuen gal-

detuta, bi aldiz pentsatu gabe erantzun du: «*Hori ez da egia*».

Aita Santuari garai zaila egokitu zaiola uste du Joaquin Rotetak. Hala ere, bere agintaldia lurrikara handia sortzen ari da gizarte osoan: «*urte askotarako itzal handia utziko du Juan Pablu II.ak*».

Joaquin Rotetaren hitzei jarraituz, Karol Wojtylak ez du atzera egin Vatikanoko II. Kontzilioaren lorpenetan: «*Aita Santua han izan zen, eta, beraz, inork baino hobeto ezagutzen ditu kontzilioaren izpiritua eta erabakiak*».

ANDER USABIAGA

«Kalera lotsa gabe ateratzeko ausardia lortu dugu, jarrera desberdinak ditugu»

Azken 20 urteetan Euskal Herrian ezaguna egin den moda diseinatzaile honek ez du kale giroa utzi nahi izan. Bilbon duen arropa denda, diseinu eta jostun tailerra, Angela Arregiren gune bilakatu da. Hemendik ateratzen dira estilista honen izaera islatzen duten diseinuak eta jantziak. Enpresa emakume aitzindaria, Madrilgo Cibeleseko erakuslehioa utzi berria du eta 1997-98 denboraldirako moda zein irudi aurreikuspenetan erabat lanpeturik hartu gaitu.

Txikitatik omen duzu sorkuntzarako - joera. Noiztik duzu zaletasun bori?

Panpinak janztea nuen gustuko eta trapu zaharrak erabiltzen nituen jolasteko. Soinekorik ezean, hala

konpontzen ginen. Adibidez, duela gutxi Barbie panpinaren arropa diseinuari ekiteak gogobete utzi nin-

duen, nolabait antzinako portzelanazko panpinen gogoetak ekartzen zizkidalako lan horrek, Barbie-a niretzat oso panpin itsusia izan arren. Baina onartu behar dut, dena den, mota horretako bitxikeriak erakaritzen nautela.


Zeintzuk dira zure lehentasunak? Ibiltokien abangoardia ala kale janzkera?

Bilduma beti. Argi dago hori dela diseinatzaile batek duen lehentasuna, baina ezin dugu inoiz kale janzkera ahantzi, horretara egokitu behar dugu derrigorrez. Ibiltokia sormenaren erakuslehioa dugu azken finean; nahiz eta gerora arropa jantziezina izan, nahiz eta gainerakoek zorotzat hartu, ilusioa eta joerak ezarri behar dituzu, ilusioa eta joerak bai materialei zein koloreei dagokienez.

Sormena bapatean heletzen da, bilduma diseinatzea zenbait ideia piztearen ondorioa da, edozein tokitan, kalean, jate txeko batean datuak bilduz jaiotzen da. Gerora, ideien gorpuzteak hainbat isla izan ditzake, kaleko erosotasunera edota ibiltokiaren eskaeretara molda daiteke. Nik ez diet



«Bartzelonara abiatzen ginenean, orduan Madrilen ez zegoen ezer, askoz ere erasokorrak ginen, ausardi gehiago genuen abangoardiari aurre egitekoeta gure proiektuei ekiteko». (A.: M. Ramirez).



«Oztopo ugari gainditu behar ditugu moda industria erraldoira heltzeko, ezinbestekoa dugu horren bila ateratzea»

nire printzipioei huts egiten. Gustuko dut emakume femeninoa, erraz mugitzen dena eta bide horretatik jarraitzeko asmoa dut, aldatketak ezinbestekoak badira ere.

70. hamarkadan lehen denda zabaldu zenuenetik, modaren munduak aldaketa ugari bizi izan ditu. Gainera, emakume janzkeraren lerro klasikoa apurtzeagatik nabarmendu zara, ez al da horrela?

Modaren munduan hastapena latza izan zen, bai, baina dagoeneko galdu dut laztasun horren inpresioa, ez dudalako uste emakume gisa oztopo gehiago izan ditudanik, nahiz eta onartu beharra dagoen, moda munduan gizonezko gehiago daudela emakumeak janzten, gizonezkoak janzten dituzten emakumeek baino.

Nire buruarengan dudak konfiantzak lagundu nau. 500.000 pezetako mailegu batekin zabaldu nuen lehendabiziko denda eta ez zen erraza izan. Garai haietan Bartzelonara abiatzen ginela, orduan ez zegoen Madrilan ezer, askoz ere erasokorragok ginen, auzardi gehiago genuen abangoardia horri aurre egiteko zein norberaren proiektuari ekiteko. Aurritziak ere bazeuden, gainera,



«Oztopo ugari gainditu behar ditugu moda industria erraldoira heltzeko eta bertoko diseinatzaileak ezinbestekoa dugu Euskaditik ateratzea produkzio prozesu horren bila». (Argazkia: M. Ramirez).

eta denak bezala jasan behar izan genituen lekuz kanpoko kritikak edo zentsura hitzak.

Egun klasikoagoak izan gaitzke, apalagoak, baina lotsa gabe kalera ateratzeko ausardia dugu. Lehen jai egunetako arroparekin nahikoa bagenuen ere, jada ez da horrela gertatzen eta, ga-

rai desberdinak izanik, balore eta jarrera desberdinak ditugu arroparen inguruan. Izugarri aldatu gara, batzutan hobera egin dugu eta bestetan atzera.

Modak ezartzen dituen kanon estetikoak gainditzea zaila izatean da. Nola lortu duzu, klasikotasuna apurtzea, beti-

ko ildo gainditzea?

Klasikotasuna ez da inolaz ere apurtzen, baizik eta aldatzen. Abangoardia eta naturaltasunaren edo norberaren bapatekotasunaren nahasketa bezala ulertu behar dugu klasikotasuna. Moda, oro har, hainbat ele-

NORTASUN AGIRIA

Gasteizen jaio zen, baina bi urte zituela Bilbora joan zen bizitzera ● Ez du bere adina adierazi nahi ● Bulegoan hainbat bitxikeri aurki daitezke: erlojuak, patrioiak, mende bukaerako jantzi diseinua, berak egindako eskulanak, panpina zaharrak zein trapuzkoak, miniaturak... ● Tailerreko atarian josteko makina zaharrak ditu ● Romak, bere zakurrak, laguntzen dio alde batetik bestera biltokian ● Kosmetika munduan ere aritzen da ● Bere jantzien diseinua margotzeaz gain, «etxeko hormak pintatzeari ere ez diot muzin egiten»





«Janzkeran antzematen da balore eta jarrera desberdinen aldaketa, batzuetan hobera egin dugu eta bestetan atzera», esan digu Angela Arregik bere bulegoan. (Argazkia: Marisol Ramirez)

menturen lotura da, eta era berean eroso egon behar duzu, bai norberaren irudia islatzen den heinean zein jantziaren barruan.

Ildo honetatik, ez dut beldurrik izan nire artxibategian elementu desberdinak eta berriak gordetzeko. Agian begiluze bat izan naitzelako txikitatik, eta dena begiratzeko ohitura dudalako, bost axola arropa, lanpara, jostailu denda bateko

erakuslehoaren aurrean gelditzea zerbait deigarria suertatu bazait.

Azken finean, nire izaeraren isla da eta hori ere nolabait agertzen dut nire jantzieta. Elementu, material ala estilo desberdinetara jo dezaket jantziaren azken emaitzak hala eskatzen badi.

Diseinatzaile gazteek ekar dezaketenaren beldur zara?

«**Modaren abangoardia ez da diruari esker mugitzen, horregatik zerikusirik badugu arte plastikotako jendearekin»**

Inola ere ez. Irudimen berriari atea zabaltzeko behar zaizkiola uste dut, mugak edota trabak jarri gabe hegan egiten utzi behar diegu. Diseinu eskoletatik emaitzak agerian daude eta gu baino prestuagoak daudelako ala berritasuna eta ideia berritzaileak beharrezkoak ditugulako, ezin dugu moztu gazteen ideien etorrera.

Diseinatzaile berriengan sinesten dut modura mundura ekar ditzaketen emaitzak asko baloratzen ditudalako. Baina ez gaude batere kontrajariak, gure arteko baturerak emaitza hobek eman ditzakeela uste dudalako, bai bezero zein kalitatearen alde.

Kalitatea oso kontuan hartzekoa da, batez ere, ideien urritasuna dagoenean. Hala ere, lagungarria da nire ustez zure ondokoak zuk adina ala zuk baino gehiago dakiela jakiteak.

Artean gertatzen den bezala, modaren abangoardia ez da diruari esker mugitzen eta horregatik zerikusirik badugu arte plastikotan ala antzeko arlotan ari den jendearekin.

Euskal diseinatzaileek modaren industrian bankamotz zabiltzala uste duzu?

Merkatuak eskatzen dituen salmenta baldintzak kaleak ezartzen baditu ere, «busi-



«Diseinatzaile berrien irudimenari atek zabaldu behar dizkiogula uste dut inolako oztopo edota trabarik gabe. Euren konpetenziarengan sinisten dut emaitzen alde egitea dela uste dudalako». (Argazkia: Marisol Ramirez)

ness is business» ukaezina da. Horregatik nahiago dut industriaren atzaparretatik, ahal dudala, ihes egitea. Nahiz eta onartzen dudan industria horren baldintzen pean ari garela ezinbestean eta egokitzea derrigorrezkoa dugula.

Nik neuk etxean dut, zorronez, lantaldea eta lantokia gertu izatea nahiago dut. Eta hauek dira niretzat moda industria horren oinarriak, jantzigintza tailerrak hain zuzen ere. Oztopo handiak gainditu behar ditugu ehungintzaren industria

handira heltzeko eta bertoko diseinatzaileek ezinbestekoa dugu Euskaditik ateratzea produkzio prozesu horren bila. Txarrena da, baina, horrek asko garestitzen duela emaitza.

Bestetik, diseinatzailearentzat zaila izaten da horrela sortze-prozesuaren pausoak eta azken bukaera jarraitzea edota zuzentzea. Horregatik ez dut batere gustuko besteen eskuetan uztea nire lana, zerbait gaizki ateratzen bada nire erantzukizuna delako. Hala ere, Eusko Jaurlaritzatik lagun-

tzak jasotzen ditugu eta eskergarria da gure alde egiten duten lana, kementsu ari baitira.

Estilismoan ere aritua zara, telebista zein antzerki mailan. Aktore zein emakume ezagunak jantzi dituzu. Zertan ezberdintzen da lan bori?

Eszenatokiarentzat lan egiteak ikusmira desberdinak eskatzen ditu. Lana egiteko modua desberdina da. Neurri eta koloreekin beste era batera aritu behar zara pertsonai horren izaera agertu nahi baduzu. Ezaguna da telebistarako ere zenbait kolore ezin direla erabili. Gaietik, antzerki lanak eskatzen duen pertsonaiaren arabera jokatu behar duzu.

Eta, kale mailan, zer deritzozu euskal emakumearen janzkerari dagokionez?

Gizonezkoak ere jantzi izan ditut inoiz, jantziak eta gizonezkoak merezi bazuen behintzat, senarra ala semeak... Txantxak alde batera utzita, esango nuke euskal emakumeak zein gizonezkoak ondo jantzi direla. Horretan nabarmentzen gara.

Irudia oso garrantzitsutzat jo dugula esango nuke, baina ez dugu behar izan arropa garestia. Armairura jo eta irudimena izan dugu aldatu ala estiloz berritzeko, ukitu berezi bat dugu desberdintzen gaituena.

MYRIAM GARTZIA

«Nik nahiago dut industriaren atzaparretatik, ahal dudala, ihes egitea; zorronez, etxean dut lantaldea»

Eremu handiegiko eztabaida

EUSKAL Mediaren desagerketa iragarri den astean, mundu zabalean eremu urriko hizkuntzatan egindako produkzioak ikusi ahal izan ditugu Zarautzen. Badirudi hau dela euskal zinemaz eztabaidatzeko tenore aproposa: zinemaldi handiak egin herritan, Euskal Mediaz hitz egiten da eta Eremuak-ek euskaldunon barruan darماغun zeluloidezko harra pizten du. Zergatik ez da egiten euskaraz filmerik? Noiz egingen da hurrena?

Trebetasuna falta zaigula pentsatzeak depresio sakonean sar nazake, eta ez dut uste muina hori denik. Istorioak, eta horiek filme bihurtuko dituzten pertsonak badaudelako nago. Arazo nagusia sosen aldetik ikusten dut. Filme bat egitea zu eta zeure lagunon dirua osin batera botatzea da, eta datuak agerikoak dira. Euskal Herrian filmeak espainolez egiten dituztenek -ez dira nagusitu, beraie-nean, frantsesezkoak- zinema 'espaino-

laren' gailurrean dabilta, olatuaren orpinean. Euskaraz baino ideia hobe eta gehiagoren jabe? Dirua arriskatzeko grina handiagoa? Ez dut uste. Txinan ere zakurrek zaunka.

Kontua da merkatu zabala dutela, Espainiakoa eta Frantziakoa esku-eskura. Espainolek, beste 400 milioi Ameriketara. Frantsesezkoentzat kopurua murriztagoa da, baina zinema-industria munduko onenetakoa. Merkatua, gainera, aspaldi egituratua dute eta filmeak berehala du zabalkundea Europako beste merkatuetarako sarbide on samarrarekin. Banatzaileek ez diote muzinik egingo produktuari, gutxieneko baldintzak betetzen baditu, eta espainolezkoak eta frantsesezkoak hurrenez hurren gutxienez sei eta zazpi telebista-kate erosle zuzentzat dituzte, koprodukzioan ez denean -ETB da hamahiru horietako bat, bejondeigula!—. Bestalde, Hegoaldeko zuzendari 'espainolei' buruz ari garela,

ezin inolaz ere kargurik har edo meriturik lapurtu, kalitate handiko produktuak egiten dihardute eta. Olatu muturrera eurak bakarrik igo dira.

500.000 laguneko 'euskal' merkatuarekin murgildu ginen ARGIAN orain bi urteko errebasoan. Merkatu oso txikia, eta gainera merkatu izate horretan problema handia bere baitan duena: espai-

Zabaltzearekin zer ikusia duten neurriak hartu behar dira, zinema nazional guztiek egin duten legez; guk ez dugu soilik Hollywood-en eraso jasaten

Euskararen alde «40 ordu gogoz» ibili ziren lasartearrak asteburuan. Larunbatean goizeko zortzietan hasi eta igande gaueko hamaiketan amaitu zen lau urtetik behin egiten den Euskararen IV. Maratoia Gipuzkoako herrian. Eguraldi ona lagun, 2095 pertsona pasa zen taula gainetik, aurreko edizioan baino 400 gehiago. Ekitaldiak iraun zuen bitartean, Tximua irratia entzun ahal izan Lasate-Oriako irratietan. (Argazkia: Jagoba Manterola).



Zer dira bada kilometro batzuk?

nola (frantsesa) da. Hain zuzen ere, euskaraz ez dago merkaturik, ikusle potentzialak baizik.

Egin dira proiektuak eta porrota izan da ezaugarri nagusia. Kalitateak ere badu zer esanik. Izan ere, arestian esan dut ez dela ideiak eta autoreak falta direnik. Ordea, sobera ez ditugu. Ez da oraindik euskarazko produkzio on eta salgarria egin duenik. Eta benetan izango balitz, diru gutxi izanagatik ere dagoeneko frogagina izango litzateke; ene ustez, denon onerako. Euskaraz filmatuko lukeen zuzendari on bat izateak ez bailuke euskarazko zinemagintza *per se* zuzper-tuko, baina bultzadaxoa emanen lioke.

Baina jeniorik, bistan bederen, ez dugu. Eta jenioak sor daitezela baldintzarik onenak ez dira, hain segur, deus ez egotea. Labur-erdi- eta luzemetriak egin egingo balira behintzat, oinarria emanen luke jenioren bat -eta ez zinemagintzak eskatzen dituen beste profesionalak sortzekoa. Baina horretan ere urri.

GURE zinemaren ikurrin-eramaile izango dena baino, ordea, askoz inportanteagoa da oinarria. Euskarazko produkzioa ahalbidetuko duen laguntza, filmea egiten duenari gutxieneko zabal-kundea ziurtatuz. Hots, produktua egin dezan dirulaguntza, behar badu, eta banaketa ziurtatzea ikusle potentzial horiengana ziur iristeko, eta beste merkaturtako ateak jartzeko. Ez da kontua osorik diru publikoz egin behar denik, jakina; baina administrazioak ezin du horren aitzakian beste aldera begira gelditu. Neurri batzuk berari dagozkio, eta ez dira diru-emate aldetikoak. Zabal-tzearekin zer ikusia duten neurriak hartu behar dira, zinema nazional guz-tiek egin duten legez. Guk ez dugu soilik Hollywood-en eraso jasaten, gehiago baizik. Babesa ere, beraz, halakoa behar. Dirua irabazi barik, bere ondarea behint-zat ez duela galduko jakin dezan abenturero-oren batek, eta beraz eremu basati honetan sartzen ausar dadin.

MIKEL ELORZA

O**RAIN** dela gutxi Hezkuntza Sailburuari entzun nion, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe banaketa zela eta, hemen gure Autonomia Elkarte honetan, ez omen dela ia arazorik izan edo gutxienez, beste autonomia elkarte batzuetan hainbeste ez behintzat. Gurean, bi herriska kendu eta dena aise konpondurik geratu da eta, bi herrisketako arazoa ikasleek kilometro asko mugitu behar zutelako izan da. Beraz, teknikak aurrera darrai baina, mugitzen da gakoa eta ez besterik. Nik hala ulertu nuen.

Badirudi 12 urtekin heritik kanpora ikastera joateak ez duela gauzak beste moduz egin behar izateko hainako eraginik ikasleen osasun psikologikoan, ohitura aldaketan, edo... kilometro batzuk dira arazo larriena: garaizago jaikitzea, bideetako arriskuak, e.a.

Iritzi hauek beste edozein sailburuk eman balitu, bale. Ez zaizkit edozein kasutan ulerterraz gertatzen baina, ohitu egin naiz gestore «ekonomikoetara». Zer komeni da? Ez, ez, gaizki egin dago galdera, honela behar luke: zenbat diru eman digute honetarako? Hainbeste. Beno orduan hau egingo dugu eta ez komeni denari lehentasuna eta horrelakorik. Hezkuntza beste zerbait espero nuen; gutxienez arrazoi modu bat erantzun gisa hartzeko.

BAINA gauzak horrela dira eta kitto. Hori bai, horrela izatekotan, denean berdin eskatuko nuke, hau da:

-Herri tikiak hustuko dira jendea normala delako eta (zer ikusi hura ikasi) hiriko bi-zitzara, koadrilara, «erosotasunera» erraz jarriko da. Bide batez, baserrietara bideak egiten edo kultur etxe, udaletxe, ikaste-txe,... konpontzen ere gasturik ez.

-Denok hirian sartzen garenean edozein mezu, sermoi, mitin -iragarkiak azken ba-tean- denoi iritsiko zaiguna ziurtatuko da batetik eta, lepoz goiko bost zuloetatik

sartzen zaigula bestetik. Gainera LOGSEko lau batxillerrak egin ahal izango dituzte ikasleek eta ez hiru bakarrik, erdipurdiko herrietan bezala.


-Ertzainek ere ez dute hainbeste kilometro patruilatzen zertan emanik izango, hiria ongi zaindu eta listo. Hori bai, semaforo eta garabi batzuk gehiago jarri eta polizia denei traje berdina (Traje kopuru handiagoa eskatzean egiten duten errebaz baliatzeko).

-Zabortegi, lindanotegi, autopista, eta antzerakoak egiteko, libre libre egongo dira hus-tutako herri txikietan sail galantak.

-Parke naturala izango da hiru probintzietako «hiriburuez» gainerakoa, ia erabat. Eko-logistak ere pozik, pertsonak, erleak erlategietan bezala biziko dira, ezti goxoaren ondoan epel eta beharrak agintzen dienean, hauts bila ziztu bizian joateko erraztasun guztiek.

ZER eska daiteke hoberik, politagorik eta merkeagorik, egin daitekeenaren barruan beti ere?

Nik, gauzatxo bat eskatuko nuke asko ez bada: jar ezazue ekonomia saila bakarrik. Kendu beste sail eta burusail denak. Hiriburu bakoitzean buru bat, hau da, herenburua eta listo.



IÑAKI MURUA

TXUTXU - MUTXUKA


GASTEIZKO MUSEOA HANDITZEKO PROIEKTUA

Gasteizko museoa handitu eta zabaltzeko proiektua prestatzen ari dira Arabako Foru Aldundiko Kultura Sailean. Handitze plan honekin museoak dituen 4.000 lanentzako lekua aurreikusi da. Era honetan, egungo egoitzaren aldamenen eraikin berria egitea saihestuko da. Erakustaretoez gain, arte, dantza, antzerki eta musikarentzako aretoentzat lekua uzteko aukera ez dute baztertu, Europako joerari jarraiki. Europako hainbat museotan ibili dira teknikariak informazioa biltzen.

NOR - NORI - NOR K

**IMANOL ZALDUA**

idazle donostiarra Loiolan hil zen hilaren 23an, 72 urte zituela. Idazten berandu hasi bazen ere, 1980. urtean bere lehen liburua argitaratu zenetik hamabi dira kaleratutako idazlanak, aurtan Elkarrekin plazaratutako «Hauts madarikatua» izan ezik denak Gero argitaletxearekin kaleratuak. Uztailan ARGIAN egindako elkarrizketan, argitaletxe honen lanaz kexu agertu zen ●

**ASIER OTAMENDIRI**

eman zion epaimahaiak puntu gehien Araba eta Bizkaiko bertsolari txapelketako lehen kanporaketan. Lehen postuarekin finalerdietarako txartela eskuratzea lortu du. Bigarren lekuan Iñaki Aurrekoetxea bilbotarra geratu zen igandean Gatican egin zen saioan. Txapelketari agur esan diote honenbestez Zihara Enbeitak, Rikardo Gonzalez de Duranak, Urtzi Urrutikoetxeak eta Iñigo Gojenolak ●

**ANTXON URRUSOLOK**

Bilboko Juan Antxieta Arte Eszenikoaren ikasguneak antolatutako gidoilari ikastaroa zuzenduko du. Lehen ikastaro honetan 45 ikasle arituko dira bederatzihilabetez. Urrusolorekin batera Ramon Barea, Jose Antonio Vitoria, Luis Marias eta Felipe Loza izango dira irakasleak. Laguntzaileen artean, Juanma Bajo Ulloa, Julio Medem eta Imanol Uribe ariko dira, besteak beste ●

TEILAK

■ HAURRENTZAKO KONTZERTU DIDAKTIKOAK

Haurrentzako kontzertu didaktikoak emango ditu Euskadiko Orkestrak Donostian azaroaren 2tik aurrera. «Musikaren hizkuntza» izeneko programa prestatu du Donostiako Udalak eta haurrak musika klasikora hurbiltzea du xede. Antolatzaileek badakite haurrentzat ez dela erraza musika hau entzutea, baina ahalegin berezia egingo dute umeek goza dezaten. Orotara sei kontzertu izango dira Donostian. Aurrerantzean, Bilbo, Gasteiz, Iruña eta Iparraldera zabalduko da egitasmoa, hauetan ere Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren eskutik.

Programan konposagile ezagunen piezak entzun ahal izango dira: Mozarten Divertimento in F KV eta 40. sinfonia KV 550, Brittenen sinfonia sinplea, Barberren Sokentzako Adagioa eta Boyceren Musikaren boterea obertura. Lehenengo hiru kontzertuak azaroaren 2, 9 eta 16an izango dira, lehen biak Victoria Eugenia antzokian eta Antzoki Zaharrean hirugarrena. Ordutegia hiru kontzertuetarako berdina izango da, eguerdiko 12etan hasiko baitira.

Programa osatzeko gainerako hiru kontzertuak data seinala-garrietan izango dira, Eguberrietan, Inauterietan eta Aste Santuan. Zazpi urtetik aurrerako haurrentzat pentsatuak egonik ere, jende guztientzat daude zabalik kontzertuak, eta haurren guraso eta irakasleei dei berezia egin diete antolatzaileek. Sarreak 300 pezetan egongo dira salgai.

Aingeru Epaltzaren «Tigre ehizan» eleberria azaroaren 10erako kaleratuko du Elkarrek

«Lan ulerterrazagoak egingo nituzke baina hizkuntzak menperatzen nau»

Erbestea eta herrimina dira «Tigre ehizan» gai nagusi, Iruñeatik kanpo bizitzerik izango ez luken idazle batez ari gara; Hizkuntza zaila darabilela egozten diotela eta, hizkuntzak bere narrazioa menperatu egiten duela aitortu du.



Irakurtzea, mendira joatea, lagunekin poteatzea eta familiarekin egotea ditu zaletasun. (Arg.: L. Arzuaga)

du eta bestea Lapurdin gelditu da. Ez dute elkarren berri eta 1944ko abuztuaren

hasieran zerbait gertatzen zaie bie. Egun bakar batean gertatzen da dena.

Istorio berria asko aldentzen da «Ur Uherrak»en kontatu zenuenetik ala elementu amankomunak dituzte?

Ez dut uste elementu amankomunik dagoenik, eta hala balitz nahi gabe etorri dira. Egia da, liburua bukatu eta gero ohartu naizela zenbait gauza antzeko jo daitezkeela; erbestearen gaia, esaterako, bietan ageri den giltzetako bat da.

Liburu honetan erbestez idatzi nahi nuen baina bereziki nongotartasunari buruz; euskaldunok oso banean dugu nonbaiteko izate hori. Guztiok lurra behar dugu oin azpian eta, batez ere lur horren partaidea sentitzea.

Herriminaren gaia agertuko zaigu berriro ere. Bebarrezko eta positi-boa den zerbait al da?

Ezin izango nuke gizarte honetatik urrun bizi; askotan, Iruñeatik at ere ezingo nukeela bizi pentsatu dut, ezta Ensanchetik kanpo ere. Gai honen inguruan hausnarketa egin nahi izan dut eta

Azal iezazkiguzu «Tigre ehizan» zure azken liburuaren nondik norakoak.

Denbora berean gertatzen diren bi istorio datoz eleberrian, bata Venezuelan kokatua eta Lapurdin bestea. Espainiako Gudaren ondorioz, aita-semeak erbestera aldegin behar dute. Batek Venezuelarako bidea hartu



■ «Ur uherrak-ekin ezin da alderatu hau, «hasteko honek 80 orri besterik ez ditu». (Arg.: Joxe Lacalle)

hori pertsonaietan islatzen da, batean bereziki: Venezuelan dagoenak erabaki bat hartu behar du, bere tokia zein izango denaz. Lapurdin dagoena, berriz, haur bat da eta hangoa sentitu nahi du, nahiz eta jendeak kontrakoa esan. Egoera kontrajarri hauek aztertu ditut.

«Ur Uherrak» liburuarekin goia jo zenuen, liburu berriarekin bide beretik jarraitu duzu?

Inolaz ere ez. Hau eleberriska da, 80 bat folio izango ditu, besterik ez. Ez dut esango jolasa izan denik, denbora hartu dut horretarako, baina beste gauza bat da. Ez dakit oso ongi nola definitu: narrazio luzea ala eleberri laburra.

Azken urteotan Nafarroan literaturgintza arloan Nafarroako idazleak duela urte batzuk pentsaezina zen maila erakusten ari zarete, bai kalitate aldetik eta baita kopuru aldetik ere. Nafarroako literaturgintzari zer deritzozu?

Duela hamar urte inork ezin pentsa zezakeen horrelako mugimendua egonen zenik. Arlo guztietan gertatzen ari da: baditugu narradoreak, poetak, antzerkigileak eta saiogileak. Euskal literaturaren historian sekula ez da horrelakorik gertatu, inoiz ez bezalako mugimendua

dugu. Honekin batera jarrerara desberdina sumatzen da, aberastasuna. **Aberastasun hori nafarre a egiten ari den aportazioan ere nabari abal da?** Emari hori oso garrantzitsua izaten ari da, ez Nafarroan soilik, baita kanpoan ere. Nafarroan erabiltzen dugun espresioaren bat nafarra ez den idazle baten lanean ikusten dudanean neuri buruari zera esaten diot: zerbaitetarako balio du egiten ari garena. Hori ezinezkoa zen orain hamar urte; normaltasunarena horri lo-

tuta dago.

Orain zorionez ez da albiste nafar batek zerbait euskaraz idatzi izatea; gaur hori ere normaltasunez hartzen da. Urtero zerbait ageri da, bereziki poeten lanak. Eta pozgarria da idazle horietariko batzuk kontuan hartuak garela jabetzea. Ez dut esango lehen mailakoak garenik baina egungo euskal literaturgintzak aintzat hartzen da gure lana. Hemen zeozer bada, nahiz eta honela gertatzearen arrazoiak zeintzuk diren ez jakin.

Alde horretatik zu izan zintezke Nafarroako literaturaren adibide garbiena, batez ere erabiltzen duzun bizkuntza motagatik.

«Ur uherrak» plazaratu zenean norbaitek gipuzkeria-

«Ur uherrak» plazaratu zenean norbaitek gipuzkeria-

«Euskaldunok oso barnean dugu nonbaiteko izate hori, lurra behar dugu azpian eta hausnarketa hori egin dut»

« Sekula ez bezalako mugimendua dago gaur Nafarroako literaturgintzan; jenero guztietan nabari da aberastasuna »

ren kontrako liburutzat hartu zuen eta hori ez da horrela. Gertatzen dena da, ezin dudala imaginatu liburu hori beste modu batez idatzita. Liburu berrian saiatu naiz hizkuntza estandarra edo arruntagoa erabiltzen baina ezin izan dut.

Oso bizkuntza zaila dabilzula egotzi izan dizute. Ados al zaude?

Ez dut esango nire idazteko era erraza ala zaila denik. Idazten hasi nintzelarik gazteentzako zenbait liburu egin nahi nuen, baina ezin nuen hizkuntza erraza erabili, azkenean hizkuntzak bere legea ezartzen du, hizkuntzak menperatu egiten nau. Argi dago hizkuntza maila diferentek daudela eta zenbaiti nire idazkera oso zaila suertatuko zaio, baina horrelakoak beti izango dira.

«Tigre ebizan» bi pertsonaiak bizkaitarrak dira baina oso leku ezberdinetan bizi dira. Zer nolako bizkuntza mota erabili duzu narrazioa garatzeko?

Oso hizkera mota desberdina erabili ditut narrazioan. Aitari dagozkion pasarteak bizkaieraz daude eta semeiari dagozkionak, aldiz, oso lapurteratuak. Elkarrizketa batzuk euskara batuan dira, oso ortodoxoa gainera, eta beste batzuk bizkaieraz, lapurteraz eta bateren bat behenafarreraz.

Eta bizkaieraz nola moldatu zara?

Ongi, baina aholkulariak izan ditudala esan behar da. Ez dut arazo handirik biz-

kaierarekin, bizkaieraz aski normal mintzatzen naiz. Nafarra naiz eta aita ere Nafarroakoa dut, baina aitita bizkaitarra nuen. Han familia daukat eta normalean haiekin bizkaieraz egiten dut.

Gobernu berriaren euskararekiko politikaz zer diozu?

Hemen UPN egotea beti zama izanen da. Hori itsuak ere ikus dezake. Zenbaterainoko gauzak egin daitezken ez dakit; UPNk hautatu behar du euskaldunekin liskarra edo nolabaiteko bakea nahi duen. Azken urteotan bakea izan da, handiegia nire ustez, baina bake eresia. Dirulaguntza batzuk banatu dira eta horren truke lortu dute bakea. Kultura gunean ere sobera banatu da. Ikastolekin ere, adibidez, ez da liskar girorik izan, baina mundu hori ere normaltasun batean sartu delako edo.

Hala ere kexuak eta arazoak izan dira...


Dirua norekin bilakatu da liskargai? AEKrekin eta euskalduntze eta alfabetatze mugimenduan dabiltzanekin. Gobernuarekin hasarretzen gara diru falta dagoenean. Baina arazoa ez da diru falta soilik, jarrera bat da. Hiruko Gobernuarekin borondatea bazen, oso nolabaitekoa, baina orain ez dago. Zabaltzen hasi ziren bide lotsati horiek ez dakit segidarik izanen duten. Azken batean UPNren hautua da.

XABIER CARRILLO



La Casa del Café

— Juan Irujo S.A. —
D O N O S T I A



Herriko musikoekin diskoa grabatuz ospatuko dituzte 25 urteak Baigorriko gaiteroek

Ibai gorriko gaita zorrotza

Disko batekin —herrian kantu eta musikan kide dituztenak hartara gonbidatuta— ospatuko dute Baigorriko gaiteroek beren hogeitabost urtetako ibilaldia. Nafarroan gaitaren berreskurapena abiatzen sumatuta, Izpegiren beste aldetik eman diote laguntza. Eta Iparraldeko mugimendu abertzalearen biziberritzearen poz eta malkoak nahasten dira baigorritarren urteotako doinuetan.

BAIGORRIKO zaharrek ahantzi samarra zuten gaiteroen musika: gerra aurretik, Iruñetik ekartzen omen zituzten herrira, festetan jotzera. «*Horregatik* —dio Betti Bidartek— *leben al-dian basi ginelarik, zabarrak loriatu ziren*».

Askorentzako hain arrabots berezia egiten zuen tresna hura berreskuratu zuten gazteak —Betti Bidart, Pantzo eta Xan Leon Indart— 60ko hamarkadan txistu taldean jotzen hasiak ziren. Orduan Parisen iheslari zebilen Fernando Lakuntza ezagutu zuten, eta Donibane Garazi eta Lizarraren arteko «jumelage»-ren inguruko harremanek eman zieten Nafarroa Garaiko beste musikariek harre-

manetan sartzeko aukera. Era berezian oroitzen dira Betti eta Xan Leon Arrola dantza taldearekin Altsasuko ikastolaren festan izandako partaidetzaz, eta ondoko aste eta hilabeteetan Iruñera egin bidaiez.

Baigorrikoek gaitaren hogeitamar urteotako berpizkundea barrutik bizi izan dute horrela. 1968an burutu zuen Javier Lakunzak tresna zaharra ikasteko metodoa, eta hiru urte beranduago baigorritarrak joka ari ziren. Txistuan heziak izanik, ez dute txistua sekula utzi.

■ Gaita Baigorri sartzean, Iparraldean gazte mugimendu abertzale berri bat sentitzen zen, urte oso bereziak ziren

«Dantza taldearekin eskuin eta ezker ibiltzen ginen txistua jotzen. Baina gaitak beste indar bat zuen, bai guretzako eta bai entzule edo ikuslearentzako ere. Horrek erakarri gintuen, eta borrek indartu du».

Hogeitabost urtetako aldaketak

GAITA Baigorri sartzeari Iparraldean oso bereziak izan ziren urteetan gertatu zen. Gazte mugimendu abertzale berri bat sentitzen zen, eta hori kulturaren bezala politikan eta gizarte mailako gatazketan azkar mamitu zen. Artea industria eta langileria bazituen Maulen Toberak antolatuta ziren, 1972an; eta Garazin hurrengo urtean, Eustakio Mendizabal «Txikia» hil berriaren aipamenekin.

Urte horretan bertan egingo zuten herriko festetan aurkezpena Baigorriko gaiteroek, Uztaritzekoak, Tolosakoak eta Iruñeko Lakunzararrak gonbidatuta.

«Lapurdi eta Nafarroa Beheko beste herrietan ez bezala, gurean sekulako indarra zuen txistuak festetan. Pentsa gaitarekin basi ginelarik!». Estrainaldiaren arrastoa ez da galdu: herritar askok gogoan du gaur ere Bixentenia den ostatuan nahikoa jo ondoren, goizeko lauretan gazte guztiak nola eraman zituzten kalejiran herria zeharkatzera... errekan barna.

Inguruko herrietan laster hasiko ziren jotzen, eta 70eko hamarkada bukaeran hogeitahi herri baino gehiagotara fijo deitzen zitzairen Baigorriko gaiteroei. Partaide batzuk —hasierako Pantzo bat— geratu eta berriak —Tintin eta beste hainbat— sartuz. Kristof Isteque 1978an sartu zen taldean, eta astindu berri bat eman zion: erreperitorioa zabaldu, errepetizioak ia egunero, Iruñerako bidaiak ugaltu... Haize freskoa.

Baigorriko belaunaldi horren indarra eta egindako harremanak beste emaitzetan ere mamitu ziren. 1977an «Etxesartzea» tobera antolatuta zuten: ondoko Lasa herrian markes baten eta laborari baten artean, honek behar

■ Kristof Isteque gaiteroa 1987an hil zen eskuartean bonba lehertuta, eta taldeko beste kide batzuek espetxe frantsesak ezagutu dituzte

zuen eta jauntxoak kendu nahi zion baserriaren kontura sortutako istiluan oinarrituta Daniel Landart eta Kristian Etxaluzek idatzi zuten kanta, musika, dantza, bertso eta antzerkia nahasten zituen ikuskizuna. Hegoaldean ere, Usurbilen, eskaini zuten, eta Xan Leonek ez du sekula ahaztuko: «Hegoaldera egokituta, pasarte batean 'gaizto' batek 'Viva la Guardia Civil' eta hola-koak esaten zituen, eta saiatu ginen arren gure euskara ongi ulertzen ez zutenek ikusle batzuek ia kolpatu gintuzten». Seguru usurbildar askok gogoan dutela plazara eraman zuten astoa eta bere arrantzak.

Urte horietan, aste buru guziz bazen zerbait Iparraldeko herrietan. Toberak —Iholdikoa ere sona handikoa izan zen— eta 'Aita-seme laborari' bezalako emankizunak garai horietakoak dira. Eta 1979an, Basaizea elkartearen, Kultur Astearen eta hain arrakastatsua den Nafarroaren egunaren sorrera ezagutuko dituzte Baigorriko. 1980an jo zuten lehenbizikoz Iruñean. «Hasi ginelarik ez genian amesten ere inoiz Iruñean jotzea!».

Iparraldearen hogeitortotako erradiografia egiteko balio diguten Baigorriko eta bere gaitero bandak pasarte gogorragoak ere bizi izan dituzte. Kristof Isteque



■ Kristof Isteque, Betti Bidart eta «Papin» Inda Elizondoko kaleak berotzen 1980an.

1987ko uztailean hil zen esku artean bonba bat lehertuta, eta beste kide batzuek espetxe frantsesak ezagutu dituzte. «Urte horietan sentitu genuen gainerako gaiteroen solidaritatea, Uztaritzeakoena, Tuterakoena, Iruñekoena...».

Martikorena, Aire ahizpak, korua...

AZKEN urte hauetan Baigorriko gaiteroen taldea zabaltzen ikusi da, herrian antolatutako eskolaren fruitu. Eta Iparralde osoan ere ugalduta dira gaiteroak, gaur diren hamabost bandak osatu arte. Gaita eskolak bada Uztaritze, Donapaleu, Baiona, Sara, Hiriburu eta Izuran.

Baigorriko gaiteroak esanda gaur hamar izen aipatzen dira: Xan Leon Indart, Daniel Cruspeyre, Jean Kristof Natorp, Beñat Arrangoitz, Jean Pierre Inda, Filipe Dupuy, Olivier Aranguren, Maria Zalbide eta Be-

tti eta Patxi Bidart aita-semeak. Basaizea elkartearen barruan mugitzen dira, zaharberri eta duela gutxi inauguratu den Bixentenia elkarte-ostatuan entsegatuz, eta gaita ikastera 12 gazte hurbiltzen zaizkie larunbatero.

«Nafarroako gaiteroak» diskoan parte hartuak dira lehendik Baigorrikoak, eta Eltzegor, Erramun Martikorena eta *papa* egiten duen Montana taldearen diskoetan beren hotsa sartuak. Orain, Baigorri eta inguruko herrietan musika edo kantua egiten dutenekin batera ospatu nahi izan dituzte zilarrezko ezteiak.

Ospakizuneko diskoa grabatzeko lanak bukatzen ari dira, Niko Etxartek Altzain duen estudioan. Hartan eskainiko zaizkigu Baigorri eta bere kantonamenduan kantua edo musika egiten dutenen lekukotasunak. Baigorriko gaiteroez gain, Erramun Martikorena

—Anjele bere arrebarekin— edo Larragako joteran bi jota abestuko dituzten Aire ahizpak azkar ezagutuko dituzte entzuleak.

Baina txikia izanagatik, Baigorri bada kultur bizitza. Iguzki-Lore taldeak 50 haur kantari biltzen ditu. Arrola fanfarreak egiten duena klika bat joaldia baino gehiago da. Bada txistu eskola. Aldudeko Magali Zubillaga eta Baigorriko Etxeberri ahizpak kantari ari dira, hauek beren taldearekin gainera. Eta bada Ibaigorri korala, gerra ondorengo dantza taldetik sortuta 40 urteotan lanean ari dena, 1963an diskoa grabatu zuena. Hortik paseak dira Martikorena, Laka bertsolaria, gaiteroak berak... Denen artean Vals bat eta «Fantasia navarra» joko dituzte gaiteroek. Eta gaitero hauek «prententsio handirik gabe» ari direla diote!

PELLO ZUBIRIA

Mikel Garikoitz & Denaliren «2 ziri-k» country doinuko diskoa kaleratzear

«Jendeak nahi duena konposatuko banu mertzenarioa nintzateke»

Country, doinua. Mikel Garikoitz & Denali, tadea; baina bera taldeko beste partaide bat dela argi utzita. Berak dioen bezala, musikaren gezurrezko munduan, jendeari begiratu gabe gustukoa dutena jotzea erabaki dute; lekuak ere ongi hautatuak.



L. Feriol, Mikel Garikoitz, J. Ander Larrañaga, H. Ostolaza, X. Zubeldia eta J. Gomez, X. Zubeldia.

Mikel Garikoitz askorentzat Akelarreko argi teknikoa da baina ez musikoa, noiztik zabiltza lan hauetan?

Oihana plaza taldean abesten nuen baina gaizki aterazen eta utzi egin genuen; Akelarrek argi tekniko izatea eskaini zidan eta aurrera.

1988an, Irunen ikasia izanik, kilometroak zela eta lan batordean aritzeko deitu zidaten. Hasieran doinuak egiteko; ez dakit nola baina azkenean kantatzeko konbezitu ninduten. Jendearen harrera ikusita erabaki nuen berriz hastea.

Hala ere, gauza bat argi utzi nahi dut. Taldeak erabaki du Mikel Garikoitz & Denali izena hartzea baina egitura ez da abeslaria eta atzean bost musikorena. Erabaki da Mikel Garikoitz izen hori erabiltzea zenbait lekutan ezaguna delako.

Taldea aurkeztu behar da: batera Haitz Ostolaza, baxua Laurent Feriol, gitarrak Jon Ander Larrañaga eta Joxean Gomez, teklatura Xabier Zubildea eta abesten ni. **Nondik dator Denali?** Kanadan Alaskarekin mugan dagoen lurralde bat da.

Indioak bizi dira eta bada mendi bat sakratua dena, Denali izenekoa. Lurralde horretako mendi altuena da eta Denalik horixe esan nahi du, handiena. Mendi horretara joaten ziren ekintza sakratuak egitera.

Floridan seminolekin egoteko aukera izan nuen. Oso berezia zen. Esaterako, Estatu Batuetan dituzten legeak seminolentzat ez dute balio, epaileak ez dira hor sartzen. Erreserbatan egoteko aukera izan nuen eta jakin nuen Kanadan ere bazela antzeko tribu bat, Denali azpian bizi dira eta izena gustatu zitzaidan.


«2 ziri-k» diskoak country musika dakar, Floridako egonaldi baren zerikusia du?

Asko. Betidanik gustatu izan zait countrya, baina hangoek nola jotzen duten ikusita, hura nola sentitzen duten ikustea... Lehendabiziko maketan musika guztia country eran proposatu nuen baina une hartan taldean zeuden musikoek ez zuten ideia gustukoegi. Musika hura hartu genuen eta rock airea eman genion. Orain taldekide gehienak berriak dira eta doinu countrya hautatu dugu.

Baina Euskal Herria ez da Estatu Batuak.

Bi hilabete igaro ditut grabazioa entzun gabe; orain dela gutxi berriz entzun dut eta ziur nago jendea gustatuko zaiola. Oso melodikoa da, armonia du, erritmoa ere bai baina akustikoa izateak gogortasuna kentzen dio. Agian apostu bat da.

«Ez noa biktimarena egitera baina lotsagarria da disketxeena; ez dute kalitatearen arabera aukeratzeko»



Floridan seminolekin egoteko aukera izan zuen eta countryan aberasteko ere aukera ona izan zela esan digu. (Arg.: A. Elozegi).

Gitarra akustikoak, teklatua, eskusoinua, eta baita mandolina eta banjoa ere. Azken hauek modan daudela dirudi...

Pozten naizen gauza bakarra da, beti gustatu izan zaidan hura entzuteko aukera handiagoa dagoela. Ohartzen naiz akustikoa gero eta gehiago datorrela. Mandolina, banjoa, eta gitarra akustikoak sartu ditugu Amerikan zenbait country taldek horrela egiten dutelako. Melodian ezezik, instrumentazioan ere ahalegindu gara kutsu hori ematen.

Hainbeste musika tresnekin nabasketa eta oro har arlo teknikoari garrantzia eman behar.

Garrantzi handiagoa eman behar genieki horiei. Musika tresna ezezik, ahotsa bera lantzerik badago, trikimailuak, ekoak...

Hori iruzurra da?

Hala da. «2 ziri-k», horixe esan nahi du. 2, bigarren lana delako eta ziri gezur handia delako musikaren inguru guzti hau; baina ez da gure gezurra, merkatukoa baizik. Guk maila txikian egin dugu baina disketxe handitan gehiago da.

Zuek Koraly's estudioetan grabatu duzue, xumeago.

Taldekide bat, bajua, Laurent Feriol estudio horretako

teknikoa delako; eta horretaz gain, Euskal Herri osoan diskoa grabatzeko aukera eman digun estudio bakarra izan delako. Koralysekin koprodukzioa egitea lortu dugu; bestela ez genuke grabatuko. Niretzat Zaldibobo Euskal Herriko talde onenetakoa da eta lotsagarria iruditzen zait dagoen lekuan egotea. Honelako adibideak asko dira. Ez noa biktimarena egitera baina lotsagarria da disketxeena. Ez Euskal Herrian, ez Espainian, grabatzen denean ez da kalitatea aintzat hartzen, grabatzen dute errentagarria izango delakoan.

Eta maitasuna errentagarria al da? Zuenak maitasun bitzak dira...

Badut lagun artista bat eta hark dio, artean eta beraz musikan ez dela beti jendeak nahi duena egin behar. Baldin badakit jendeak zer bait nahi duela eta nik hori egiten badut merzenario bihurtzen naiz. Hitzak neronek hautatzen ditut eta gehienak dute ukitu erromantiko hori. Zorionez taldeko guztiak ez gara honetaz bizi eta hori agian abantaila da nahi duguna egiteko aukera gehiago izateko.

Diskoa eta gero, zuzeneko emanaldiak?

Nahiko bereziak izango dira, leku txikitan joko dugu. Pentsatzen dugu musika akustikoa eskaintzeko ezin dela plazan aritu. Jendea kalimotxoarekin, zerbezarekin dabil baina ez da entzuten gelditzen... Orion esaterako plazan aritu ginen eta bazen jendea eta aurrerantzean ere plazarako proposamena egiten badigute joango gara no baina bereziki antzoki eta tabernetan arituko gara.

MAITE ARTOLA

«Euskal artistak» liburuan oinarritutako erakusketa dago San Telmon azaroaren 17a arte

Figuraziotik euskal arrasto bila

Eredu historikoa betetzera dator Donostiako San Telmo museoan dagoen erakusketa. Gaur egungo 40 euskal artista figuratiboen lanak jasotzen ditu: espresionismotik, abstrakzioraino; Donostiakoaren ondoren, Europara bidean izango da.



Margoa ezezik, 13 eskultoreen lanak biltzen ditu Euskal Artisten erakusketak. (Arg.: A. Elozegi).

ORAIN dela bi urte kalera-tutako «Euskal Artea» liburuaren ondoren, «Euskal Artistak» izeneko liburu berriaren karira, artelan bilduma zabala aurki dezakegu Donostiako San Telmo museoan, Bilboarte-k paratutako euskal artista figuratiboen erakusketa ibiltarian. Euskal artistak izenarekin dator, baina soilik Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabakoaren lanak jaso dituzte.

30-92 urte bitarteko egi-leak ezagutzeko aukera. Guztira, 40 artisten 60 lan dira ikusgai. Margoak eta eskulturak, guztiak, liburuan agertzen diren 125 artelanetatik aukeratuak. 40 horietatik 27 margolariak dira (25 oraindik margoan dihardutenak eta bi hilda daudenak: Vazquez Diaz eta Bay Sala) eta beste 13 eskultoreak.

Margolariekin hasita, Iñaki Garcia Erguin, Begoña Izquierdo, Felix Beristain, Jose Barcelo, Julian Ugarte, Eloy Erentxun, Javier Hernandez Landazabal, Martin Ballesteros, Luis de Larrinaga, Ramon Urain, Borja Sartrategi edota Javier Ortiz de Guinea aipa ditzakegu, besteak beste.

Eskultoreen artean, Antonio Oteiza, Tomas Murua

Etxezarreta, Aurelio Rivas, Vicente Jauregi, Lorenzo Ascasibar, Maria Dolores Ortega, Casto Solano, Palmiro Haro edota Xabier Santxotena ageri dira. Ezagunak ala ez, aniztasunaren interesa da akuilua.

Bilboarte erakunde pribatuaren ekimenez eta Julia Carvajal zuzendaritza artistikoaren gidaritzapean dator San Telmo museoko erakus-

«Euskaldunak
sentimentu
handikoak gara;
halaxe, pintzelada
gutxi eta kolore
indartsuak
erabiltzen ditut»
JULIAN UGARTE

keta; azaroaren 17ra bitarte
luzatu dena, hiruan buka-
tzekoa baitzen.

Figuratiboa arrakastatsuen

EUSKAL artisten bilduma egiteko garaian aukeratu den estiloari begira, Julia Carvajalek zera argitu digu: «Arte garaikidearen barruan figuratiboa da arrakastatsuen, gainerako estiloek baino jende gehiago erakartzen du, agian ikusleak hobeto ulertzen duela. Bestalde, Euskal Herrian estilo beraren inguruan korrante ugari elkartzen dira eta horrek ere aukera polita eskaini digu erakusketa borrela antolatzeko».

Orain arte egin den euskal artista figuratiboen bilduma osatuena izateaz gain, gizar-

«Gizarteak bereago egin behar luke artista»

Erakusketaren helburuetariko bat Euskal Herriatik kanpora euskal artistak ezagutzera ematea izaki, euskal artistak oso ezezagunak direla pentsatu behar al da?

30-90 urte bitarteko euskal artisten artean, belaunaldi batzuk ezagunagoak dira beste batzuk baino. Zaharrenek, 60 urtetik gorakoek, orain dela 20-30 urteko testuinguru sozialean, oro har, arrakasta eta onarpen handia izan zuten. Baita azken hamarkadan ere, gazteenek bultzada garrantzitsua jaso dute, erakunde, komunikabideen aldetik...

40-60 urte bitartekoak, berriz, ahaztuxeak gelditu dira. Erakusketa honek biltzen dituen gehienak, bestalde, bitarte honeta-

tean bertako artistenganako interesa bultzatzea ere bada helburu. Aldi berean, erakusketa ibiltaria izanik, bertako sormen errealtatea



Rafael Zulaika

San Telmo museoko
zuzendaria

koak dira, eta gure artean zokoratuta gelditu den hainbat berreskuratzeko aukera eman digu.

Erakunde pribatuak izan dira euskal artearen bultzatzaile kasu bonetan...

Gizartearen onerako da artearen kasuan ere ekimen publiko eta pribatu-

tuaren arteko oreka gertatzea. Guri laguntzaile izatea egokitu zaigu oraingo honetan; bestetan, bultzatzaile eta antolatzaile. Garrantzitsua da euskal artea eragiteko moduko ekimen pribaturik ere gotea.

Euskal artista figuratiboen bilduma bonen ondoren, zein beste ekimen botako zenuke faltan?

Artearekiko gizartearen halako hurbilketa ekarriko lukeena, beharbada. Hain urruti sentitu beharrean, gizarteak «bereago egin behar luke artista. Arte herrikoiak izandako garrantzia isladatzeko moduko bilduma, esate baterako, gizarteak galdua duen sen estetiko berreskura dezan. Haiak ziren bai, artistak!

kanporatu egingo da, Europara nagusiki. Donostia-koaren ondoren, Madril eta Bruselara eramango dute.

Xede hauekin batera, Julia Carvajal erakusketako zuzendari artistikoaren esanetan, «hausnarketarako gonbitea egiten duten lanak dira; figuratibismoaren barruan sentsibilitate eta ukitu asko biltzen dira: espressionistak, intimistak, simbolikoak, errealistak, hipe-errealistak, abstraktora joera hartzen dutenak... Hauek guztiek osatzen dute gaur egungo euskal arte figuratiboa».

Jatorri sozial eta kultural ezberdinak biltzeaz gain, artista bakoitzaren margotzeko erak dakarren bizitasunak liluratuta antolatu dute


erakusketa. Iñaki Garcia Eruguin pintorearen esanetan, «erakusketan ez daude egon beharko luketen guztiak, ezinbestean; gaudenontzat pizgarri polita da erakusketan parte hartzeko aukeratu izatea».

Margolariei dagokienez, bestalde, belaunaldien arteko desberdintasunak agerian dira; ez etenik, ordea. 92 urteko Eloy Erentxunek koloreari garrantzi berezia ematen dio. Horren adierazgarri dira, erakusketa honetan jarri dituen lau koadroak: «Peciña», «Artaxona», «Erronkari» eta «Pasaia» herriak gogorarazten dituztenak. «Lurralde ezberdineta-ko paisaiak hartuta, kolore ezberdintasuna nabarmendu dut; Erronkarikoa



Eloy Erentxun 92 urteko margolariak, Peciña, Erronkari, Artaxona eta Pasaia koadroak ekarri ditu. (Arg.: A. Elozegi).

Goiko argazkian, J. Ugartek eginiko bi emakumeen irudiak, abstrakzioarako bidean; behekoan, zuhaitzak hiltzen diren garaia, udazkena, dakar gogora; «erdi-erdian lurra laiotzeko unea isladatzen da, euskaldunen indarraren erakusgarri, itxiturek, berriz, erritmoa ematen diote koadroari». (Arg.: Alberto Elozegi).



dut gustukuen; oroitzapen oso onak ekartzen dizkit, gaztaroa Nafarroan utzi nuelako», azaldu digu Erentxunek.

Luis Garcia Otxoaren lanak berriz, figurazio pertsonalago batera jotzen du. Beste zenbait kasutan, figurazioak abstrakzioa gara-

matza; paisaiak, pertsonak eta formak desitxuratuz datoz, erabat ez bada ere.

Espresionismo abstrakto honen partaideen artean, besteak beste, Jose Barcelo, Julian Ugarte eta Iñaki Garcia Erguin aipa genitzake. Azken honek azaldu digunez, «artelanetan zenbat eta abstrakzio maila handiagoa topatu, espresio maila eta sujerentzia ere gora joan

obi da. Nere lanetan horixe bilatu obi dut».

Espresionismo abstrakto-
ra jo ohi duen beste margolari garrantzitsua Julian Ugarte dugu. Bakea, lasaitasun eta askatasun giroa agerian gelditu ohi dira bere lanetan. Sentimentuz betetako lanak eta pintura oso erakargarria ikusi diogu. Erakusgai duen lanaren interpretazioan sakontzen hasita, «euskaldunak sentimentu handikoak gara; balaxe, kolore indartsuak erabiltzen ditut, pintzelada gutxiko lanak atsegin ditut eta, aldi berean, esanabi sarkorra dutenak. Horixe pintura lanen indarra, horixe koadroak erakartzeko gaitasuna!», dio Ugartek.

Erakusketan, emakume gutxi, baina horien artean maila handiko artistak daukela nabarmendu du Julia Carvajalek: «Begoña Izquierdoren obra oso da esanguratsua; erakusketako lan onenetarikotzat jo daiteke berea».

Erakusketatik ikusi gabe joan behar ez den obra horretaz galdetu diogunean emandako izen bat izan da Begoña Izquierdorena, baina «guztia, guztia da ikusgarria», azaldu digu.

PATXI SARRIEGI

Argitarapen honen edizioako laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

LIBURUAK



«XALBADOR
PERTSULARIA»
JOXE MARI ARANALDE

SENDOA, AUSPOA 165 or. Nafarroa Behereak eman duen bertsolaririk handienaren inguruan idatzi du Joxe Mari Aranaldek liburu hau. Urepelgo kantari eta poetaren nondik norakoak, bertsuak, istorioak eta pasarteak bildu ditu. Fernando Airek kantuan hasi zenetik urratutako bidea irakur daiteke, Euskal Herriko bertsolari txapelketan jasotako txistuak ere gogoratuz. Batean botatako bertsuak baino ez ditu jaso egileak. Bukaeran, Aranaldek berak, Xalbadorren heriotzean idatzitakoak berrargitaratu ditu●



«URREZKO ASTOA»
LUZIO APULEIO
ITZUL.: JUAN KRUZ
IGERABIDE/ ANJEL
LERTXUNDI

IBAIZABAL, 338 or. Kristo ondorengo 125. urte inguruan jaiotako idazle honen liburu eman du argitara Ibaizabal argitaletxeak, literatura unibertsala sailaren barruan. Kartago ondoko Madauran jaioa, grekera, latina eta oratoria ikasi zituen. Bere garaiko gizartearen alderik kritika-garrienak jorratu zituen «Urrezko astoa»-n, asto bihurturiko pertsonaia metamorfoseatuaz baliaturik. Lertxundirentzat lehen itzulpen luzea da honakoa eta Igerabidek Beaudelaireren «Fanfarlo» itzulia du aurretik●

RITXI LIZARTZAREN BEGIETAN

Lan ederra, modu xehean

Nola egin lan ederrak xehe? Badirudi ordiziar honen helburua horixe dela, umeengandik gertu egon litezkeen istorio argi eta sinpleak sortu, hartzaileekiko harremana zuzena izateko.

Oso emankorra izanik, badirudi kalitatean zertxobait gal dezakeela, baina Patxiren kasuan ez da hala izaten. Izan ere, berezko lanak eta argialetxeek agindurikoak (halakoxeak diruditenak behintzat) maila onekoak izaten dira eta oso atsegina da irakurketa.

Patxik dohai berezi bat du, edozein idazlek beretzat nahi lukeena, hots, istorioak kontatzen jakitea, eta adin ezberdineko pertsonentzat egoki idazten daki; askorentzat ez omen da erraza, antza, irakurlea izango denaren lekuan jartzea, idazteari ekiteko. Ez zaio Patxiri horrelakorik gertatzen.

Honako liburua frogatzen du. Agian batek baino gehiagok planteatzen

nola egin litekeen horren liburu sinplearen iruzkina, baina edozeinek hamar minututan irakur dezakeen lan honen distira du, magia. Istorioa sinplea da, familia bateko gurasoak eta nebarrebak gau batean bizi duten eguneroko egoera bat, adornorik gabea, baina kontaketa eta hizkuntzaren erabilera datza berezitasuna.

Argitaratzaileek, erabat asmatu dute irudiei halako garrantzia ematen, marrazkilarien lana duin eginez.

Alde kritikagarririk ere badu, ikur tipografikoak metatzaren ondorioz, zenbaitetan hurrek gal baitezakete istorioaren haria, nor den mintzatzen ari dena (aita erortzen den uanean) alegia.

Haur hizkera zuzen aukeratua izan da eta bizia da, arina, sinplea. Artifizioak ume-hizkuntza nahastu eta ulergarritasuna zaildu baizik egiten ez dutelako.





«MUSTLOA NAAAIZ»
PATXI ZUBIZARRETA
BAPOREA-SM



**«ZERU URDINA»
GALSAN TSCHINAG
ITZUL.: XABIER
MENDIGUREN
DESCLEE, 185 or.**

Mongoliako idazle honen «Zeru urdina»-k bere herrialdeko nomaden bizitza islatzen du, haurtzaroan dagoen protagonistaren bidez. 14 urtetik aurrerakoentzat eta helduentzat gomendaturik dago liburua. Pixkanaka bertakoek ezagutuko duten mundu modernoak euren bizitzetan izango duen eragina argi asko agertzen da istorio interesgarri honetan. Idazleak oharra uzten du: baliteke kontakizuna amets batekin hasi izana. Ekialde urrunarekin amesteko parada●

**«LAUAXETA»
JOSU PENADES BILBAO
DEUSTUKO
UNIBERTSITATEA, 348 or.**
Bermeon jaioetako Josu Penades Bilbaok, Teologian doktore eta Deustuko Unibertsitateko irakasle denak, Lauaxetaren irudia ekarri digu gogora. «Lauaxeta, historian hezurmamituriko sinesmena» lanean idazleak bere garaiko politikan eta bizitza sozialean izan zuen eragina aztertu du Penadesek. Bereziki Primo de Riveraren garaitik eta Errepublikatik aurrerako garaiak hartu ditu aintzat. «Kulturaren eta sinesmenaren arteko elkarriketarako elkargia: solidaritza bizi-arrazo» azpizizenburua aukeratu du egileak bere egitasmoa laburbiltzeko●



**«EUSKARA ETA
LITERATURA»**

DBH 2, IBAIZABAL, 250 or.
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako bigarren ikasurteko euskara eta literatur ikasgaiko ikasleentzat prestatutako testu-liburua aurkeztu du Ibaizabal argitaleak. Idatzizko nahiz ahozko euskara eta irakurmena lantzeko liburu mardula da honakoa. Ariketak egiteko euskarazko komunikabideetatik hartutako elkarrizketa, erreportaiak eta albisteak, koloretako argazki eta irudiak, bertsolaritza taillerak eta jolasak eskaintzen ditu. Kondairak, Euskal Herriko historia, euskalkien inguruko informazioa eta orohar euskara bere osotasunean ezagutzeko baliabideak ematen ditu, informazio berrizatuaren bidez●

**«ESTER ERREGINAREN
BARAUAK»
SEVE CALLEJA
ITZUL.: ANTXIÑE
MENDIZABAL
DESCLEE, 177 or.**

Sefardien kulturak aspaldi erakarri zuen Seve Calleja eta orain ere bertako abenturazko nobela batekin dator. XVII. mendean inkisizioak jazarritako neska gazte judu espainiar baten istorioa kontatzen du bertan. Atlantiar Ozeanoaz bestaldera egindako bidaia kontatzen du eta Ester protagonista Bibliako erreginaren berragiztapena literarioa bihurtzen da. Hamalau urtetik aurrerakoei bideratutako lan hau Antxiñe Mendizabalek itzuli du●




Hontza
LIBURUDENDA

Okendo kalea, 4
Tel. 42 82 89 Faxa: 43 12 56
20 004 DONOSTIA

MIKEL ERRAZKINEN BELARRIZ

Aktore eta jazz kantaria

Miren Aranburu ezagutzen ez dutenek akaso ezagun izango dute Maider, «Goenkale-ko irati esataria.

Mirenek 1977an grabatu zuen lehen diskoa «Lehertu da». Horretaz gain, Imanol Larzabal eta Jabier Muguruzarekin kolaboratu du eta filme zein marrazki bizidunetarako kantuak abestu ditu.

Jean Louis Hargous musika garaikidearen konposatzailea da eta Fractal edota Tchic-si jazz taldeekin egin izan du lan; baita Amaia Zubiria zein Jabier Muguruza euskaldunekin ere. Disko honetan saxo eta klarinete baxoa jotzen ditu, bereak diren abestietz gain. Mirenek hitzak jarri ditu eta nola ez ahotsa.

Iñaki Salvador, Gonzalo Tejada, Victor Celada, Jabier Muguruza eta «Nagy» entzuteko aukera dago diskoan.

Harritu egin nau jazz disko abestua entzutea; Euskal Herrian ez dira jazz diskoak soberan, Iñaki Salvador eta Tejadaren bateren bat baina apenas gehiago.

Disko honek asko du jazzetik, bossa ere entzun daiteke eta bada blues bat ere, jazz ukitu handiekin. Produktzioa oso xumea iruditu zait; baina ez txarra. Xumea, oinarri doinu eta pianoekin baina aparteko adornurik gabe. Askotan, bera onena. Bigarren kortea da honen adibide nagusi. Bateriak platerekin jokoak egiten ditu baina hortik atera gabe, bitartean gainerako musika tresnek juxtua egiten dute eta Iñaki Salvador pianoarekin doa.

Oraindik arraro egiten zait euskaraz abestutako jazz kantu bat entzutea; agian ho-



«ETORKIZUNAREN MEMORIA»

MIREN ARANBURU
JEAN LOUIS HARGOUS
IZ

regatik egin zait arraro Mirenen ahotsa. Gainerakoan, nabarmentzekoak dira «Libanoko zedroa» edota «Kanta kaltegarria».

Instrumentazio onaz lagunduta eta gustuz egindako diskoa.



«ZIENTZIA ETA KULTURA»

MARTIN GARDNER
GAIK, 292 or.

Martin Gardner zientzia jakitunak zientziari buruzko 12 artikulua bildu ditu liburu honetan, zientziak ezkutuan duen eduki kulturala azalerraten dutena. Unibertsoa, beste munduetako bizitza, erlijioa eta zientzia, hegaztiak, energia iturri berriak, Gestapo eta zientzia eta itsasoa dira gaietako batzuk ●



«INDEPENDENTZIA 5 URTEZ»

ESAN OZENKI

Disketeak bost urte bete ditu aurten. «Independentzia 5 urtez» izeneko kanpainari amaiera emateko, bilduma ezezik kontzartu zerrenda prestatu dute. Disketearen

osasuna argi geratu da azken urteetako produkzio kopuruarekin.

Bosgarren urteurrena ospatzeko, Esan Ozenkiko taldeen kantu banaz osatu dute bilduma, 23 guztira: Negu Gorriak, Etsaiak, Su Ta Gar, Baldin Bada, TT.LT, Danba,

Anestesia, Ama Say, Bap, Dut, E.H. Sukarra, Lin Ton Taun, Joxe Ripiau, Kortatu, Les Mecaniciens, Delirium Tremens, Deabruak Teila-tuetan, Xabier Montoia, King Mafrundi, Kashbad, Wemean, Todos Tus Muertos eta Banda Bassottik ●

Asma ezazu berehalaxe zertan gelditu den gizon hau atzean

Jakina. Oraindik ere betaurreko zaharkituak erabiltzen ari da. Oraindik ere ez da konturatu MULTIOPTICASen Indo Lente Progresiboak egokitzen dituztela. Hoberenak, azkenak, distantzia guztietara bikain ikusteko modukoak. Orain badakizu, zatorz MULTIOPTICASera eta izan zaitez egunean.



MultiOpticas mailegu txartelarekin, ordainketa atzeratua.



INDOLENTE
PROGRESIBO BERRIAK,
MULTIOPTICASen

ZINKUNEGI
MULTIOPTICAS
ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Hernani, 4 - DONOSTI



Publizitatea, kareta eta antzekoak disko gogorrean gordetze dituzte. (Argazkia: Alberto Elozegi).

Txori automatizatua

Azken urteetan egin den aldaketarik garrantzitsunetarikoa jasan du Euskal Telebistak: emisorako zuten teknologi ekipoa goitik behera aldatu dute. Automatizazioari bidea eginez, ia hamalau urte iraun duen tresneria alboratu dute. Orain inguruko telebisten artean den teknologiarik aurreratuenen ei du orain Euskal Telebistak.

HANKAZ gora izan da Euskal Telebista egun batzuetan, emisorako zuten lehengo tresneria kendu eta berria jarri behar izan baitute, emanaldietan inolako etenik egin gabe. Euskal Telebista duela hamalau urte martxan hasi zenez geroztik egin den aldaketarik sakonena jasan dute emisorako teknologi ekipoei. Hasi-rako egunetan jarri zen makinariarekin iraun dute

gaurdaino. ETB-2koak urte batzuk beranduagokoak izan arren antzekoak ziren, berriagoa ziren baina plan-teamendu berdinekoak.

Duela bi urte hasi ziren merkatua aztertze lanean emisio sistemak berri beharrez zirela-eta. Orain urte batzuk telebista batzutan emisorako robotak jartzen hasi ziren. Robot hauen barenan alde batera emititu beharreko zintak eta bestean

magnetoskopioak ziren. Publizitatea emititzeko erabili ohi ziren batik bat. Baina egun robotizazio planteamendua zaharkitzen hasia dago ordea.

Orain Euskal Telebistan martxan jarri den ekipoa osatzen dute: alde batetik robotak, programazioko zintak emititu ahal izateko, eta bestetik disko gogorrak, publizitatea, kareta eta antzekoak gordetzeko. ETBko

kanale bakoitzean sistema bana ezarri dute, baina bi sistema anaia.

Andoni Aranburu emisio eta aurkezpeneko buruak argitzen duenez, «berrikuntza garrantzitsua da, orain sortu berri den teknologia baita. Bideo irudiak disko gogorrean edukitzearena oso berria da. Orain arte obiko telebistetan emisio mahaia eskuz kontrolatzen zen eta robot bat egoten zen zintak eta publizitatea emititu ahal izateko. Orain guk software aproposa dugu mahaia, robota, disko gogorra eta matriza (teknologiaren bibotza zaintzen duena) kontrolatzeko. Robota eta sistema integralaren automatizazioa software bidez dugu». Andoni-
ren hitzetan inguruko telebisten artean ez da horelako teknologiarik aurreratua duenik.

Berrikuntza guztiek dakartzkien aldaketetara egokitzea ez da erraza izaten. Akats batzuk gertatu izan dira antenan, Andoni Aranburuk dioenez, «oso sistema sofisticatua da. Lan erreferentzi guztiak aldatu dizkigu. Aurrekaririk ez dagoenez gu ari gara makinarekin ikusi eta ikasten». Lan egitura ere osatzen ari dira. Ondorio argi batzuk ateratzeko hilabete batzuk itxaron beharko delakoan da Andoni Aranburu.

Aldakuntza handia, baina sei hilabeteko belaunaldi berri bat atera ohi denez, hemendik urte gutxira ETBn sartu dituzten Betacam digitalak, Profil Teknotronix disko gogorra, BTS Phillips eta Vistek konmutadoreak zaharkituak izango omen dira.

ARRITXU ZELAIA

Miren Olabarria: «'Kale gorrian' moduko saioak moda direla uste dut»

Iñaki Beraetxe platoan gonbidatuekin, Klaudio Landa kaleko jendea ustekabean elkarrizketatzen, eta Jon Andueza elkarrizketa 'serioagoekin' aritzen dira asteartero «Kale gorrian». Hirukote bitxi hau zuzentzen duena da Miren Olabarri.

Zein zen aurkezle hirukotearen nabasketarekin lortu nahi zena?

Hirukote berezi honek koktel egokia osatzen zuela pentsatzen genuen. Nik, bereganatu dituzten rolak beraien izateko moduarekin loturik daudela esango nuke. Hirurak oso erakargarriak dira ikusleagoarentzat, gainera bakoitzak bere izaera guztiz markatua eta

guztiz desberdina dute. Koktel lehegarria lortzen dutela uste dut.

«Aurkezleak ezagunak izan arren, horrek ez du esan nahi arrakasta ziurtatua dagoenik» esan zenigun...

Horrek laguntzen duela zer esanik ez. Baina, hórrez gain saioaren edukia berezia izan behar du. ETBko ikuslegoa oso fidela izan ohi da eta fi-

deltasun hori lortu arte oso esijentea izaten da. Baina, ez da erraza eta ondoren, ikuslego hori mantendu behar da.

Klaudiok kaleko inkestekin ez al du jendea gehiegi kikiltzen?

Saioa «Kale gorrian» deitzen da eta izenaren atzean probokazio bat dago jadanik. Kaleko norbait kikildua sentitu daiteke, hala ere, Klaudio Landaren probokazio erakargarriak gehienek pozik erantzuten dituztela uste dut. Probokazioak dira, baina umorea ez da inoiz falta.

ETBk azkenaldian kalearekin barremanak estutzeko joera du saio umoretsu eta zuzenekin?

Mota honetako saioak moda direla uste dut. Beste telebista kateen moduan, ikuslegoa eskatzen duena eman saiatu behar da. Azken finean, ikuslegoak markatzen baitu zer programa mota eman behar den. Hurrengo egunean mahai gainean audientziak egoten dira eta horren arabera erantzun bat eman behar da. Antza denez, gaueko hamarretan jendeak kaleko istorioak ikusi nahi ditu. ETB bere irudia positiboki aldatzen ari dela uste dut.

TXORI BATEK

ESAN DIGU

Mallorkierazko telebista hilabete honetarako

Serra Taldea, Palmako Canal 37 herri telebista erosi eta Tele Nova sortzeko asmoz. Hilabete honetan hasiko da bere seinalea emititzen Tele Nova. Zuzendari, egun Antena 3-TV Mallorca eta Radio Ultima Horako zuzendari den Paula Serra izango du.

Programazioa 20:30etik gauerdira artekoa izango dute gutxi gora-behera eta mallorkieraz, hots, Mallorcako katalanez izango da telebista. Programazioaren barne izango dituzte informatiboak, lehiaketak, eztabaida eta kirol saioak. Hala ere, oraingoz kanpoko ekoizpenak itzultzeko adina aurrekontu ez dutela diote; ondorioz filmeak, marrazki bizi-dunak eta bestelakoak gazteleraz eskainiko dituzte.

Tele Nova herri telebista izango dela dio bere zuzendariak, eta ez telebista kate autonomikoa. Baina irla osora zabalduko da Tele Novaren seinalea. Aurrez bada beste herri telebista bat Palmán, Canal 4 izeneko. Tele Novaren seinalea emititzen hasi aurretik bien arteko lehia hasi da.



«Aurkezle hirukotea koktel lehegarria da». (Arg: Itziar D. Durana)


ITZIAR CARRASCO

■ «Anonimo» eta «Burdinezko arranoa II» astebururako filmeak

Bai larunbatean, bai igandean, zinema ikusteko aukera izango dute ETBko ikusleek. Larunbat gauerdian Alfonso Arandia zuzendariaren «Anonimo» filmea emango dute. Bertan ikasle baten komeriak islatzen dira: ikasgai bat suspenditu ondoren irakasleari anonimo iraingarri bat bidaltzen dio, baina anonimoarekin batera bere agiria sartzen du nahigabe. Aha! ligin guztiak egingo ditu sobrea berreskuratzeko.

Igandean, berriz, «Zine zero-n», «Burdinezko arranoa II» filmearen aurretik eta ostean Sidney J. Furie zuzendaria eta filmean parte hartu zuten aktore garrantzitsueinei buruzko erreportaia interesgarria eskainiko dute. General batek piloto trebe

baten laguntzaz, Sobietar ajenteekin ezkutuko lan ezkutu bat burutzen saiatuko da. Igandean gaueko 21:30ean.



■ «Super bat» goizean goiztik txikienezat

Goizero 7:25etik 9:00ak bitartean «Super bat»-ek marrazki bizidun eta telesailak eskaintzeaz gain, ikusleei bazkide izateko aukera ere

eskaintzen dio. Super Batzaleek «Doraemon, katu kosmikoa»-ren istorioak, «Daniel bihurria»-ren abenturak, «Hattori ninjaren abenturak», «Isidoro» katua-
ren bihurrikariak eta «Mamorro mamu txikia» marrazki bizidunak ikusteko aukera izango dute.



■ «Lagun artean» solasaldia izateko aukera

Astero bezala Antton Aranburu kazetariak eta irratiko esatariak aurkeztuko du hiruzpalau solaskiderek «Lagun artean» tartea. Saio hau 16:9 «ikusmira berrian» ikusteko aukera eskaintzen

dute. Beraz, Euskadi Irratian lehenagotik ere gustukoa zuenak, orain formato panoramikoan du, astelehenero gauerdian.

■ «Euskaraokea»-rekin batera abesteko aukera

Ixiar Oreja eta Iñaki Urdanpilleta herriz herri dabilta «Euskaraokea»-rekin. Haurrak kantari, astelehenetik ostiralera 20:00etan, eta larunbatetan 9:30ean aste osokoaren errepikapena.



Z A P P I N G

Maxi Eroskiren inguruko mahaingurua ATBko «Gure objetibotik» saioan

HILEAN behin izan ohi den «Gure objetibotik» saioan gizarte edota politika gaiei buruzko mahainguruak hartu ohi dute lekua. Aste honetakoan arrasaten egiten ari diren Maxi-Eroski berria izango dute mahaingururako gaia. Arrasaten Maxi-Eroski erraldoi bat egiten ari direnez bailaran eta herriko dendari txikiengan zer-nolako eragina izango duen aztertuko dute. Bertan Udaletzeko ordezkaria, Ibaiarte dendarien elkarreko ordezkaria, Eroskiko beste ordezkari bat eta herriko dendari txiki bat arituko dira. Aurkezle lanean Jon Iñaki Lasa arituko da.

«Mondrasport» saio arrakastatsuan,

Itxaro Zubillaga eta Esti Loiti aurkezleek aurtengoan astelehenero herriko kirolari bati buruz erreportaia eskaini ohi dute. «Porrie» deiturikoa era jokoan izango da astelehenetan. Saioa gaueko 9:30ean izango da.

«Lotsa barik» saioa Maier Uranga eta Nerea Barrutiak aurkezten dute. Asteartero 9:30ean Euskal Herriko pertsonai ezagun bat 'larrugorritan' jarzen lagunduko dute. Hurrengo astean Naihara eta Aimar Euskadiko trikitilari txapeldunak izango dira 'biluztuko' dituztenak.

Kateberria Eibarko telebistan «Berbetan» saioa

Aurtengo programazioan «Berbetan»

elkarrizketa saioa pantailaratu dute Eibarko Kateberria telebistakoek. Euskara, gizarte eta kulturari loturiko gaien inguruko gonbidatua ohi dute elkarrizketagai.

Oier Narbaiza kazetari eibartarra da saioaren aurkezlea. Azaroaren 4ean, astelehenean Iñigo Retolaza eibartar gaztea izango da elkarrizketatua. Iñigo Retolaza Indian urtebetez bertakoei nekazaritza biologikoa erakusten egon da.

Eguen gauetan Karrika tabernan grabatu ohi da saioa. Tabernara gerturatu direnek, grabazioan egon ahal izango dira eta era berean elkarrizketa amaieran galderak egiteko aukera izan ohi dute. Ikusle moduan parte hartu nahi dutenentzako, Karrika tabernan banatzen dituzte txartelak.


«Etxetik plazara»: lau irrati eta proiektu bat

Etxetik plazara» euskara sustatzeko proiektua gauzatzeko bitarteko dira Aralar, Karape, Xorroxin eta Gure Irratia. Nafarroako Gobernuak eta Europako Batasunetik dirulaguntza duen proiektu honen bultzatzaile mendialdeko Ika euskaltegiak dira.

MENDIALDEKO Ika euskaltegiak dira «Etxetik plazara» proiektuaren bultzatzaileak. Eskuak bete helburu dituzte proiektu egileek: euskararen erabilpena sustatzea, transmisioan sortzen ari diren hutsune eta akatsak zuzentzea, hizkuntza erregistro zaharren aberastasuna berreskuratu eta modu berrietara aplikatu, euskara erabili ez den arloetara zabaltzea, euskara eta euskalkien eta batuaren arteko zubia eraikitzea...

Proiektua gauzatu ahal izateko bi bide erabili dituzte irratiak eta «Ttipi ttapa» aldizkaria. Iaz esperientzia piloto gisara Karrape Irratian hasi ziren, aurten «Etxetik plazara»k lau irratiara zabaldu du oihartzuna: Aralar, Karrape (oraingoz itxirik dago irrati hau), Xorroxin eta Gure Irratia. Hasiak dira dagoeneko Xorroxin eta Aralar irratiaren irratiaiekin.

Astean behin irrati bakoitzera gerturatzen dira Ika-



Tokian tokiko irratia prestatu ohi du Ika euskaltegiak lan taldeak. (Argazkia: Jon Abril).

koak. Tokian tokiko irratiaiekin egiten dute, proiektuko partaide den Kepa de Mateok dioenez, «*beharrak oso desberdinak dira, toki bakoitzeko egoera soziolinguistikoaren arabera moldaketak egiten ditugu. Ardatzak nolabait berdina dira ordea.*

Irakasgaia, hiztegia landu,

jendearen galderak, zalan-tzak... eta antzeko osagaiak dituzte orduerdiko-hiru ordulaurdeneko irratiaiekin. Kepa de Mateok dioenez, «*orain arte erantzun ona jaso dugu, jendeak euskara lantzeko saio hauek gustuko ditu.*

ARRITXU ZELAIA

B A G A K

■ Pentsio planen tartea Egin Irratian

Egin Irratiko «Kale gorrian» saioan Gurutze Izagirrek asteazkenetik ostiralera izango den tarte bereziari hasiera emango dio. Gai berdinen inguruan hiru elkarrizketa egingo dituzte, aste honetako gaia «pentsio plana» izango da eta hiru ikuspegi izango ditu: gazte bat, langile bat eta ekonomiako kazetari bat izango dira elkarrizketatuak. 9:30ean hasten da «Kale gorrian», lehenengo ordu erdian asteazkenean gazteekin hasiko dira. Langilearen ikuspegia jorratuko dute jarraian eta azkenik ekonomiako kazetaria ari-tuko da.

«Kale gorrian» irratiaiekin

ostegunero bezala «Eltzea sutan» atalean, euskararen inguruko berriak jorratuko dituzte Ainhoa Elizondo, Aingeru Olaizola, Jon Iraola, Patxi Uranga eta Ibai Esoainek. Ostegunero 10:00etan.

Ostiralean «Puntaren punta» 10:00etatik 11:00etara bitartean ohi da: astean zehar gai edo mobilizazio garrantzitsua izan delako edo izango delako, aitzaki horrekin ordubeteko saioa egin ohi dute.

Asteartean 10:00etan Senideak taldekoek «Kalera» saioa egiten dute presoen inguruko berriekin. Presoei bidalitako agurrak ematen dio bukaera saioari, orain arte Benito Lertxundi, Kaxiano Inurrategi anaiak beste-

A U R P E G I A



Goizalde Landabaso (Euskadi Irratia)

Goizalde Landabaso Euskadi Irratian aritzen da Bilboko korrespondentsal modura lanean. Kazetari-tzako ikasketekin batera hainbat irratiari aritu da lanean: «*Pare bat urtez bi irrati piratetan, ondoren*

Gernika Irratian eta egun Euskadi Irratian nabil -gogoratzen du Goizalde- egunkarietan kolaborazioak egin izan ditut, baina irratia mediorik zuzenena eta politena zela ikusi nuen. Guztien artean magikoena dela uste dut.

Irratian jarraitu eta bere irratiaiekin edukitzea gustatuko litzaioke: «*Jendeagaz barremanetan zauden irratiaiekin egitea gustatuko litzaioke. Kulturak askorako ematen du, baina askotan mugatu egiten gara, eta irudimenak leku asko eduki beharko luke kulturari.*

Paseotxo bat erditu aurretik

CHATENAY-Malabryko Valles izeneko eritetxean, Parisen dago berau, injekzio epidural mota berri bat ari da erabiltzen bertako mediku-taldea azkeneko bi urte hauetan. Injekzio epidural mota hau normalean erabili ohi dena baino askoz ere leunagoa da, eta dezentez min edo oinaze gutxiago eragin ohi duena. Anestesia modu berri honek aukera ematen dio erditzean dagoen emakumezkoari, umea noiz etorriko zain dagoen bitartean, lasai-lasai pa-

seatzen ibiltzeko, ohean etzanda egon beharrean.

Lehendik ere Estatu Batuetan esperimentatua izan zen metodo honen sekretua injektatzen den anestesia-dosi baxu edo urrian datza, amari ematen zaizkion analgesiko eta morfina-mailak oso-oso arinak baitira. Behin anestesia epidurala eman zaionean, emakumezkoaren urdailean kokatutako sentsoze batzuen bitartez amaren tentsio arteriala kontrolatu egiten da, emakumezkoa-

ren eboluzioa edo garapena behatzen duen sendagile-taldeak sentsoze horien bidez uneoro prozesua jarraitu ahal izateko aukera baitu. Ostera, amak egin behar duen gauza bakarra aurretik aipatu dugun horixe baino ez da: lasai asko paseatu eta ibili, bere umetxoa noiz etorriko zain.

Lehenengo anestesia-dosi horren ondoren berriro ere mina agertzen baldin bada, anestesia-dosia gehitu egingo da, emakumezkoaren sorbaldan aplikatzen den kateter baten bitartez. Zutik egoteak edota ibiltzeak dilatazioa erraztu egiten du, eta horrela erditzea azeleratzea edo azkartzea lortzen da. Modu honetara, bestalde, ama ere lasaiago egon daiteke, bere umetxoa edukitzeko une zoragarri hori bizitzeko kontziente eta prest dagoen bitartean. Gainera, bikotekidea ere emakumezkoaren ondoan egon daiteke, hala nahi izanez gero bederen ■

Anestesia modu berri honek aukera ematen dio erditzean dagoen emakumezkoari, umea noiz etorriko zain dagoen bitartean, lasai-lasai paseatzen ibiltzeko, ohean etzanda egon beharrean



JABIER AGIRRE

L A N D A R E A K

Neguaren atarian, hego-haizea

IRITSIA da, dagoenerako, udazken erdialdeko nagusia, hego-haizea alegia. Kasik ohartzera. Zuhaitzek hostoetan ditzuten elikagai apurrak neguari aurre egiteko erreserbak osatzera bideratuko dituzte. Honen ondorioz, klorofila berdea ezkututzean, beste pigmentoak azaleratuko dira zuhaitzen hostoetan: gorriak, horiak, laranja eta abar. Ehitzarien baimenarekin, hasia da jada argazkilarien 'ehiza' garai kuttunena.

Hala eta guztiz ere, hego-haize honen zorabioarekin, eguna joan eta eguna etorri, ilunabar gorri luze eta ederretan basoetako inpresionismoaren kontenplazioan txunditzearekin, kontuz.

Balkoian, terrazan edo lorategian ditzuzun landareez ez inolaz ahaztu. Hemengo neguari aurre egin ahal izateko ahul samarrak diren espezieentzako, lorapoteetan daudenentzako batik bat, babes egokia bilatzeko garaia da oraingo hau.

Mainontzienak etxe barrura sartu beharko dituzu. Gu geronen modukoak direnez, neguko izotz zuri eta beltzak, suilka edo zaldizkako euria, elur-malutak eta haize gorriak leihotik ikusi nahiago dituzte, tropiko urrunetako sorleku beroetako herrimenez, sutondoaren epelean.

Gehientsuenek, hala ere, udaberri berriko berpiztearen zain neguan airoso irauteko, estalki kaskar baten



aterpea nahikoa izango dute. Ez besterik. Gure etxeetako fatxadetan ezagunenak diren geranio desberdinak, esate baterako ■

JAKOBA ERREKONDO

Askatasun sentimendua Aralar mendikateko Ganbo gailurrean

Ganbo mendia Aralar mendikateko gailur altuenetakoa da (1.412 metro), eta Gipuzkoako eta Nafarroako mugan dago. Luis Pedro Peña Santiago zenarentzat, askatasun sentimenduaren iturria zen mendi hau. Txindoki azpian dagoen Larraitz auzotik ekingo diogu txangoari eta bost bat ordutan osatuko dugu itzulia, ardi-talde franko dauden zelai zabalak gurutzatu ondoren.


ARALARKO mendikatea oso zabala da. Hainbat bitxikeria eta edertasun-gune topa ditzakegu bertan. Ganbo mendia mendikateko garaientakoa izateaz gain, bakartienetakoa ere bada. Peña Santiago mendizalea Ganbora joaten omen zen behar zuen askatasun sentimendua hurbiletik sentitzeko.

Ibilaldia Larraitz auzoko ingurunean hasiko dugu. Bertara iristeko, Alegitik aurrera jo behar da Amezketaraino heldu arte eta hemen gora egin, Txindoki handiaren magaleraino iritsi arte. Larraitzetik abia-

tuta, Txindokiren mendebaldeko aurpegitik igotzen den bidea aukeratuko dugu; hau da, gehien erabiltzen dena.

865 metroko garaierara dagoen Oriako iturrira iritsiko gara segituan, eta jarraian, Zirigarateko txaboletara. Hemen, eskuinerantz joko dugu eta Alotza bailaran sartzearekin batera, Saltarriko menhirra ikusiko dugu. Lekuko zaharrenek diotenez, harria alde batetik bestera norik salto egin apustu egiten omen zuten bertako artzainek antzina, eta hemendik izenaren jatorria.

Bideak gora jarraitzen du Alotzako iturriraino. Hemen, inguruko mendi guztietara heltzeko zein bide hartu behar den adierazten duen zutoinarekin egingo dugu topo. Galbiderik gabe, Irazusta izeneko mendi-lepora iritsiko




Goiko argazkian, Ganbo mendiko gailurraren ikuspegia. 1.412 metroko garaierarekin, Aralar mendikateko altuenetakoa da. Beheko argazkian, Alotzako zelaia: mendizaleen atsedene-gune eta ardi nahiz behien bizileku negua iritsi bitartean.

gara —1.264 metrora jada—, eta Igaratzara doan bidea ezkerrean utzi ostean, Ganbo dotoreraino iritsiko gara aldapa malkartsua gainditu ondoren.

Alotza bailarako behi eta ardiaren maru eta zintzarrien hotsari kontrajartzen zaio Ganbo gailurreko isiltasuna. Gailurreko ikuspegia zabala eta zoragarria da, Irumugarrieta bakarrik agertuko baitzaigu gu baino altuago.

Itzulerako bidea Arrubiko zelaietatik barrena, Txindoki mendiko ipar-ekialdetik egingo dugu. Bide hau igoerakoa baino gogorragoa da eta bertatik jende gutxiago ibiltzen da. Txangoa aurkako zentzuan ere egin genezake, baina komenigarria da egoera fisiko onean egotea, gogorragoa baita ■

ANDONI URBISTONDO
MIKEL EGAÑA




ANTZERKIA

1 ● Irungo Udalak eta Katalmitvs antzerki taldeak antolatutako XII. Gazte Antzerkiaren Erakustaldia amaierara iritsi da. Gaur, Badajozeko **Taptc? Teatro taldeak «En alta mar»** lana antzeztuko du. Bihar, berriz, Valladolideko **Teatro del Ruidok «Informe para una academia»**. Etzi, azkenik, Sevillako **Garrapato Teatroyen «El invitado»** ikusi ahalko dugu.

● **Centro Andaluz de Teatro taldeak «Julio Cesar»** antzezlana aurkeztuko du gaur eta bihar Barakaldo Antzokian arratseko 20:30ean.


2 ● **Getxo Antzokian**, ilunabarreko 20:30etik aurrera, Jose Zorrillaren «Don Juan Tenorio» obra taularatuko du gaur Madrilgo **Calderon de la Barca** antzerki taldeak.

● Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiak aurrera jarraitzen du. Aste honetan bi antzezlana izango ditugu ikusgai. Gaur eta bihar, **Centro Dramatico Andaluz** taldeak Antonio Alamoren «**Los borrachos**» lana aurkeztuko du «XXI. Menderantz» sailaren barruan. Hilaren 6an, 7an eta 8an, ostera, **Els Joglars kataluniarrek «Usú president»** taularatuko dute. Emanaldiak Principal Antzokian izango dira, arratseko 20:30etik aurrera.



«...eta kitto!» **Euskara Elkarteak II. San Andres Bertso-paper Lehiaketa antolatatu du.** Eibarren jaio edo bizi den edonork har dezake parte.

«**Eragin pedalei errebotearen alde» lelopean, Pilota-joko Zaharren Eguna burutuko dute azaroaren 1ean eta 2an Usurbilen.** Hilaren 1eko eguna txalaparta-doinuekin hasiko da 22:00etan. Ondoren, bertso saioa. Gauerdian, berriz, dantzaldia Trabuko taldearekin. Biharamuneko egitaraua: 08:00etan pilota-saioak txokotan; 09:00etan Pilota Festa (joko-garbi, boteluzea eta xarea); 12:30ean Zubieta Pilota Elkartearen aurkezpena; 13:00etan arraunlarien desafioa bizikletan; 14:00etan herri bazkaria; 16:30ean herri kirolak; 18:30ean bigarren Pilota Festa (eskuz eta



palaz); 21:30ean «Euskal pilota jokoa» diaporama eta bideo emanaldia; 22:00etan 24 orduen amaiera; eta azkenik, dantzaldia Triki Ta Ke taldearekin 22:30etik aurrera.

5 ● Narruzko Zezen antzerki taldeak antolaturik, Andaluziako **La Zaranda** taldeak Eusebio Calongeren «**Obra póstuma**» taularatuko du 20:30ean Eibarko Hezkuntza Esparruan.

ERAKUSKETAK

1 ● Donostiako **Koldo Mitxelena Kulturunean**, iragan urriaren 30etik, «**Barroja, gaur ere**» izeneko erakusketa dago zabalik (asteartetik larunbatera). Erakusketa abenduaren 7ra bitarte egongo da zabalik.

● Azken aste hauetan, eta datorren azaroaren 9ra bitarte, **Prudencio Ira-**

Gaia eta doinua libreak dira, baina bertsoek jatorrizkoak behar dute izan. Hiru maila bereizi dituzte antolatzailerek: 14 urtetik beherakoak (lau koplak edota bi bertso), 14-18 urte bitartekoak (sei koplak edo hiru bertso) eta 18 urtetik aurrerakoak (lau puntutik gorako sei bertso gutxienez). Lana leloarekin sinatu behar da, eta hiru kopia aurkeztu behar dira gutunazal itxian: gutunazalaren barruan egilearen datuak eta kanpoan leloa. Bertsoak aurkezteko epea azaroaren 8ko 13:00etan amaituko da. Postaz igorri edo norberak eraman ditzake ondoko helbidera: «...eta kitto!» Euskara Elkarteak; Isasi, 39-bis; 20.600 Eibar.

zabal margolari arabarraren obrarik berriena dugu ikusgai Donostiako Galeria DVn. Erakusketa ederra ikusi nahi izanez gero badakizue nora jo.

IKASTAROK

1 ● Urrietako Sarobe Kultur Etxeko Zinema Aretoak **Zinema Zuzendaritzarako Ikastaroa antolatatu du azaroaren 5etik 15era bitartean.** Antonio Drovek emango du ikastaro hau, arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. Argibideak jaso edo matrikulatu nahi izanez gero, hots egin (943) 33 20 32 telefono zenbakira.

JARDUNALDIAK

2 ● Xalbador bertsolaria hil zela hogeitau urte betetzen diren honetan, **hainbat ekitaldi** prestatu dituzte datorren egun hauetarako. Gaur, Aldudeko Sanoki gelan, «**Xalbador gogoan» musika-errezitala** eskainiko dute. Bihar, berriz, **Xalbador Eguna** izango dugu Alduden bertan Euskal Kultur Erakundeak eta Bertsolarien Lagunak elkarrekin antolatuta. Egitaraua: 11:00etan pilota partidua, ondoren bazkaria eta 15:00etan bertso saioa eta kantariak. Hilaren 5ean, azkenik, «**Herria eta hizkuntza**» gaiari buruz mintzatuko dira Mixel Itzaina eta Mikel Erramouspe Uztaritzen.

LEHIAKETAK


1 ● Bertizko Partzuergo Turistikoak «Bailara Lasaia 96» **Kazetaritza Lehiaketa** antolatu du. **Landa-turismoarekin lotutako gaiak** oinarritzat dituzten egunkari, aldizkari, irrati edo telebistako lanak —1996ko urtarrilaren 1etik urriaren 31ra argitaratutakoak— aurkez daitezke. **Lanak igortzeko epea azaroaren 10ean amaituko da.** Edozein argibide nahi izanez gero, deitu (948) 59 23 23 telefono zenbakira.

● **Gastronomiako Euskal Anaiarteak «Jose Maria Busca Isusi» III. Literatur Lehiaketa** antolatu du. Lanak euskaraz zein gaztelaraz egin daitezke. Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkez ditzake. **Euskal sukaldaritza oinarritzat hartuta jorratutako kazetaritza-lanak** —gutxienez 40 lerrokoak— izan behar dute, 1995eko urtarrilaren 1etik azaroaren 16ra bitartean edozein egunkari edo aldizkaritan argitaratutakoak. Lanaren orijinala eta hiru kopia, artikulua argitaratutako egunkari edo aldizkariaren fotokopiarekin batera, aurkeztu behar dira **azaroaren 10a baino lehen** Gastronomiako Euskal Anaiartearen. Informazio gehiago (943) 42 88 06 telefonoan.

6 ● Amurrioko Mendiko Lagunak elkarteak **Mendiko Argazki Lehiaketa** antolatu du. Lehiakide bakoitzak

Iragan urriaren 27az geroztik, eta azaroaren 17ra bitarte, **Mineralogia eta Paleontologiari Buruzko IX. Astea burutzen ari da Urretxun.**

Azaroaren 1ean, 2an eta 3an «Lurraren bizitza denboran zehar» eta «Anbarrari buruzko monografikoa» ikusteko modua izango da Kultur Etxearen ondoko egoitzan. Egun horietan, bestalde, Harri, Fosil eta Harribitxien IX. Aretoa egongo da zabalik Ederrena pilotalekuan eta Zubimusu eta Iparragirre plazetan. Bertan, salerosketa, trukaketa, planetario mugikorra... izango dira protagonista. Ez ahaztu, gainera, azaroaren 17ra bitartean, bi erakusketa egongo direla



zabalik: «Gasteizko portuko fosilak» Kultur Etxean eta «Fosilak denboran zehar» Labeaga ikastetxean.

edozein neurriko lau argazki bidali behar ditu 40 x 50 neurriko kartulina batean itsatsirik. Atzealdean argazkiaren izena eta egilearen datuak ipini behar dira. Gaur amaitzen da lanak aurkezteko epea. Helbide honetara igorri: Mendiko Lagunak T. / Kultur Etxea / 01.470 Amurrio (Araba).

MUSIKA

1 ● **Amaia Zubiriak** makina bat kantaldi eskainiko ditu aste honetan. Gaur, **Le-kunberrin** izango dugu arratseko 20:00etatik aurrera. Bihar, aldiz, bi herritan izango da entzungai: **Irurtzunen** 20:00etan eta **Orexan** 23:00etan. Etzi, azkenik, **Elizondon** emango du kontzertua 20:00etan.

Diapositiba Lehiaketa. Bietan edonork har dezake parte eta gaia librea da. Lehenengoan, bideo-zintak zuzenean grabatutako lanak nahiz animaziozkoak izan daitezke, eta partehartzaile bakoitzak gehienez bi lan aurkez ditzake. Bigarrengoan, berriz, diapositibek koloretakoak izan behar dute, eta gehienez hiru diapositiba aurkeztu ahal dira. Lan bakoitza gutunazal itxi batekin batera aurkeztu behar da. Gutunazalaren barruan egilearen datuak jarri behar dira, eta kanpoaldean leloa. Lanak aurkezteko epea azaroaren 8an amaituko da. Argibideak (94) 463 70 88 telefonoan.



Leioako Udalak bi lehiaketa antolatu ditu: Leioako III. Bideo Lehiaketa eta Leioako X.

2 ● Gazteriek elkarteak kontzertua antolatu du Donibane Lohizuneko Xanta kiroldegian, 21:00etan. Taldeak: **Ottokor, Hezurmeta, EH Sukarra eta Soziedad Alkoholika.**

● Sakanako **Nahi Ta Nahiez** taldearen doinuak entzun ahalko ditugu **Heletan** gaur gaueko 23:00etatik aurrera. Ondoren, Xitoak taldearekin dantzaldia.


● **Niko Etxart eta Hapa-Hapak** «Gili gilikatzen haüt» disko berria aurkeztuko dute Altzürükün 22:00etan. Gero, **Akelarre** taldearekin dantzaldia.

5 ● Getxoko XVI. Aste Korallaren barruan, hiru kontzertu: Filipinetako **The Philippines Madrigal Singers** gaur, Lituaniako **Jauna Muzika** bihar, eta Getxoko **Irutasun Abesbatza** etzi. Emanaldiak San Martin de Tours elizan izango dira 20:15ean.

● Donostiako Victoria Eugenia antzokian **Errusiako Armadako orkestraren, baletaren eta abesbatzaren** emanaldiez gozatu ahalko dugu gaur eta bihar, arratseko 20:00etan hasita.

6 ● EHUren Leioako Kanpuseko Areto Nagusian, **Anje Duhalderen** kantu eta doinuak entzuteko parada izango dugu **12:00etan eta 17:00etan.**

Gurutzegramama



EZKER ESKUIN: 1.- Basoko animalia. 2.- Edaritegi. Kontsonante bikoitza. 3.- Bizkaieraz, gehiegi. Nitrogenoa. Denbora. 4.- Ugaztun karraskari mota. Alderantziz, egile atzizkia. 5.- Arabako udalerrria. 6.- Nafarroako ibilgailuetan. Nafarroako ibaia. H₂O. 7.- Bokala. Lurrera etorri. Kanpo. 8.- Aztarna. Musika nota. Uranioa. 9.- Esaten du. Animalia adarduna. 10.- Bat. Urjauzi ezaguna.

GOITIK BEHERA: 1.- Guraso eta seme-alaben arteko ondore-maila bakoitza. 2.- Abarra. Interjekzioa. 3.- Maiz. Izan. 4.- Aluminioa. Basapizti mota. Iodoa. 5.- Bost alde dituen irudi geometrikoa. 6.- Iparretarrak. Mezu. Alderantziz, gramo hitzaren laburdura. 7.- Ur korronteak gaintzeko eraikina. Biloa. 8.- Tona. Bokala. Rutenioa. Frantziako hegazkinetan. 9.- Zango atala. Sodioa. 10.- Larrua. Istua.

Kate hitzak

Letra kopuru desberdineko hitzak ageri zaizkizu ondoan. Helburua zera da, eskuineko taula osatzea, puzzlea bailitzan. Pasa ezazu hitz bakoitza dagokion lekura, kontuan harturik hitzok ezker eskuin eta goitik behera joan daitezkeela.

8 letra

Emirerri
Igurikia
Laponiar
Olagizon


7 letra

Etekina
Goizero
Gurpila
Omnibus

4 letra

Agor
Alak
Anoa
Aroa
Arro
Arte
Atzo
Baoa
Bele
Elur
Emir
Erre

Euri
Hotz
Igor
Ilar
Irun
Isla
Isun
Izar
Laga
Mali
Onak
Zina




2 letra

Ag
Ah
Az
Ee
Ge
Na
On
Ru

3 letra

Igo
Izi
LAB
Sor


ERANTZUN zenbakidunak bete ondoan, pasa ezazu letra bakoitza dagokion goiko taulako laukira eta grabatuan ageri den herriaren izena, Gipuzkoako herri baten izena ageriko zaizu.



1	2	3	4	5	6
---	---	---	---	---	---

	Testuak	Beldurtua	Lapurdikoa	
	Auziak	Ataurrea	Nahastura	Katilua
			trinkoa	
Intzi mota	Labur. Eduardo	Pirinioetako ibaia		
Mendi-lerroak	Nauka	Harana	5	
				6
Gurutze mota				Bokala
Bi eta bi	2			Biltzarra
		Nafarroako herria		Bromoa
		Bokala		Her. hizk. zer
Urania	Nafarroako ibaia		Baztango herria	
... egina, total egina	Burdinazko lokarri		Gizon izena	
		Jainko egiptoarra	Behorra bero egon	
		51	Aita	Naizen honek
Behalekuak				Non atzizkia
Gozo				Hitz grekoa
		Herri		4
		Lehenengo		
Ald. eta hizkaieraz. omen	1	Pl. araknido mota		

Hieroglifikoa



Mikel eta Patxi dira gure elkarteko ...

Aurrekoastekosoluzioak

ELDUAIN

●	I	●	E	●	B	●												
●	B	●	A	●	A	R	R	A	T	S	●							
B	I	E	L	O	R	R	U	S	I	A	●							
●	H	●	A	●	R	●	R	●	E	●	T	●	B					
●	Z	●	I	●	K	●	I	●	N	●	A	●	L	●	A	M	A	●
●	T	●	A	●	K	●	O	●	S	●	E	●	M	●	E	●		
H	E	L	I	●	B	A	R	E	A	K	●							
●	G	●	A	●	R	●	I	●	A	●	A	●	N	●	T	●	I	●
●	P	●	I	●	K	●	O	●	N	●	D	●	O	●	A	●	Z	●
●	A	●	A	●	K	●	U	●	K	●	U	●	E	●	Z	●		

Gurutzegrama

EZKERESKUTAN: 1. Ekitaldiak. 2. Mirari. Rio. 5. Amerkar. R. 4. Nuke. Irina. 5. Kainita. En. 6. IK. Tassis. 7. Z. Goia. IKA. 8. Uko. Okelak. 9. Vereia. Kote. 10. Anarkia. Or.
 GOITIK BEHERA: 1. Emankizuna. 2. Kimutak. Ken. 3. Ireki. Goraf. 4. Tarento. Er. 5. Ari. Iratxak. 6. Likatsak. 1. 7. D. Aras. ERA. 8. Iri. Oilo. 9. AP. Neskatu. 10. Koran. Aker.

Kate hitzak

●	S	A	G	U	●	G	I	D	A	●
G	E	L	A	●	M	●	Z	I	L	A
E	G	U	Z	K	I	A	●	L	E	R
R	I	●	T	A	N	T	A	I	A	K
O	●	B	A	L	A	●	T	S	●	U
●	B	E	R	E	●	L	A	T	A	●
I	●	R	O	●	B	A	B	A	●	I
G	A	R	A	P	E	N	A	●	E	Z
E	R	I	●	A	T	A	L	A	S	E
L	O	A	K	●	A	●	A	R	A	N
●	A	K	E	R	●	E	K	I	N	●

Hieroglifikoa:
UDAREAK

ERROBIKO PIRAÑAKO — Komikia

Espainia indartzen 17 urtez

«... **JESUS VIANA**, Pejenaute, Vizcaya eta Bandres, denak pozik: Estatutua Espainiarentzat mesedegarri den seinale da bori». Ricardo de la Cierva.

Hilaren 25ean bete zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako Estatutuaren onespeneraren 17. urteurrena. 'Bete' egin zela esan beharko, ez 'ospatu' dutenik. PSE-EEK izan ezik, urteurren txit gogoragari honen inguruko «instituzioen isiltasun ozena» kritikatu baitu. «Arkumeen isiltasuna titulua ez letorkioke gaizki.

Zolitasun politiko handia, iragarlea, De la Cierva historialari espainolarena; eta koherentzia handia PSOERena Espainia batuaren (batua betirako, 'lotua eta ongi lotua') aldekoentzat horren garrantzizkoa den urteurrena ospatzera ausartzeagatik.

Estatutu hau, galga ezezik pareta ere izan zen (eta da) Hego Euskal Herriak askatasuna erdiesteko bere borondatea libreki adieraz dezan. Horrela zekusan historialariak eta horrela dakusa PSEk. Eta horrelaxe ikus-jasaten du normalkuntza politikora iritsi ez den gure herri honek. Hamazazpi urte, zenbait presok gartzelan daramatzanak adina. Gehiegitxo, duda barik..

ESTATUTUAREN inguruko eztabaida hain da anitza (Aportazio Legearen edota Kontzertu Ekonomikoaren inguruko adinakoa) ezen Euskadi Buru Batzarreko kide guztek parte har dezaketen; eta, dagokionean (ia beti) Madrilera azken hitza esan. Horrela bada, 1978ko abenduan Konstituzioa onartu ondoren (Hego Euskal Herrian ez) Euskal Kontseilu Nagusiak hil bereko 29an aurkeztu zuen Estatutu proiektua. Hamalau ordezkari baskongadak eta Kongresuko Batzorde Konstituzionaleko beste 33k eztabaidatu zuten. Bidenabar, Adolfo Suarezek Adituen Kontseilua bildu zuen Moncloan, testua 'errepasatzeko'. Euskal Herriko giro soziala irakiten ari zen sasoi hartan: Amnistia-aren aldeko ekimenak, Askatasunaren Aldeko Ibilaldia 77an, Aberri Egun jende-



KARLOS RODRIGUEZ

HBko Mahai Nazionalako kidea

tsua 78an... Egun horretan izenpetu zuten lau probintzientzako Autonomi Estatutu Nazionalaren aldeko agiria alderdi guztiek, frankistek izan ezik (UCD, CD eta AP). Iragan mendean ez bezala, Estatutuekin hitzarmena erabakitzerakoan euskal erresistentzia ez zegoen bentsitua; Espainiako sistema politikoa zebilen krisi eta ezegonkortasun nabarmenean.

BATZUK izutu egin zituen, agian, ezegonkortasun hark. Hainbeste urte ia ezertxo egin barik eta, hala ere, hain hurbil ageri zen kudeaketa ahalmena! Arrisku, eta tentazio, handitxoak. Eta horrela heldu ziren benetako botereen (garai hartako ia bakarrak: militar-ekonomikoak) aurrean makurtze itunak. PSOEk eta EAJk ere Moncloako Itunak eta Estatutua izenpetu zituzten, orduko langile mugimendu kementsua eta zentralismoaren aurkakoa eskulutuz.

Ondorioak argiak dira: Nafarroa eta Baskongaden arteko lubakia sakondu, berreuskalduntzei planei mugak jarri, autodeterminazio eskubideari ateak itxi,

espainolizazioa areagotu, normalkuntza politikoa urrundu eta gure herria egoera sozio-ekonomiko penagarriaren utzi. Eta arazoa ez da izan Estatutuaren garapena soilik. Dударik gabe LOAPA, Epaitegi Konstituzionalaren jarrera, EAJren zatiketa eta PSOE Jaurilaritzan sartzea, Ajuria Eneako ituna bera oztopoak izan dira Estatutuarentzat. Baina hau ia erabat garatua denean ikusi da argiro zer ekarri digun: dezentralizazio administratiboa (gai ekonomiko gehienetan ezta hori ere). Dezentralizazio simetriko eta homogenea, estatu zentralista bati dagokiona. Militarren 'azken hitza' ahantzi gabe.

BEREIZGARRI batzuk baditu, hala ere. Bi, bereziki: batetik, hainbat zerga biltzeko ahalmena (ez, baina, bertako sistema fiskala) Kontzertuaren bidez. Sistema horrek 400.000 milioi pezetatik gora damaio urtero estatuari (polizia, armada, monarkia eta azpiegiturak ordaintzeko, batik bat hemendik urrutikoak). Bestetik, polizia autonomoa. Mila biztanleko 8 poliziaz izatera iritsiak gara (Europako batz bestekoa baino bi bider gehiago) oso delinkuentzia gutxi dagoen herri honetan.

Balantze triste eta ezkorra 17 urte hauena. Euskal Herriarentzat bederen, zeren eta egin diren aurrerapausuak (euskara, nortasun nazionala, proiektu antiekologikoen ezabapena...) ez baitira Estatutua 'edukitzeagatik' eman, 'edukiagatik ere' baizik.

GUTXI balitz orain artekoa, estatuarekiko gatazkak bere horretan dirau. Momentu egokia da, agian, zera gogoratze-ko: «Demokrazia ez da erabatekoa izango gure herrian harik eta Konstituzioak burujabetza onartu eta autodeterminazio eskubideari bidea zabaldu arte». Gezurra dirudi baina esaldi hau ez da apirilean ETAK plazaratutako Alternatiba Demokratikotik aterea, 1978ko Aberri Egunean 18 erakunde politikok izenpetutako txostenetik baizik.



Akelarre
Gouero zuzenean.



Anje Duhalde
Bakezaleak.



Eltzegor
Herrialde Berdean.




Txirri Mirri eta Txiribiton
Pailazo.




Drindots
Made in plazan



Egan
Meta eginez



Charles Darwin
Eboluzioaren Profeta
Inaki Azkune Mendia




Albert Einstein
Munduari buruzko nire pentsamoldea



Sorginak eta Euskal Herria
Gaiak.




Gazteak eta sexualitatea
Gaiak.



Euskal historiaren 15 gertaera nagusi
Gaiak.



Lamiak, sorginak eta jainkosak
Julio Caro Baroja



Nafarroa erdi aroan
Béatrice Leroy



Jon Alonso
Katebegi galdua



Harkaitz Cano
Beluna Jazz




Itxaro Borda
Bizi nizano munduan



Imanol Murua eta Humberto Unzueta
Suetena Belfasten



Zenbaki bizidunak
Didaktiker.



Euskal Gramatika osoa
Didaktiker.



Benetan Euskaraz 1. maila
Didaktiker.



Juan Luis Zabala
Galdu arte



Mikel Ibaguren
Hemen gauk lau ertz ditu



Miren Aranburu
Etorkizunaren memoria

B E R R I A K



* Hauetaz gain, GAIK eta SUSA argitaletxeen, IZ disketearen eta DIDAKTIKER-en katalogoetako titulu ugari ditugu. Eskaiguzu zerrenda eta berehala eskuratuko duzu.

ESKARI ORRIA

Izenburua	Prezioa	Aleak	Guztira

Kobratu beharreko kopurua

Transferentzia: Euskadiko Kutxa 3035 - 0036 - 19 - 0360030651 Ondorengo datuekin batera ingresoaren agiriaren kopia bidali behar da.

IZEN - DEITURAK

KALEA _____ ZBKIA. _____ SOLAIRUA _____ ESKUA _____

TFNOA _____ HERRIA _____ POSTA KODEA _____

HERRIALDEA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____

KONTUTIK

TITULARRAREN IZEN ABIZENAK _____ SINADURA _____ HARPIDETZA ZBKIA. _____

BANKU EDO AURREZKI KUTXA _____

SUKURTAL HELBIDEA _____

KONTU KORRONTEA/LIBRETA _____

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Kontu zenbakia

SINADURA

Euskal Kulturaren Agenda



ZURE ORDENADORERAKO PREST

DISKETE BAKAR BATEAN

**Euskal Kulturaren Agenda
Agenda de la Culture Basque**

**Agenda de la Cultura Vasca
Resource Guide to Basque Culture**

Eskaria egiteko: Tel. 943 - 37 15 45 • Faxa 943 - 36 10 48